

Zu hemen zaude. goiena

Atzegirekin esperientziak partekatzen

Adimen urriko pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarteak kanpaina bat abiarazi du, aisialdian esperientzia berriak bizi izatera gonbidatuz / 2



Eskualdeko Atzegikoak Aretxabaletan, kanpaina aurkezten.

IMANOL BELOKI

Lehen arrasatearrak

Nekropolia eta zeramikak aurkitu dituzte San Juan Batailatzailearen elizaren atarian / 11



IMANOL BELOKI



GOIENA TELEBISTA BERRIA / 23

SINADURAK

	ANDONI ELEJALDE / 20
	XABIER LETONA / 7
	MIGUEL LAZPIUR / 28
	ANE ZUAZUBISKAR / 9
	AITZOL ITURBE / 33

duntua

Iciar Astiazaran katedradunari elkarrizketa

Erreportajea: arriskuan dauden animalia espezieak

2 mō betaurreko graduatu
erreflexuen aurkako leiarrekini
+
School Visual Test-a
97€

www.multioplicasgipuzkoa.com

BEASAIN • EIBAR • DONOSTIA • ERRENERIA
IRUN • LASARTE • TOLOSA • ORDIZIA

Kontuz! Itzazu zure optikan karpalaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan



Debagoieneko Atzegiko hainbat kide Aretxabaletan. IMANOL BELOKI

'AtzegiXperience' kanpaina aurkeztu dute

Adin askotariko pertsonak boluntario izatera eta "esperientzia ahaztezinak bizitzera" animatu nahi ditu Atzegik sentsibilizazio kanpaina berriarekin. Bailaran ere, herritarrak "kanpainako lau esperientzietan parte hartzera" gonbidatu dituzte

Josu Bilbao DEBAGOIENA

Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarteak (Atzegi), Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, urteko sentsibilizazio kanpaina berria aurkeztu du asteon. *AtzegiXperience* lelopean, batez ere, boluntarioei bideratuta egongo da kanpaina.

Izan ere, "adimen urritasuna duten pertsonak, deialdi dibertigarri baten bidez, boluntarioen esperientziak, modan dauden esperientzia kaxekin alderatuz, bizipen ahaztezinak izateko gonbita" egin du elkarteak. Bizipoza, Escapadas, Bienestar edo Bidelagun, izenen arabera multzokatu dira AtzegiXperience kaxak eta, horien bitartez, Atzegik eskaintzen dituen boluntario aukerak azalduko dira; puntualki kolaboratzea, aldizka, zaletasunen bat partekatzea, ekimenetan parte hartzea, oportetara joatea edo, besterik gabe, zerbait hartzera ateratzea. Hala, kolore guztietako esperientziak

daudela aditzera eman nahi du kanpainak: "Zarena zarella badagoela zuretzat egokia den esperientzia".

Aldi berean, "boluntarioen lana balioan jarri" nahi dute, eta adimen urritasuna duten pertsonekin denbora partekatzen duten pertsonen "eskerrak eman" gura dizkiete. Izan ere, "doan, euren zaletasunak partekatu eta hainbat esparrutan laguntzen duten pertsona asko dago", Patricia Ayo kanpainako koordinatzaileak azaldu duenez.

Josean Idoeta Atzegiko presidentea, bestalde, adimen urritasuna duten pertsonen bizitzan boluntarioek duten garrantzia azpimarratu du: "Hauei esker, adimen urritasuna

**ATZEGIKO
BOLUNTARIOEN LANA
BALIOAN JARTZEA DA
KANPAINAREN
HELBURUETAKO BAT**

na duten pertsonak euren aisialdiaz gehiago gozatu, gizartearen aktiboki parte hartu edo lagun hurkoa zabaltzeko aukera dute eta horrek hobetu egiten du euren gizarteratzea".

Horrez gain, Josean Idoetak adierazi du boluntarioek ere balorazio oso positiboa egin ohi dutela. "Oso ondo pasatzen dute eta bueltan asko jasotzen dutela adierazten digute".

Debagoiendarrak animatzea

Atzo egin zuten bailara mailan *AtzegiXperience* sentsibilizazio kanpainaren eta promoziorako kartelen aurkezpena, Aretxabaletan, eta Debagoieneko Atzegiko arduradun Jokin Antxiak herritarrak parte hartzera gonbidatu zituen: "*AtzegiXperience* kanpaina berrian parte hartzera animatu nahi dugu jendea. Esperientzia nola bizi aukeratzeko orduan lau aukera daude, hain zuzen ere, eta esperientzia horiek aberasgarriak izango dira, zalantzarik gabe".

Hainbat komunitatetako hamabi kidek ikastaroa jasoko dute

Garabidek eskaintako hizkuntza biziberritzeko gidaritzari buruzko ikastaldi trinko bat izango da

J.B. ARETXABALETA

Astelehenez geroztik, eta urriaren 30era arte, abian da Aretxabaletan Garabide elkarteak lehen aldiz antolatu duen hizkuntza biziberritzeko gidaritzari buruzko ikastaldi trinkoa. Martitzenean, Unai Elkorro alkateak ondoetorria egin zien ikastaldiko parte-hartzaileei, eta ikastaroaren helburuak azaldu zituen, besteak beste, Jon Sarasua Garabideko kideak.

Zortzi hizkuntza gutxiagotutako hamabi pertsona ari dira parte hartzen ikastaldian, denak

ere agintari profilekoak. Ikastaroan, kitxua (Peru eta Ekuador), nasa (Kolonbia), kaqchikel (Guatemala), nahuatl (Mexiko), Yukatango maia (Mexiko), amazigh (Maroko) eta maputxe (Txile) hizkuntza komunitateetako kideek parte hartuko dute.

Urriaren 30era arte iraungo du ikastaldiak, eta parte hartzaileek 140 ordu inguruko formazioa jasoko dute, euskararen inguruan egin den lanketa eza gutuaz hizkuntzak biziberritzeko estrategietan trebatzeko helburuarekin.



Komunitateetako hamabi kideak Garabideko arduradunekin. MIRARI ALTUBE



MAITE TXINTXURRETA

Nagusien eskubideen defentsan

Pertsona nagusien bizi baldintza "gero eta kaskarragoen" eta pentsioen gaineko "ardura" azaldu dute, besteak beste, ibarreko hainbat herritan, Pentsiodunen eta Nagusien Nazioarteko Egunaren bueltan. Argazkian, Bergarako San Martin plazan astelehenean egin zuten elkarretaratzean bildutako herritarrak ageri dira.

Goienagusiren ikasturte berrian, 43 ikasle gehiago

2017-2018 ikasturtean 95 ikasle izatetik 138 izatera pasatuko da Goienagusi eta eskolak Arrasateko Kulturaten zein Bergarako udaletxeko areto nagusian izango dituzte; 52 saio egingo dituzte ikasturtean zehar, askotariko gaietan adituak diren irakasleekin

A.T./J.B. ARRASATE

Goienagusi elkarteak eguazteen aurkeztu zuen 2017-2018 ikasturtea. Oso pozik daude, besteak beste, ikasle kopurua nabarmen igo delako: 95 izatetik 138 izatera pasatu dira. "Ilusio handiarekin ari gara lanean, jende gehiago dugu-eta aurten", adierazi du Goienagusiko presidente Mañole Ezenarrok. 138 ikasle horietatik 80 Arrasatekoak dira, 31 Bergarakoak, hamabi Eskoriatzakoak, bederatzi Aretxabaletakoak, Aramaioko hiru, Antzuolako bi eta Oñatiko bat. Eta saioak, hasiera baten, Arrasaten eta Bergaran egingo diren arren, euren asmoa da ekimena bailarako beste herri batzuetara ere zabaltzea: "Hitzaldi gehienak Kulturaten egingo dira baina bigarren hiruhilekotik aurrera asmoa dugu, esaterako, Aretxabaletan eta Eskoriatzan beste saio batzuk ere egiteko".

Goienagusi Debagoieneko pertsonen zuzendutako elkarte da

eta 2011n sortu zuten hainbat arlotako ezagutza handitzeko, gaitasun intelektualak trebatzeko edota aisialdiaz gozatzeko. Klaseak asteleheneretan eta eguaztenetan izango dituzte, 10:00etatik 12:15era, Kulturateko areto nagusian edo Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan; orain arte Arrasateko Etxaluzeko eraikinean egiten ziren eskolak.

52 saio ikasturte osoan zehar

Hizlari adituek hartuko dute parte ikasturtean zehar; Juanjo Alvarez, Txente Rekondo, Carmen Manzano eta Ainara Ruiz de Egin dira lehen hiruhileko hizlarien zerrenda luzea osatzen duten izenetako batzuk. Saio horietan, historia, arte, zuzenbide, musikaz eta ekonomiaz jardungo dute, besteak beste. Eta ikasturte osoan zehar 52 saio inguru izango dituzte. Ikastaroak osatzeko, ekitaldi musikalak eta irteera kulturalak ere izango dituzte.



Ikasturte berriaren aurkezpena, Arrasaten, Kulturaten. AMAIA TXINTXURRETA

Euri-urendako andela berria jarriko dute Epeleko plantan

Konpost-plantak dituen "akats larriak" zuzentzeko lanak Murias enpresak egingo ditu, hamabi astetan

J.B. ARRASATE

Konposta egiteko Epelen dagoen plantak dituen "akats larriak" zuzentzeko beste ur-andela bat egingo dute datozen asteetan. Murias eraikuntza enpresarekin sinatu du lan horiek egiteko kontratua Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak, eta hamabi astetan eraikita izango dutela jakinarazi du EFE agentziak.

Akatsak zuzentzea, "ezinbesteko"

Konpost-plantaren kudeaketa lehiaketa bidez esle-

tzeko "ezinbestekoa" da han dauden akatsak zuzentzea, Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak jakinarazi duenez. Eta gaineratu du lan horien guztien kostua proiektuaren eta obraren zuzendaritzaren arduradunei eskatuko diela.

Hain zuzen ere, Gipuzkoako Ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensiok orain dela hilabete batzuk iragarri zuen kalteen erantzule egingo zituela konpost-gunea diseinatu zuten arduradunak.

07

Soilik bazkideentzat

URRIA

20%

* LURRINDEGIAN

25€-tik gorako erosketengatik.

Zaintza pertsonala eta hortzetako eskuila elektrikoaren ordezkioak barne hartzen ditu.

Zure **EROSKI club** Txartelean itzuliko dizugu hurrengo erosketetarako.

* Kuxatik pasatzean sartuko dizugu erositako produktuen %20 zure EROSKI club txartelean. Zuntz sailean dauden haurzaintzako produktuak ez dira sustapenean sartzen. Sustapen baliaduna EROSKI hipermerkatu honetan. Txartelean sar daitekeen gehienezko zenbatekoa 100 €.

Kontsultatu erabilgarritasuna eta gainerako baldintzak salmenta-puntuan.

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30



Berbalagun ekimenaren antolatzaileak eta laguntzaileak ikasturte berriaren aurkezpenean. MIREIA BIKUÑA

'Hartu, eman eta eragin': mintzalagunak martxan

Berbalagun egitasmoak izen-ematea ireki du, eta jendea animatu dute nork bere herriko taldean parte hartzera, bidelari edo bidelagun; ahozko euskara hobetzeko edo besteei horretan laguntzeko helburuarekin mintzapraktika saioetan aritzera

M. B. M. T. DEBAGOIENA

Debagoieneko eskualdean 200 lagunek baino gehiagok parte hartzen dute Berbalagunen egitasmoan, eta, aurtengo ikasturtera begira, izen-ematea zabalik dago bidelari eta bidelagun izan nahi duten kide berriendako. Interesatuak euren herriko taldeetara edo euskara elkarteetara jo dezakete informazioa jasotzeko eta izena emateko.

Mintzalagun izateko bi baldintza bete behar dira: euskaraz komunikatzeko gai izatea eta astean ordubetez elkartzeko konpromisoa hartzea. Gertuko harremanetan ahaleginak batzeko giltzarri nagusietako bat izan gura duen egitasmoa da. "Bidelarien eta bidelagunen hartu-eman mintzapraktikako taldetik harago zabaltzen da. Elkarrekin, euskaraz bizitzeko espazio berriak eraikitzen dituzte. Horregatik diogu hartu, eman eta eragin egiten dela", esan du Elgetako Berbetan egitasmoaren koordinatzaile Geaxi Ezpeletak.

Boluntarioen sare zabala

"Euskaraz naturaltasunez moldatzen direnak mintzamina hobetu nahi dutenekin elkartzen dira", azaldu du Eskoriatzako Berbalagunen koordinatzaile Asier de la Florrek, eta gogorazi du borondatez aritzen direla parte hartzaileak horretan.

Mintzalagunen sarea 6.000 pertsonak baino gehiagok osatzen dute, eta haietatik 1.200 bidelagunak dira; hau da, euskaraz naturaltasunez aritzen direnak. 120 herritan 1.000 taldetik gora daude martxan. Debagoiengan, 200 lagun baino gehiago dira.

Goienaren dokumentala

Mintzalagun egitasmoaren garrantzia bere hartuta, Goiena

IZEN-EMATEA ZABALIK DAGO BIDELARI EDO BIDELAGUN IZAN NAHI DUTENENDAKO

telebistak horren gaineko dokumental bat egin du, *Mintzalagunak. Sare bat inguruan. Bidelagunak alboan* izenarekin. Mintzalagunek egunerokoan zer egiten duten eta horrek euskal hiztun moduan zer dakarkien jaso dute ikus-entzunezko horretan. "Harrera oso ona izan dugu. Eskerrik asko dokumentalean parte hartu dutenei eta baita haiengana iristen lagundu diguzuen guztiei", esan du Goienako kazetari Larraitz Zeberio. Dokumentala urriaren 11n, datorren eguaztenean, emango dute Goiena telebistan.

Arrasateko Zahar-Berrik 20 urte

Azkenik, Arrasateko Zahar-Berri mintzapraktika egitasmoa 20. urteurrena ospatzen ari da aurten, eta, horren harira, egun osoko jardunaldia egingo dute urriaren 19an. Mintzapraktika programen inguruko ekarpenak egin eta egitasmotik kanpoko eragina zabaltzeko proposamenak aurkeztuko dituzte.

Hamar eguneko greba iragarri dute hondakinen bilketan

ELA eta LAB sindikatuek salatu dute zortzi langile kaleratuko dituztela eta sei lanaldia murriztuko dietela

X.G./M.T. DEBAGOIENA

Eskualdeko zabor bilketa esleitzeko lehiaketa publikoa egin du Mankomunitateak, eta enpresa bakarra aurkeztu da: Enveiser. Horrek kontratua sinatu eta gutxira, zortzi kaleratze eta sei jardun-murrizketa iragarri ditu, eta langileek greba egingo dutela iragarri dute, hilaren 16tik 25era.

Eskualdeko zabor bilketa Ferrovial enpresak egin du azken bost urteetan, baina, diru galarak argudiatu ostean, ez da honen esleipenerako lehiaketa publikora aurkeztu. Aipatu beharrekoa da denbora tarte horretan eskualdeko zaborren bilketak ere aldaketa asko izan dituela: lehengo sistematik atez atekora, edo oraingo bosgarren edukiontzira.

Otsail aldean, orain arte zaborrak batu dituen enpresaren ezezkua ikusita, plegu berriak atera zituen Mankomunitateak, hiru faktore kontuan izanda: bost edukiontziko sistemak eskulan gutxiago behar duela, zerbitzu batzuk Mankomunitateak hartuko dituela bere gain, eta Ferrovialek zeukan gain-kontratazioa. Hala, zerbitzua esle-

tzeko lehiaketa publikoa jarri zen martxan, eta Enveiser enpresa izan da bertara aurkeztu den hautagai bakarra.

Irailaren 25ean sinatu zuen kontratua Enveiser enpresak, eta, hori egiteaz bat, zortzi langileri baja eman eta beste sei lan jardunean murrizketak aplikatuko dizkiela jakinarazi die langileei.

Negoziaketarako tartea

Grebaren data heldu aurretik akordioaren bat lortzeko esperantza dute Mankomunitateak eta langileek. Hala, bi aldeei, langileei eta enpresari, bilera baterako dei egin die Mankomunitateak, "arazoari irtenbide bat emateko". "Bilera horrekin, Mankomunitateak duen helburua alde biak adostasunera iristea da, jakinda orain arte ez dutela astirik izan negoziatorik aurrera eramateko", azaldu dute.


Ikusteko dago negoziatioek emaitzarik emango duten edo ez. Hori lortu ezean, eta greba eginez gero, gutxieneko zerbitzu minimoak egongo direla jakinarazi du Unai Elkorok, horien zenbatekoa Eusko Jaurlaritzak ezarriko duela azaldu.



SARA VITORIA

Kataluniarekiko elkartasuna

Domekako erreferendum egunak emandakoaren ostean, asko izan dira egunotan Espainiako Poliziaren eta Guardia Zibilaren jarrera salatzen eta kataluniarrei babesa adierazteko ekimenak Debagoiengan. Domeka gauean lapiko hotsek hartu zituzten bailarako herriak, eta hurrengo egunetan ere burrundarak, kantaldiak, elkarretaratzeak... izan dira.



13. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

SARI NAGUSIA



HOSSEGORREKO ZUBITIK EGUNEKO AZKEN JAUZIA | Argazkia: Arnaitz Eraso (Aretxabaleta)
SARIA: Tableta Arrasateko Eroski Hipermerkatuaren eskutik


Publikoaren Sarian parte hartu dutenen artean eginiko zozketaren irabazlea: Txari Biain

SARIA: Loramendi Kirolak-en 100 euroko erosketa-txartela.

Beste behin ere, **GOIENAK** antolatzen duen **Udako Argazki Lehiaketak** aurreikuspenak gaintitu ditu. Guztira, **375 argazki** jaso ditugu. Horregatik guztiagatik, parte hartu duzuen debagoiendar guztiei **eskerrik asko!** Datorren urtean ere zuen argazkien zain egongo gara.

Urriaren 20ko GOIENA aldizkarian izango duzue irabazleak ezagutzeko aukera.

GOIENA SARIA



GOIENA IRAKURTZEN SANTA CRUZ DE CUERRAGOTEN | Argazkia: Jone Uribetxebarria (Aretxabaleta)
SARIA: Bi pertsonarendako bazkaria edo afaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

PUBLIKOAREN SARIA



GARAZI NEAK PEAN TENPLUAREN SARRERAN | Argazkia: Ibai Martin Fernandez de Luco (Arrasate)
SARIA: Zumaiaiko Zelai Talasoterapian bi pertsonarendako zirkuitu termala + Zelai menua

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
JATETXEA

ARRASATE BIDAIAK

INTERSPORT
ARRASATE LORAMENDI ZUMARRAGA

Amaia antzokia

Musika
Dantza
Antzerkia
Haur antzerkia
Zarzuela
Antzerki musikala

Urria-Abendua
2017



ANTZERKIA

Urriak 8
'Soka' / Tanttaka



MUSIKA

Urriak 21
Nathy Peluso + Nizuri Tazuneri / 



HAUR ANTZERKIA

Urriak 28
'Martinak bere istorioa aurkitu zueneko' / Mauma



MUSIKA

Azaroak 4
Ruper Ordorika



ANTZERKI MUSIKALA

Azaroak 12
'Primitals' / Yllana eta Primitals Bros



ZARZUELA

Azaroak 18, 19, 24 eta 25
'El Caserío' / Izaskun Murgia Elkarte Lirikoa



MUSIKA

Abenduaren 7tik 10era
XXV. 'Arrasate Hiria' Nazioarteko Akordeoi
Lehiaketa / Hauspoz



ANTZERKI MUSIKALA

Abenduak 16
Goazen 4.0



MUSIKA

Abenduak 23
'Artxipielagoa'

Laguntzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Kultura Saila ■

Sarrerak: www.arrasate.eus



ZABALIK

XABIER LETONA

Bartzelonako apunteak

Irribarrearen iraultza. Urriak 1, 05:00ak. Beheko kalean, 500 metrora ikusten da *Argia*-koek Bartzelonan erreferenduma jarraitzeko hautatu dugun eskoletako bat, Sants auzoan. "Utzi hemen eta kito". Taxilariak ezetz: "Ateraino eramango zaitut, baina markagailua geldituta. Por la causa". Niri ere irribarre egin dit goizalde goibelak.

Desobediencia baketsua. Hori da defentsa estrategia, denentzat. Zeharkako akordio zabalak blindatuta, antolaketa eta diziplina zorrotzak dira, Puigdemontetik hasi eta azken auzo taldera. Baina Graciako taberna batean emakume batek zera diosku urriaren 2ko bazkalorduan: "Horrela ari gara defendatzen, baina horrek ez du esan nahi bestela ez dakigunik".

Hamaika. Hamaika zartako, hamaika malko, hamaika erreazio, hamaika harridura... Hamaikaren itzulpen numerikoa 155 izan daiteke.

"HURRENGOAK ZUEK ZARETE", ESAN DIGUTE; BARREGURA EMATEN DIGU, EZ DAKITE NOLA GAUDEN

Bortizkeria. Ez da egia "venga de donde venga" gaitzesten dela. Bagenekien, baina berriz ikusi dugu. Urkullu lehendakariak ohikoan baino gogorrago jardun


zuen urriaren 1ean Espainiako polizien eta guardia zibilen eraso ikaragarri bortitzez, baina ez zen atera haren ahotik gaitzespenik. Katalunian EAJrekin minduta daude kolore askotako herritarrek.

Elkartasuna. Nola eskertzen duten euskal herritarren elkartasuna, eta milaka izan gara han. "Hurrengoak zuek zarete", esan digute sarri. Guri barregura ematen digu, ez dakite nola gauden. Kontua ez da inor gogogabetzea, baina errealtate printzipioa ere hor da.

Espainia inperiala. Piolin, "a por ellos", Rajoy, Espainiako Erregearen mezua, Generalitateko karguen atxiloketak, diru zigorrak... Bakarrik azken minutukoak aipatuta, 78ko *espaniar demokrazia gazteari* bere historiaren inperio usaina dario egunotan ere; Kataluniara, Asturiasera, Euskal Herrira, Marokora, Kubara, Filipinar irletara... "legearen inperioa" ezartzera bidalitako tropen usain bera.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



MARKO KONSTITUZIONALA

Unai
17 II

HANDIK ETA HEMENDIK

Nicholas Nixon

GOIZALDE LANDABASO

HTTPS://LABUR.EUS/92ARR
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Zuri-beltzezo 200 bat argazkik mundu bat osa lezaketek.

Horixe da Nicholas Nixonen (Detroit, AEB, 1947) argazki erakusketak eragin zidana, Madrilan. Argazkilaria bikaina da. 70eko hamarkadan Leica batekin hasi zen. Boston eta New York hirietako argazki desolatuak ateratzen hasi zen; ia gizakirik ez dutenak, hotzak, urrunak, eta aldi berean hipnotikoak eta samurrak. XX. mendean egin zuten *New Topographics* erakusketan agertu zituzten erretratuok. Begiratzen duen

pertsona da Nixon, eta begiratzeko modu berezia dauka. Berak begiratzen du eta zuk ikusten duzu. Orduak pasa zenitzake New York eta Bostongo paisaia bakarti eta malenkoniatsuei begira; orduak, *Brown sisters* sailari so. Beverly Brown du emazte, eta 70eko hamarkadan elkar ezagutu zutenetik agertu da bere argazkietan. 1975ean sail berezi bati ekin zion: emazteak eta bere hiru ahizpek osatzen duten *Brown sisters* sailari. Urtean argazki bat. 40 urteetan zehar. [...] Nicholas Nixon denboran luzatzen diren sailak gustatzen zaizkio. Horrela sortu zen *People with AIDS* saila, gogorrenetarikoa. 80ko

hamarkadan jo zuen gogorren hiesak, eta argazkietan 15 gaixoren garapena ikustearekin batera, gaixoaren senitartekoak ageri dira. [...]

Couples da 2.000.urtean hasi zuen saila. Bikoteak ageri dira unerik intimoenetan; gozamenean lagun da Nixon, eta lagun bihurtzen zaitu. Nixonen argazkiak ikusita, batzuetan, negar egiteko gogoa sortzen zaizu; besteetan, berriz, bizitzarekin berradiskidetzeko bideak zabaltzen dizkizu. [...] bereganatu egiten zaituen zerbait zehaztezina dute Nixonen argazkiek.

Post gehiago 8. orrialdean.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

www.goiena.eus

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria Eneko Azkarate.
Erredakzio batzordea Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria Agurtzane Gaintzarain.
Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna Marta Leturia.
Saletako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeebereberria.
Administrazioa Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.
HARPIDETZA Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Diffusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioako Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialak egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketan iraunkorren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

GUTUNAK

AEDren Zuzendaritza Batzordearen oharra**EÑAUT MUXIKA**

AED-KO LEHENDAKARIA
ARRASATE

Idatzi honen bitartez, AED elkartearen Zuzendaritza Batzordeak arrasatearrok partekatu gura ditu iraileko bigarren asteburuan egindako Erdi Aroko azokak sortu dizkion kezka eta gogoetak. Eta, horrekin batera, Arrasateko Udalarari eskaera zehatz bat egin.

Azokaren egitaraua iragarri zenean aurreikusi zitekeenez, gaztelera nagusi izan zen haren eskaintzan. Ikuskizunetan euskara umeei eskainitako kontu kontaketetan baino ez genuen entzun. Eta salmenta postuetan ere ez zuen tokirik izan, ez idatziz, ez ahoz, hiru-lau mahaitan izan ezik.

Jakina da aurrekontua irizpide behinena izaten dela udalek zerbitzu bat enpresa bati edo beste bati kontratatzeko. Dena dela, gure uste apalean, beste irizpide batzuek kostu ekonomikoak besteko pisua izan beharko lukete, eskaintzen den zerbitzua gure hizkuntzaren eta kulturaren kaltetan izango ez bada. Eta oraingoan halaxe gertatu da.

Izan ere, euskararen erabileraz harago, gure kaleak girotu zituen azoka eredu horrek zerikusi gutxi du Erdi Aroan Arrasate izan zenarekin. Eta, horrenbestez, aukera ederra galtzen dugu garai oparo hartatik

gaurdaino gorde dugun ondare aberatsa belaunaldi berriei ezagutaraziz zaintzen jarraitzeko. Besteak beste, arkitektura eta urbanismoa, egitura sozioekonomikoa, gertaera historikoak, ahozko tradizioaren arrastoak...

Gauzak horrela, AEDko Zuzendaritza Batzordeak eskaera irmoa egiten die udal arduradunei Arrasateko historia eta kultura ardatz gisa izango lukeen eredu baten aldeko apustua egin dezaten, hurrengo urteetan Erdi Aroko azoka berriro antolatzeko asmorik izango balute. Esate baterako, euskarari lehentasuna eman, egitarauan tokiko artisau eta artistei leku eginez, herriko adituei eta ondarea zabaltzeaz arduratzen diren elkartei ekarpenak eskatuz edota kultur taldeak azokan integratuz. Hala eginez gero, AED prest legoke bide horretan Udalarari laguntzeko.

Eskerrik asko!**MIREN PALACIOS**

OMENALDIA JASO GENUENON IZENEAN
OÑATI

Txantxiku Ikastolak omenaldi bat egin zigun Kilometroak jaian, hainbat urtetan boluntario moduan tailerrak emateagatik. Gure borondate onenarekin eman genituen. Orain, eskerrak eman gura dizkiogu Txantxiku Ikastolari, gurekin gogoratzearen eta hain ekitaldi polita eta hunkigarria antolatzearen. Eskerrik asko, benetan!

HANDIK ETA HEMENDIK

Ez da gauza bera**PILAR KALTZADA**

HTTPS://LABUR.EUS/PAVBR
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Egunotan garai bateko gure auzotik ibiltzea suertatu zait, eta harritu nau ikusteak, aldaketak aldaketa, portaleko kristalezko atean jarraitzen duela aspaldiko oharrak.

Ele bitan dator.

Euskaraz dio: "Debekatuta dago zaborra gaueko 22:00ak baino lehen ateratzea"; gaztelaniaz, berriz, "*Por favor, saquen la basura a partir de las 22:00 horas*".

Horrelakoen egiletza sekula aldarrikatzen ez denez gero, ezinezkoa da jakitea zein den oharra paratu zuen artista, euskaldun peto-petoa ote zen, itzultzaile afizionatua eta apur bat bihurria, edo biak batera.

Anonimotasun horrek ate asko ixten dizkit, ez baitakit nori galdetu, adibidez, nolatan iraun duen horrenbeste oharrak bertan zintzilik, edota zer izan den eraginkorrago auzotarren ohiturak taxutzeko orduan, mehatxua edo iradokizuna.

Hizkuntza baten zein bestean ulertu egiten da mezua, kartela paratu duena guk zer egitea nahi duen argi esaten baitu. Esateko manerak, ordea, ez dira berberak, eta nork bere burua hobeto ulertzeko bidea ematen duela uste dut. Eta erabateko ergelkeria ez dela pentsatuta, inkesta laborra egin dut inguruko artean, batere oinarri eta, beraz, ondorio zientifikorik ez

duena, nire jakin-mina asetzetik haragoko beste helbururik gabea.

Askok hitz goxoen alde egin dute. Gauzak mesedez eskatzean dizunak obligazio moduko baten aurrean jartzen zaitu, zer dioen entzutearena behintzat, eskari horrek berekin dakartzan ondorioak kontsideratu beharra, edo antzeko zerbitu. Oso erroturik daukagun harmoniaren legeari dei egiten dio joera horrek: muturreko egoeretan izan ezean, oreka baketsua ez apurtzekoa. Zentzuko irudi lezake fondoak, eta entzuteko moduko formak.

Nire inkestatuen artean, baina, talde handi batek debekuarren aurrean erreakzionatu zuen. Nahikoa da forma baldar horiekin etorri izanak, esan zidaten, zarama goizeko hamarretan kalera ateratzeko gogoia piztu zien, eta egingo ez bazuten ere, ez zen mezuarengatik izango. Aho biko ezpata da debekua, beraz, denok barruan (ezkutaturik edo agerian) gordetzen dugun nerabea azalarazten duelako, bidezkoa eta beren interesen kontra begitantzen zaien edozein txikieria Hirugarren Mundu Gerra pizteko aitzakiatzat hartzen dutenena, badakizue.

Hitzak altxor bat dira, eta baita arma bat ere. Bakerako eta gerrarako balia daitezke, bata zein bestea aukera posible bakartzat har ditzagun.

Psikologiek ikertu dute fenomeno honen eragina gizakion portaeran, eta beren ondorioen arabera, ikasgelako tontotzat hartzen genuen ikaskide hark, behin eta berriro geure isekak eta irainak jasaten zituenak, tontotzat hartuko zuen bere burua handik urte batzuetara. Eta kontrara, hitz neurtu eta egokien esne-mamitan hezitakoek askoz gehiago jorratuko zuten gerora beren buruarekiko estimua.

Ez dakit ikasgai hauek herriei, bere osotasunean, aplikatu ote dakizkiekeen. Pentsa dezagun baietz, egin daitekeela. Jo dezagun, esate baterako, geure herri honi buruz hitz egiteko orduan, txikia izatea baino gehiago, anitza izatea esango dugula. Demagun, adibidez, euskararen berri eskatzen zaigunean, munduko hizkuntzarik zaharrena dela azpimarratu ordez, mende mende egoera guztietara egokitzeko gai izan dela esango dugula. Aldea bada, nire ustez, batetik bestera.

Euskarazko zuri-beltzaren baliokidea ingelesez *black and white* da. Guk "galdutako objektuen bulegoa" deitzen duguna "aurkitutako gauzen bulegoa" omen da frantsesez. Berdin ulertzen dela esango didazu, irakurle, eta hala da. Baina galdutakoa gorde edo aurkitukoa eskaintzea ez da, nire ustez, gauza bera.

Post gehiago 7. orrialdean.

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



Arrasatear kuadrilla bat, dotore eta elegante, iaz Goienak jarritako *photocall*-ean. IMANOL SORIANO

Dotore, alai eta jator, Maritxu badator

Iaz lau hamarkada bete ostean, hemen da 41. aldia. Aurreko guztiak antolatzeko klabea izan den Arrano Elkartea Nobenaixuan omendu eta gero, Katalunia, Altsasu eta Maria Murgoitio gogora ekarrita dator txikiteroen patroia handiaren festa

Xabi Gorostidi ARRASATE

Iaz bere lekua utzi eta Debagoieneko hainbat txoko bisitatu zituen Maritxuk. Aurten ez du halakorik egin, baina egun handia baino astebete lehenago, omenaldi berezia egin zion Maritxu Komisiñuek, txikiteroen patroia eguna antolatzeko estalpe izan den Arrano Elkar-teari. "Herrigintzarako leku estrategikoa izan da eta aurten oso garbi geneukan enbutua Arrano Elkar-teak jasoko zuela" azaldu du Iraitz Agirrek Komisiñoko kideak.

Eskapularioak, berriz, urtean zehar izandako gertaerei erreferentzia egiteko joera du, eta aurten, Altsasuko gazteen atxilotetan jarri du fokua: *Festa gaueko afera, testuinguruz atera eta puzturik sobera, Espainiak berriz azaldu mendekuzko izatera, ondorioa hauxe da, Guardia Zibila etxera eta altsasuarrek kalera*. Altsasuko gertakariez gain, Maria Murgoitioaren "duintasanari" eta Trumpi, Venezue-

lari eta Kataluniako erreferenduari ere egin dizkiete keinuak Komisiñokoek.

Bi manifestazio

Iaz, lehen aldiz, manifestazioa egin zuen Arrasateko Emakume Gazte Asanbladak, *Gaba ta kaleak guriek die* lelopean. Aurten ere egingo dute, 00:00etan, txonetatik abiatuta.

Baina baliteke bakarra ez izatea. Herriko tabernariak kañaren eta zuritoaren prezioa berriki igo izanak haserrea piztu du garagardozaileen artean. Hala, manifestazio baterako deia zabaldu da Whatsapez, DATetik Taupara karro-poteoan joateko. 13:00etan da hitzordua, eta poteo duina aldarrikatuko dute "txinoko garagardo latak" edanez.

Egitaraua

- **08:00** Etxafuegoak.
- **17:30** Seber Altuben Irrien Lagunak-en *Zatoz jolastera* ikuskizuna.
- **18:30** Konpartsa txikiak.
- **20:00** Oria txaranga beteranoa Herriko Plazan.
- **20:30** Maritxuri lore eskaintza Herriko Plazan.
- **21:00** Miraria.
- **00:00** Dantzaldia Herriko Plazan, Luhartz taldearekin.

Ordutegiak

- **BAZ** 08:30-19:00.
- **Kiroldegia** 07:00-19:00.
- **Udaletxea** 08:00-15:00.
- **Udaltzaingoa** 24 orduko zerbitzua.
- **Droga testing-a** 22:00-01:00 Monterronen.
- **Garraioak** Lurraldeusek jaiegunetako zerbitzu berezia jarriko du.

Goiena

- **Photocall-a** 13:00-15:00 eta 17:00-19:00, Herriko Plazako arkupean. Animatu kuadrilla argazki elegantea ateratzera.
- **HD** Astelehenero *Hemen Debagoiena*-n erreportajea (18:00, 20:00 eta 22:00).
- **Saio berezia** Eguaztenean, Goiena telebistan (21:00, 23:00).



NIRE USTEZ

ANE ZUAZUBISKAR

Zuria

Bada jende zuria. Tatxarik gabea. Zure gela berean tokatuta ere bertan dagoela igarriko ez duzuna. Isila, baina irribarre gozokoa. Jende neurtua, inori traba egin baino nahiago duena burua gora eta behera mugitu. Trabarik egiten ez duena. Isilik egotea gehiegizkoa denean esaldi anbiguo laburrak erabiltzen dituen; eztabaidaren gaia edozein dela ere. Alde batera edo bestera lerratu nahi ez, eta tarteko marra estuan hanka puntetan aritzen dena.

Eta bada jende grisa. Orbanik gabea, neurrikoa, baina isilik egoten ez dakiena. Komenentziaz alde batera lerratzen dena, baina nahiago duena erdiko marran oinez dabilela esan. Harria bota eta eskua patrikan gorde. Inoren aurka egitea nahiago duena, duen botere apurra galtzea baino. Ditosozko *ekidistantzia*.

Urrundik nabil Kataluniara begira, herritarrek paper zuriak nola margotzen dituzten begira. Inbidiaz. Urrundik ari naiz Euskal Herriari adi, espero ez nituen lagunak lapikoei joka ikusteaz harro. Gustura aipatuko nuke euskal erdiko lehendakaria zenbateraino den grisa. Eta zein neurrikoa nire haserrea. Baina zuri izan nahia zer den. Ahoa itxiko dut, irribarre gozoz.

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

arrasate

beinke

"Ezin dezakegu jendea aparkalekurik gabe utzi"

Maria Ubarretxena Goiena telebistako 'Harira' saioan izan zen, Arrasateko gai estrategikoei buruz hitz egiten. Mugikortasun plana, aparkalekuak, irisgarritasuna, auzoak eta Kulturolaren eta jolas parkeen lanak eta datak izan zituen hizpide

Xabi Gorostidi ARRASATE

Kalean Arrasateko dituen arazoei buruz galdetuta, herritar gehienek aipatu zuten aparkalekuen arazoa, eta alkateak honako erantzun hauek eman zituen gaiari buruz.

"Egun Arrasaten TAO sistema duen gune bakarria Uribarri-Loramendi zona da. Baina horrek auto asko desplazatu ditu Munnarrera eta San Andresera. Ezin gara partxeak ipintzen ibili, eta herria bere osotasunean hartuta aplikatu beharko da TAO sistema: zona ezberdinak, kolore ezberdinak, tarifak...".

Muzibar-San Frantzisko tarteari buruz galdetuta, adostasun politikorik ez dagoela aipatu zuen. "Parte hartze prozesuan argi ikusi da jendea espaloia zabaltzearen, bidegorria jartzearen edo Zarugalde oinezkoentzat bihurtzearen aldekoa dela. Baina horretarako aparkalekuak kendu beharko dira, eta gure ustez, ezin dugu jendea aparkalekurik gabe utzi. Horiak kentzeko, aparkaleku alternatiboak behar dira. Kondekua parkean lur azpiko aparkalekua planteatu genuen egoiliarrentzako, baina ez da adostasun politikorik

lortu. Arrasate pasealekuan gertatu zena saihesteko, ez dugu ezer egingo adostasun politikorik ez badago".

Aurretik dauden eraikuntza lanak Agintaldi bukaerara bitartean herrian egingo diren lanei buruz eta hauek hasteko datei buruz ere hitz egin zuen.

Kulturola proiektuari dagokionez, Apendizien eraikinaren lanak egiteko hamar enpresa aurkeztu direla esan zuen. "Esleipena urtea amaitu aurretik egitea da gure asmoa, 2018an makinak lanean egoteko. Birgaitze lanek urte eta erdi inguru iraungo dute".

Proiektuaren garrantzia eta kostu ekonomikoa ere aipatu zituen. "Arrasate Musikal Monterronen kokatzea neurri probisonala izan zen, baina egoera horretan doaz zortzi edo bederatzi urte. Kontuan izan behar da eraikinak ez dituela segurtasun neurriak betetzen, eta, bertan ezbeharren gertatuz gero, ardura gurea izango litzateke. Egoitza berriak 7 milioi inguruko kostua izango du, baina bagabiltza horretarako dirua aurrezten. Poltsa polita dauka-

gu, eta, zentzu horretan, oso lasai gaude".

Jolas parkeei dagokionez, Gorostizan, Zalbibarren eta Munnarren egindako lanak aipatu zituen, baita egiteko daudenak ere; Makatzenako parke estalia, Erguingo Itxaropena plazakoa, Musakolako Nao Santiago eta San Andresko Kurtze Txiki.

Eneko Barberena liberatuta eta ordenantza fiskala onartuta

Osoko bilkuran, Katalunian domekan izandako gertakarien inguruko adierazpena irakurri zuten

X.G. ARRASATE

Kataluniako prozesuaren ondorioen gaineko adierazpena irakurri zuten alkateak, eta jarraian, bide garbiketako zerbitzuan izandako enpresa aldaketa baten berri eman zuten.

2018rako ordenantza fiskala ere onartuta geratu zen. Zerga eta tasa gehienek KPIak markatzen duen %1,5eko igoera izango dute. Baina, besteak beste, zaborren tasak eta gizarte zerbitzuen kostuek ez dute igoerarik izango. EAJk eta PSE-EEK alde botatu zuten, EH Bilduk

abstentziora jo zuten eta Baleikek eta Irabazik aurka botatu zuten.

Barberena, liberatuta

Eudelen udal legearen arabera, 10.000 biztanletik gorako herrietan, oposizioko alderdi botatuenak zinegotzi baten liberazioa eska dezake. EH Bilduk Eneko Barberera liberatzeko eskaera botatu zuten. EAJ abstenitu egin zen, 2007an euren zinegotzi bat liberatzearen aurka botatu zuelako EAE-ANVk. Gainontzeko alderdiek alde botatu zuten, 29.938 euroko ordainsaria izango du.



Maria Ubarretxena, Goiena telebistako platoon. GOIENA

SUWVOW



SUV KONPAKTU BERRIA
CITROËN C3 AIRCROSS
 ESPAZIO ZABALAGOA, MODULARITATE HANDIAGOA



CITROËNek nahiago du TOTAL

KONTSUMO MISTOA (l/100 km) / CO2 EMISIOA (g/km):
 CITROËN C3 AIRCROSS: 4,0-5,6 / 104-126



TALLERES CHAPIME

San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22

Erdi Aroko nekropolia eta Brontze Aroko zeramikak

Arrasate eta Aranzadi zientzia elkarten gidaritzapean indusketa-lan garrantzitsua egin da San Juan Batailatzaileen parrokia atarian. Arrasateko lehen biztanleen aztarnak topatzea zuten helburu indusketek, eta emaitza mamitsuak lortu dituzte

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasateko lehen biztaleei buruz informazioa lortzeko asmoz, Arrasate Zientzia Elkarteak ki-deek baimena eskatu zioten Udalarari San Juan Batailatzailea parrokiako atarian bilaketa arkeologikoa egiteko.

Lan horiek egiteko, bidelagun izan dituzte Aranzadi Zientzia Elkartea, baita Arrasateko Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundia ere. Hainbat astez aztarnak bilatzen aritu dira hamahiru metro karratuko espazioan, eta hiru aurkikuntza nabarmen egin dituzte; Erdi Aroko nekropolia, Brontze Aroko zeramika eta burdingintzarako suteği bat.



Bilaketa arkeologikoan aurkitutako garezur bat. IMANOL BELOKI

Erdi Aroko nekropolia

Bertan aurkitu diren aztarna garrantzitsuenen artean dago Erdi Aroko lehen hobiratzeekin lotutakoa. Egun parrokia dagoen tokian eliza txikiagoa bat zegoela azaldu zuen Aranzadi Elkarteko Alfredo Morazak. "Eliza txiki eta zaharrago horren itxura ez dugu ezagutzen, eta ez dakigu zerez egina zegoen. Baina litekeena da horren aztarnak egungo parrokiaren azpian egotea". Eliza txikiago horren inguruan, hobiratzeak egiteko kanposantu modukoa bat zegoela azaldu zuen.

"Lurrean, buztinean egindako hobiak ziren, eta bertan gorpuak lurperatzen zituzten, bata bestearen gainean jarritz. Hiruzpatalu gorpu bata bestearen gainean lurperatu ostean, beste hobi bat egiten zuten".

Aurkitutako hezurrei analisi antropologikoak egiten ari zaizkie momentu honetan, datazioak zehatzago egite aldera.

Duela 3.500 urteko aztarnak

Nekropoliarekin batera, Brontze garaiko zeramika zatiak ere aurkitu dituzte. Pitxer zatiak

izan daitezkeela azaldu zuen Morazak, egosteko edo janaria gordetzeko. "Ez genuen Brontze garaiko aztarnarik aurkitzea espero, baina orain dela 3.500-3.900 urte Arrasateko hiribilduan jendea bizi zela frogatzeko balio dute".

Gotzaina ez dute aurkitu

Bilaketan, gotzain baten arrastoak aurkitzeko esperantza zegoen; hala ere, Morazak azaldu duenez, nekropolia eta Brontze Aroko zeramikak aurkitzeak pisu handiagoa du.

OHARRAK

56koen kintada

Azaroaren 4an, Eltziegora joango dira. 60 euroko diru-sarrerara egin beharko da horretarako, 3035 0202 75 2021046272 kontu zenbakian.

42ko emakumeak

Aurten ere ospakizuna egingo dute urte hartan jaiotako emakumeek. Horretarako, Mari Karmenengana jo beharko da.

Urriaren 18an Nafarroara irteera Abaroaren eskutik

Arrasateko erretiratuek urriaren 18an, eguaztena, hainbat ekin-tzaz gozatzeko aukera izango dute. Hotel Irachen hasi eta amaituko dute eguna, eta, tartean, Los Tesoros de Bartolo enpresa eta Lizarra ezagutzeko aukera izango dute.

Izen emateak urriaren 9an egin beharko dira, 10:30ean, eta txartelek 34 euroko prezioa dute.


Mila esker zapatuan gurekin bat egin zenuten guztioi!

Goiena komunitatea

Red Dragons / ARRASATE

Eskerrik asko hau posible egin zenuten guztioi: babesleak, klubeko kideak, lagunak eta etorri zineten guztiak.

50 kilo batu genituen, eta zuen laguntzarik gabe ezingo genukeen horrelako ekitaldi bat egin. Mila esker, berriz ere, eta datorren urtean ikusiko dugu elkar.



TAUPA DAT OSORIK
JAI ZALE EKAITZ BASATI
ILUNTZ

Eraso sexistarik ez
Erantzunik gabe!

"Lanean jarraituko dugu jende gehiago lortzeko"

ANE AGIRRE ARRASATE RUGBY TALDEKO PRESIDENTEA

Bi urte daramatza Agirrek presidente karguan eta beste bi geratzen zaizkio; pasa den denboraldiak emandakoaren eta datorrenak emango duenaren gainean hitz egin du

Eneko Azurmendi ARRASATE

Eguztenean ohiko batzar nagusia egin zuen Arrasate Rugby Taldeak. Agirrek azpimarratu du elkarte "osasuntsu" dagoela eta bera ere gustura dago presidente moduan, nahiz eta aitortu duen "esfortzu eta denbora asko" eskatzen duen lana dela, guztiz borondatezkoa.

Nola baloratzen duzu 2016-2017 denboraldia?

Kirol arloan dagokionez, ezin hobea izan zen pasa den denboraldia. Seniorrak liga irabazi zuten eta Euskal Ligako lehen mailara igo ziren. Beraz, oso pozik gaude horrekin. Arlo ekonomikoari dagokionez, berriz, ez zen hain ondo joan. Izan ere, gure diru iturri nagusia Gargardo Azoka izaten da eta eguraldi txarraren ondorioz, ez genuen hainbeste diru lortu, eta hori nabaritu egin dugu.

Ekonomikoki estu xamar, beraz?

Ez. Ez dut uste azpimarratzeko zerbait denik. Osasuntsu dagoen



Agirre, Mojategiko instalazioetan. E.A.

"KIROL ARLOAN, EZIN HOBEA IZAN ZEN PASA DEN DENBORALDIA, ARLO EKONOMIKOAN EZ HAINBESTE"

elkarte bat da gurea, ez dugu inongo zorrik eta finkatutako helburuak bete ditzakegu.

Bazkide kopuruari dagokionez, zer moduz dago elkarteak?

Zuzendaritzan sei pertsona gaudete eta 79 bazkide gara. Bazkide oso finkoak ditugu, urtetik urtera kopuru hori mantendu egiten dugu eta nik uste ez dela batere kopuru txarra.

Datorren denboraldiari begira, ze helburu finkatu dituzue?

Helburu orokorrak urtero izaten dira berberak, ez dira aldatzen: Harrobia landu, jokalaririk trebatu, gure baloreak transmititu, jokalariei epaile edota entrenatzaile izateko ikastaroak eskaini eta ahal bada jokalaririk berriak lortu. Nagusiki, horiek dira finkatutako helburuak.

Eta kirol arloan? Senior mailako taldeak Lehen mailan jokatuko du.

Oso denboraldi gogorra eta luzea daukate aurretik, eta urtea bukatzea nahikoa izango litzateke. Helburua, berez, mailari eustea

izango da, baina badakigu oso zaila izango dela hori. Beraz, denboraldia ahalik eta txukunena bukatzea eta ahalik eta lesio gutxien sufritzea izango da lehen tasuna. Gainera, aurkari asko ez ditugu ezagutzen. Beraz, joango gara ikusten, pixkanaka.

Gainontzean, harrobiari garrantzia ematen jarraituko duzue?

Beheko kategorietan, daukaguna mantentzea izango da helburua. 18 urtez azpiko taldea badugu; 16 eta 14 urtez azpikoek Ordizian jokatuko dute, ez dugulako taldea osatzerik lortu, eta 12 eta 10 urtez azpiko taldea ere badaukagu, kirol eskolan. Beraz, oso pozik gaude daukagunarekin. Hala ere, lanean jarraituko dugu jende gehiago batu dadin eta 16 eta 14 urtez azpiko taldea osatu ahal izan dezagun.

Etzi, etxean

Ekin dio denboraldiari Kanpanzar ARTk. 15-27 irabazi zuten lehena Baztanen, BRT Menditarrak taldearen aurka. Domekan, Atletico San Sebastianen aurka jokatuko dute, 13:00etan Mojategin. "Etxeko partiduek garrantzia handia izango dute aurten", dio Julen Barrutia jokalaririk.

Mondratek Elorrion jokatuko du etxeko lehena, zigorreratik

Federazioak zigortu egin zuen Mondrate, iazko finalean "jarraera txarra" edukitzeagatik, eta horren ondorioz, etxeko lehen partidua Elorrion jokatuko du. Partidua domekan izango da, 11:00etan Scalibur taldearen aurka. "Ez ditugu ezagutzen, baina esan digute maila oneko taldea daukatela. Hala ere, gu irabaztera aterako gara, ea garapena lortzerik daukagun", adierazi du Jonathan Rasok Mondrate taldeko ordezkariak.

Lehenengo partiduan 9-4 galdu zuten arrasatearrek Labastidan, bajaz jositako talde batekin. "Lehenengo taldeko zazpi baja ditugu eta beheko jokalariekin ari gara jokatzen", dio Rasok.

Etzi, domeka, egingo dute Mondran Bike MTB martxa

09:00etan hasiko dute martxa Seber Altuben eta izen-ematea 08:00etan hasiko da eta 15 euro balioko ditu. 25 km edukiko ditu ibilbide motzak, 1000 metroko desnibelarekin, eta luzeak, berriz, 35 km, 1600 metroko desnibelarekin. Antolakuntzatik gomendatu dute GPS-a eramatea eta "lehiatzeri baino, ibilbideaz gozatzeri" joateko deia egin dute.

EGIN TOPA GEUREAN!

ITZALA
MONTE
OKORETEGI
RUMBA
TXOKO II

MARITXU KAJOI

2017

"Lilaketako sariak bultzada emango digu"

MAIALEN OLEAGA PERLATA TALDEKO KIDEA

Hatortxu Rock jaialdiak antolatu duen lehen Lilaketa lehiaketan garaile izan da Perlata taldea. Saria lortuta, maketa bat grabatuko du Arrasateko taldeak

Josu Bilbao ARRASATE

Perlata talde arrasatearrak irabazi du Hatortxu Rockek antolatutako lehen Lilaketa. "Taula gainean emakumeen presentzia bermatzen duten taldeen maketa lehiaketa" izan da eta finalean izan ziren Vinagre de Moderna eta Hatxe taldeak ere.

Nola joan zen lehiaketa pasa den egubakoitzean?

Ondo. Aspaldi eman genuen izena lehiaketan eta finalerako sailkatu ginen. Auditorium batean jo genuen, eta kontzertu bat emateko arraro samarra egin zitzaigun tokia. Hala ere, asko gozatu genuen, eta saria ere irabazi genuen. Oso pozik.



Perlata taldea, Lilaketan. HATORTXU ROCK

Lilaketaren saria maketa grabatzea da ezta?

Ikusita emakume gutxi daudela, orokorrean, agertokietan, lehenengo Lilaketa antolatu dute, ea emakume gehiago animatzen diren. Guri, horrelako gauzak antolatzeko beharrik ez egotea gustatuko litzaiguke, baina, egoerak bultzatuta, oraindik, beharrezkoak dira emakumeak ere animatzeko. Bestalde, saria maketa bat grabatzea eta 500 euro dira. Orain, ea ze abesti grabatzen dugun eta nola pentsatzen hasi beharko dugu. Azkenean, duela gutxi hasi gara jotzen eta kontzertuak ematen ere hasi gara; horrenbestez, honek bultzadatxo bat emango digu.

Zuen estiloari jarraituz eskaini zenuen kontzertua Lilaketan. Finaleko hiru taldeak, gainera, estilo ezberdinetakoak izan zintzen...

Bai; guk, hasieratik, modu batean nahi izan dugu agertokira irteten, eta orain arte hori izan da gure *look*-a. Egia da lehiaketa oso estilo ezberdinak ikusi ditugula, eta musika mugimendua ere badagoela adierazi nahi du. Aberatsa da hori.

Plazako dantza tradizional ikastaroak abiatu dituzte

Portaloik elkartek antolatuta, aste honetan abiatu dituzte plazako dantza tradizional ikastaroak Arrasaten. Guztira, hiru talde osatu dira: lehenengoa 16:30ean, bigarrena 19:30ean –dantza-txokoak mailaren arabera banatuta– eta hirugarrena 18:00etan –hasiberrien taldea–. Saioak astelehenero izango dira, eta Patxi Montero izango da irakaslea.

Taldeak osatuta daude, baina beste inork animatu nahi badu, badago lekua. Interesa dutenek AEDra edo Gazte Bulegora jo dezakete izena ematera. "Metodologia lasaia eta pausatua da, musika sentitzetik abiatuta, bakoitzari bere mugimendua espresatzeko askatasuna utziz", azaldu du Portaloik elkartek.

Gainera, Portaloik Dantzagunea ere antolatuko du aurten. Hileko azken ostiraletan, dantzan elkartzeko hitzordua izango da. Praktikatzea eta, batez ere, elkarrekin dantzan gozatzea izango da helburua.

CLINICA DENTAL BERGARA

20 urte baina gehiagoko
esperientzia
inplantologian

**Izugarri kostatzen zaizu
dentistarengana joatea?
Gurekin ez!**

- Lehen bisita doan eskaintzen dizugu.
- Beste iritzi bat konpromiso barik.
- Gertuko tratu profesionala.
- 60 hilabeterainoko finantzazioa.
- Hortz aseguruetan estaldura

RPS: 207/12





Unai Elkoro alkatea, Nerea Sanchez eta Manex Lizarra kale hezitzaileak, eta Karmele Uribarri zinegotzia. MIRARI ALTUBE

Gazteengana iristeko kale hezitzaileen lana

Irailaz geroztik dabilta Udalarendako lanean Nerea Sanchez ondarrutarra eta Manex Agirre lasartarra. Gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden adingabeengana iristea da haien egitekoa eta lehen pausoak dagoeneko eman dituzte

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Orain dela urtebete inguru, herriko gazteen gaineko diagnostikoa egin zuen Prebentzio Sailak, eta orduan, kale hezitzaileen beharra geratu zen agerian, Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Karmele Uribarriren esanetan: "Gizarte bazterkeria arriskuan zeuden gazteekin lan egiteko, hain zuzen ere". Horri heldu diote orain, eta irailaz geroztik lanean dabilta Nerea Sanchez eta Manex Lizarra.

Gazteen bidelagun

Kalean egingo dute lan hezitzaile horiek adingabeekin; 12 eta 18 urte artekoekin, batez ere. Esku-hartze soziohezitzailea garatzea da asmoa, baina, betiere, gaztetxoak euren testuingurutik atera gabe; hau da, errespetatuta euren eremuak, harreman sareak... Hortik abiatuta harreman hezitzailea sortzea izango dute helburu: "Aisialdi garaian, denbora librean, egongo gara eurekin eta harreman

osasuntsuak eta konfiantzazkoa sortzea izango da gure egitekoa", adierazi du Lizarrak, eta Sanchezek gaineratu: "Bidelagun izango gaituzte kalean eta oinarria izango da laguntza ematea; hortaz, kale hezitzaileak izango gara, lagunak ere bai, konfiantzazko pertsonak, eredu garen helduak... eta eskuragarri izango gaituzte behar dutenerako".

Era berean, herrian dituzten baliabideak erakutsiko dizkiete gazteei, eta horien erabilera sustatuko dute.

Hiru alorretan egingo dituztela esku-hartzeak jakinarazi dute hezitzaileek: banaka; taldean, kuadrilla naturalean zein artifizialki sortutakoan; eta komunitatean. "Eta hau zelan sustatu? Ekintza alternatiboak sor-

tuko ditugu, gazteen interesetik abiatuta. Euren eskaerei eta beharrei erantzuten saiatuko gara", azaldu du Lizarrak. Eta horretarako, herriko eragileekin elkarlanean jardungo dute.

Ikastetxeetatik kalera

Lanean hasi zirenetik hilabete pasatu berri da, eta hasierako fasean daudela oraindik adierazi du Sanchezek: "Biok gara kanpotarrak; hortaz, Aretxabaleta ezagutzen jardun dugu: zerbitzuak, baliabideak, Udalaren funtzionamendua...". Eta Lizarrak gaineratu du: "Gazteak mugitzen diren eremuak ezagutzen ere izan gara, horien ordutegia...". Horrez gain, ikastetxetara jo dute, bertako orientatzaileekin elkartu dira eta Udaleko teknikariak ere ezagutu dituzte, "sare bat osatzen joateko".

Bigarren pausoa emateko geratu daude orain; alegia, gazteekin harremanak sendotzea: "Konfiantza irabazteko, denbora behar da. Hasieran, oztopoak jarriko dituzte, seguru, baina behin eta berriz joango gara, irekitzen hasi arte. Zenbat denbora behar den horretarako? Ez dakigu. Prozesu bat dela kontuan hartu behar da eta, hortaz, mimo eta pazientzia handiarekin jokatu behar da".

Lehenago ez bada geroago, ekintza alternatiba bat sortzeko asmoa dute; hori izango da, hain zuzen, gazteengana gerturatzeko aitzakia: "Haien interesak ezagutzera joango gara: zer duten gustuko, zer igartzen duten faltan herrian, zer egin gurako luketen... galdetuko diegu".

Lizarrak badu eskarmentua aurretik, eta uste du ezinbesteko programa dela herri batean. Bi eta lau urte artean garatuko dute Aretxabaletan.



Plazan jarritako oihala. M.A.

Herritarren jakin-mina piztu gura du 'e!' kanpainak

Azken egunotan, e! dioen oihala dago jarrita Herriko Plazan, eta beste hainbat tokitan ere agertu da letra hori. Zer esan gura ote du?

Argi dago kanpaina bat dagoela horren atzean, eta herritarren jakin-mina sortu gura izan dutela. Hurrengo egunetan emango dute horren berri antolatzaileek. Bien bitartean, argi segi dezatela herritarrek.

OHARRAK

Mendi irteera

Guraso Foroak antolatuta, Murura joango dira domekan (Herriko Plaza, 10:00), mendi buelta egin eta indusketak ikusteko.

Irteera Larrinora

Oro eta Larrino auzoetara irteera egingo dute, Aitor Antxia Leturiak gidatuta, urriaren 12an (10:30). Izena aurrez eman behar da Arkupen.

LANA • FISKALITATEA • KONTABILITATEA • JURIDIKOA-ABOKATUAK

zenbaki

aholkulariak-abokatuak

30 urteko eskarmentua fiskal, kontabilitate, lan eta merkataritza arloetan, enpresen, autonomoen, partikularren eta enpresa bat sortu nahi dutenen zerbitzura

Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa) • Tel.: 943 71 21 12 www.zenbaki.eus

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

Umorea ardatz duten antzezlanak asteburuan

Gaur, egubakoitza, bi bikoteren arteko gorabeherak eskainiko dituzte Txalo Produzekioek 'Etxeko saltsak' komedian, eta bihar, Javier Liñerak nazien Alemaniako gayen bizipenen berri emango du 'Barro rojo'-n; domekan osterera, Zirika Zirkus dator, umeendako

Mirari Altube ARETXABAETA

Ikasleei eskainitako emanaldiekin jarri du abian Kultura Sailak Antzerki Hilabetea eta asteburuan goia joko du.

Txalo Produzekioak *Etxeko saltsak* lanarekin datoz gaur, egubakoitza, Arkupera (22:00). Eskarmentu handiko aktoreak elkartuko dira –Ane Gabarain, Aitziber Garmendia, Miren Gojenola, Mikel Laskurain eta Aitor Fernandino– eta Alan Ayckbourn antzerkigile eta zuzendari ingeles ezagunaren komedia korapilatsua taularatuko dute.

Bihar, osterera, *Barro rojo* eskainiko du Javier Liñerak (Arkupe, 22:00). Nazien sasoiko



Javier Liñera *Barro rojo*-n. JAVIER LIÑERA

Alemanian gayek bizi izandako errepresioaren berri emango du Liñerak, berak sortutako eta umore eta drama ukituak dituen antzezlanean.

Umeek Zirika Zirkus izango dute domekan (17:00). *Lara* eta *Larika* izeba-ilobak ipuinak kontatzera etorriko dira.

Herritarrei lekua

Herriko aktoreak ere hartu dituzte aintzat. Hala, Txaro Gallekok performancea egin du kalean hilabete horren berri emateko, eta Iurgi Etxebarriak antzerki tailerra egingo du bihar (Arkupe, 09:30) 16 urtetik gorakoekin; izena aurrez eman behar da.



TXARO GALLEGO
AKTOREA

"Antzerkiak beste leiho batzuk irekitzen ditu"


"Eguaztenean egindako performancearen bitartez antzokira gonbidatu gura izan ditut herritarrak. Antzerkia ikusteko ohiturarik ez dago gurean, ulertuko ez den beldurra dagoela uste dut, eta ez da horrela. Proba dezatela esango nieke, beste leiho batzuk irekitzen ditu, beste kolore batzuei begiak zabaldu... Mezuak askoz samurrago iristen dira artearen bitartez, kasu honetan, performance bitartez; hortaz, pozik nago horretarako aukera eman izanagatik. Eta pozgarria da Udalak antzerkiarekiko egin duen apustua".



IURGI ETXEBARRIA
AKTOREA

"Bat-batean egingo dugu jolas antzerki tailerrean"

"Kementsu sentitzen diren helduendako ikastaroa emango dut. Animatuko nituzke, batetik, artearen inguruan lan egiten dutenak: musikariak, idazleak... Bat-batean egingo dugu jolas artearekin; euren jakintza partekatuko dute, eta, era berean, jaso ere bai. Hortaz, gozatu egingo dute. Eta bestetik, zaletasunik ez dutenei edo ezerk betetzen ez dutenei dei egingo nieke; asko jasoko dute horiek. Irudimenarekin egingo dugu lan eta neuk ere lagunduko diet. Udalaren ekimen hau pauso bat izan da, eta aurrera begira ea bide bat zabaltzen duen".





EH Bilduko Ion Albizu zinegotzia herritarrei proposamenaren berri ematen, eguaztenean. MIRARI ALTUBE

Bidegorriari irtenbidea topatzeko proposamena

EH Bilduk proposatu du Kurtzebarri eskolaren eta Iturigorri pilotalekuaren atzeko partetik pasatzea eta aurrekontua 185.000 eurotan zehaztu du. Astea bukatu bitartean herritarrei erakutsiko diete proiektuaren zirriborroa, ekarpenak egin ditzaten

Mirari Altube ARETXABALETA

Geltoki plazatik pasatzen den bidegorri zatia –Azbe lantegia zenaren paretik biribilguneraino doan tartea– orain dela hiru urte inguru berritu zuten. Eta bidegorriaren eraberritzearekin aurrera jarraitzea gura du EH Bilduk. Horregatik, proposamen bat garatu dute, eta herritarrei erakusten dabiltza ekarpenak jasotzeko.

Hainbat "onura"

"Bailaran, gaur egun, bidegorriaren zatirik okerrenetakoa Aretxabaletan dugu. Kurtzebarri eskolako patio erditik pasatzen da, horrek dakarren traba eta arriskuekin", adierazi dute EH Bilduko kideek, Ion Albizu eta Irati Pagoaga zinegotzietan. Santa Kurtz kalerako orain dela hiru urte proposatutakoari hutsune batzuk antzeman dizkiote: "Batetik, autoak, bizikletak eta oinezkoak bateratzeko zati oso estua da Kurtzebarri eskola aurreko hori; bestetik, Santa Kurtz

kaleak berak konponketarako lehentasuna izan beharko luke; eta gainera, proiektu horren aurrekontua oso handia da, 650.000 eurokoa". Hori horrela, "behin betiko beste irtenbide bat" topatu gura izan diote.

"Gure hausnarketetan oinarrituta eta adituen laguntzarekin garatu dugu ideia", diote. Proposamen horren arabera, Arrasatetik datorren bidegorria eskolaren atzeko partetik pasatuko litzateke, eskolaren eta saihebidetaren artean, hain zuzen ere, eta, horretarako, saihebidetaren alboko menditxoak kendu egin beharko lukete. Hiru metro inguru igoko litzateke poliki-poliki bidea, eta gero jaitsi; bolatokiaren eta pilotalekuaren

"MERKEAGOA DA, ESKOLAK IRABAZI EGINGO LUKE ETA KALEA LIBREAGO EGONGO LITZATEKE"

atzetik jarraituko luke gero. Guztira, 240 metro izango litzateke tarte horrek, eta 3 metroko zabalera. Eta aurrekontua zehaztu dute 185.000 eurotan.

Horren onurak nabarmendu gura izan dituzte Albizuk eta Pagoagak: "Merkeagoa da; izan ere, aurreko proiekturako zehaztutako aurrekontuarekin oso zaila da bost urte baino lehen ezer egitea. Eskolak irabazi egingo luke espazioan, patioan lekua zabaldu eta argi gehiago sartuko litzatekeelako. Eta Santa Kurtz kalea libreago egongo litzateke".

Herritarren ekarpenak jasotzen

Proposamen horren berri panelen bitartez ematen dabiltza herritarrei, ekarpenak egin ditzaten haiek. Hainbat gunetan kokatu dituzten panelok ikusmina eragin dute, gainera. Gaur jasoko dituzte azken ekarpenak: "Eta ondoren, berriro aurkeztuko diogu proposamena, zehatzagoa eta garatuagoa, Udal Gobernuari".



Ia 600 lagun elkartu ziren egubakoitzeko kantu afarian.



Ekoizlea produktua eskaintzen.



Talogileak lanean.



Aretxabaleta Abesbatza kantuan. ARGAZKIAK: A. AGIRIANO, J. BILBAO, I. BENGOA, X. GOROSTIDI

Parte hartze handia eta giro bikaina sanmigeletan

Kantu afariaren arrakasta nabarmendu dute Kultura Saileko kideek, eta azokaren bueltako giroa

M.A. ARETXABALETA

"Jaien eta egitarauaren gaineko balorazio ona egin dugu", jakinarazi du Kultura Saileko zinegotzi Joxe Migel Uribarrenek, eta gaineratu: "Baina zibismoari dagokionez, batzuek urrutitatu daude elkarbizitza arauetatik. Hiru farol apurtu eta eserleku bat errekaratuta zuten".

Kantu afaria nabarmendu du, 600 aretxabaletar izan zirelako plazako mahaian bueltan kantuan. "Eta Beinke-Loramendi dantza erakustaldian ere jende mordo bat zen, bai dantzan,

bai ikusten", gaineratu du. Azokari dagokionez, poliki-poliki joan zen giroa pizten: "Batzuen ustez, jende gutxiago izan da; nire ustez, hiru gunetan banatuta zegoelako: ganadu ferian, azokan eta plazan". Tomate itsusienaren lehiaketa Nerea Hernandezek irabazi zuen eta barrietate gehien aurkeztu zituen Nahia Martin izan zen; ortu lehiaketaren Marije Revueltak irabazi zuen.

Eta domekan pilotalekua bete egin zuten herritarrek abesbatzaren bolero doinuak entzuteko.



Eskoriatzako Merkataritza Mahaia egindako bilera bat, kultura etxean. IBARRAUNDI MUSEOA

Merkataritza Mahaia abian da

Eskoriatzako Udalak eta herriko merkataritza eta ostalariek Merkataritza Mahaia eratu berri dute, merkataritza indarberritzeko. Hain zuzen ere, bi ekintza egingo dituztela adierazi dute: herriko establezimenduen mapa eta Gabonetako erakusleho lehiaketa

Imanol Beloki ESKORIATZA

Tokiko merkataritzaren egoera zein zen jakiteko, Eskoriatzako merkataritza indarberritzeko plan berezia (PERCO) egitea onartu zuen Udalak 2016an. Diagnostikoa eta ekintza plana egin zituen Ikertalde enpresak, eta bertan jasotakoa merkataritza eta ostalariei azaldu zitzaizkien bilera batean. PERCOn proposatutako ekintzen artean, besteak beste, Merkataritza Mahaia eratzea zegoen.

Gauzak horrela, Udal Gobernu osatzen duten alderdi politiko guztiek tokiko merkataritzaren eta ostalaritzaren inguruan duten kezka agerian utzi, eta egoera horren aurrean guztien arteko elkarlana beharrezkoa dela adierazi dute. Ekonomia garapeneko batzordean alderdi politiko guztiek parte hartzen dute -EAJ, EH Bildu, Elizateak

eta Irabazi-, eta bertan, aho batez onartu zen Merkataritza Mahaia sortzea urrats garrantzitsua dela.

Irailaren 11n lehen bilera

Mahaia eratzeke proposamena aurkezteko bilerak egin ziren herriko hainbat merkataritza eta ostalarirekin, eta haiek begi onez ikusi zuten mahaia sortzea. Horrenbestez, martxan da Merkataritza Mahaia, eta dagoeneko hiru asteleheneretan batu dira gai horretan sakontzeko. Lehenengo bilera irailaren 11n egin zuten, eta bertara herriko hain

**KOMERTZIOEN MAPA
ETA GABONETAKO
ERAKUSLEIHO
LEHIAKETA EGINGO
DITUZTE**

bat merkataritza eta ostalaritza joan ziren, baita alderdi politikoetako zinegotziak ere. Dinamika saio bat egin zen eta Eskoriatzako merkataritza indarberritzeko proposamenak egitea eskatu zitzaizkien merkatariei eta ostalariei, eta ondoren, proposamen horiek sailkatu egin zituzten, gustukoenetik hasita.

Gauzatuko dituzten bi ekintzak

Irailaren 18an, aurreko bileran egindako sailkapena aztertu eta boto gehien jaso zituzten proposamenen artean bi aukeratu ziren 2017an egiteko: herriko establezimendu guztiak jasoko dituen mapa egitea eta erakusleho lehiaketa, Gabonetan gauzatuko dena. Beste bilera batean, hirugarrenean, irailaren 25ean egindakoan, aipatutako ekintzak gehiago landu ziren: maparen itxura eta edukia landu ziren,

eta erakusleho lehiaketako oinarriak erabaki. Prozesu osoan herriko hamaika merkataritza eta ostalarik parte hartu dute. Merkataritza Mahaia berriz ere bilduko da aukeratutako proposamenen jarraipena egiteko, eta urtarrilean beste bilera bat egingo da, 2018. urteko plangintza zehazteko.

Deia herriko merkataritza guztiei

Merkataritza Mahaia gogorazi nahi du ezinbestekoa dela herriko merkataritza eta ostalaritza guztiek bertan parte hartzea, mahaia irekia dela eta edozein merkataritza edo ostalaritza parte hartu dezakeela. Gainera, Ekonomia Garapeneko batzorderako positiboa da Merkataritza Mahaia egiten ari den lana, eta merkataritza biziberritzeko ematen ari diren pausoak sendoak eta adostuak direla deritzo.

Epe luzerako proiektua

Axtroki Merkataritza Elkarteko lehendakari Leire Errastik adierazi du Merkataritza Mahaia proiektua ederra dela herria biziberritzeko, eta parte-hartzea ezinbestekoa dela: "Udalak martxan jarri duen ekimen hau oso onuragarria da herriko merkataritza dako ere. Gainera, Udaleko alderdi guztiak daude bertan, Axtroki Merkataritza Elkartea osatzen dugun merkataritza batzuk, eta elkartetik kanpo dauden beste hainbat merkataritza. Hiru bileretan jende asko batu gara, baina hurrengo bilerara herriko merkataritza guztiak etortzea ezinbestekoa dela uste dut. Izan ere, epe luzerako proiektua da, eta lan-saioetan herriko merkataritza guztiak batzen bagara, ideia gehiago jarri ahal izango ditugu mahaia gainean".



"Bertsoak egiten ikastea baino askoz gehiago da"

HAIZEA ARANA HANKAMOTX BERTSO-ESKOLAKO IRAKASLEA

Eskoriatzako Hankamotx bertso-eskolakoek astelehenean hasi zuten ikasturte berria. Edozelan ere, oraindik aukera dago izena emateko

Imanol Beloki ESKORIATZA

Bertso-eskola bertsoan egiten ikasteko lekua da, baina hori baino gehiago ere badela ere adierazi du Haizea Aranak, Eskoriatzako Hankamotx bertso-eskolako irakaslea. Astelehenean hasi zituzten eskolak Hankamotxen, baina, ikasturte berria hasi arren, nahi duenak aukera du nahi duenean izena emateko.

Nola hasi duzue ikasturte berria?

Bertso-eskolako atea urrian irekitzen ditugu, eta, astelehenean hasita, eskola bakarra izan dugu, oraingoz. Iaz, talde bakarra genuen, Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoek osatzen zutena, eta hauek aurtent jarraitzen dute. Ikasturte honetan, talde berri bat sortu da, Lehen Hezkuntzako bosgarren mailakoa. Sei ikasle daude bosgarren mailan, eta DBH-1ekoenean hiru ikasle ditugu. Ni DBHkoen irakaslea naiz, eta nire ahizpa, Oihana, bosgarren mailakoen irakaslea da. Bertso-eskolako atea ez ditugu inoiz ixten, eta ikasturtean zehar norbaitek izena eman nahiko balu, etorri dadila guregana.

Zer egin behar da izena emateko?

Kalean ahoz aho transmititzen den gauza bat da, eta, gu ikusiz gero, esatearekin nahikoa da. Hala ere, posta elektronikoz Hankamotx@gmail.com helbidera idatzita ere egin daiteke. **Zein egunetan eta lekutan ematen dituzue bertso-eskolak?**

Lehen Hezkuntzako eskola astelehenean 18:00etan izaten da eta DHBkoena eguaztenetan 16:30ean, biak kultura etxean. Aretxabaletan, berriz, udaletxe zaharrean izaten dira, eta Arrasaten Zerrajeran.

Badago bertsozaletasunik Eskoriatzan?

San Pedro jaietan bertso-poteoa egin genuen, eta hasieran jende askorik ez hurbildu arren, bu-



Haizea Arana bertsolaria Goienako platoon. IMANOL BELOKI

"GAUZA ASKO IKASTEN DIRA BERTSO-ESKOLAN, EZ BAKARRIK BERTSOAK EGITEN"

Zapatuan bertso jaialdia

Hankamotx bertso-eskolak, ikasturteari hasiera emateko, bertso jaialdia antolatu du zapatu honetarako. Jaialdia Zaldibar antzokian izango da, eta saioa 22:30ean hasiko da.

Oholtza gainera Alaia Martin –Gipuzkoako txapeldunordea–, Haizea Arana eta Oihana Arana ahizpak eta Julio Soto –Nafarroako txapelduna– bertsolariak igoko dira. Gai jartzaile, aldiz, Imanol Artola arituko da, eta sarrerak salgai daude lau eurotan, kiroldegian.

kaeran jende asko batu zen, animatuta ibili ziren... Kosta egiten zaio jendeari bertsoak entzutera etortzea, baina jendeari gustatzen zaio.

Zer egiten duzue bertso-eskolan?

Bertso-eskola, bertsoak egiten ikasteaz gain, sortzeko leku bat da. Izan ere, sortzeko espazio gutxiago dugula ikusten dugu, eta gabezia hori betetzeko esparru bat da. Saiatzen gara bertsoak egiten, bertso zaharrak ikasten, doinuak lantzen, errimekin, istorioak nola jarraitu... izan ere, bertsoa elkarrizketa bat da eta istorio bat asmatu beharra dago. Azkenean, hizkuntzarekin jolasteko beste modu bat da. Gauza asko ikasten dira bertso-eskolan, ez bakarrik bertsoak. **Bertso-eskolaz gain, ekintza ugari antolatzen dituzue, ezta?**

Lagunartekoak, bertso-afariak, topaketak... antolatzen ditugu. Aurtent, azaroaren 24an, Arrasateko gaztetxean bailarako bertso eskolak elkartzeko topaketa egingo dugu. Merienda bat egingo dugu, jokoak egingo ditugu, bertsoak eramango dituzte bertso eskola ezberdinetako ikasleek... Elkar ezagutzeko modu bikaina da.



IMANOL BELOKI

Lapiko-jotzea Eskoriatzan

"Espainiako bortizkeriaren, errepresioaren eta inposizioaren aurka, Kataluniaren alde eta demokraziaren defentsan", lapiko-jotzea izan zen domekan Eskoriatzan. Horren aurretik, auto karabana egin zuten, bozina joz, herritarrek ohartarazteko. Hala, haiek balkoietatik erantzun zuten, lapikoak eskuetan zituztela.



I.B

Sanmigeldarren bertso-afaria

Pasa den egubakoitzean, urteroko bertso-afaria egin zuten sanmigeldarrek Apotzagako merenderoan. Familiakoak, lagunak eta bertso-eskolako kideak batu ziren bertan, eta Xabi Igoa eta Jokin Uranga bertsolarien bertsoekin gozatzeko aukera izan zen. Gainera, Eneko Arbeok eta Lur Gurrutxagak soinu doinuak jarri zituzten, eta kantuan ere aritu ziren, giro ederrean.

Guraso Eskolako itxarrote-zerrendan izena emateko aukera

Guraso Eskolan plaza kopurua bete da dagoeneko, eta urriaren 10ean hasiko da ikastaroa. Hala ere, aukera dago, oraindik, itxarrote-zerrendarako izena emateko. Horretarako, kultura etxera deitu beharko da, 943 71 46 88 telefonora.

Hezkuntza Foroak antolatuta jarriko da Guraso Eskola martxan Eskoriatzan. Nerea Men-

dizabal izango da eskolaren gidaria, psikopedagogo, gizarte hezitzailea, haur masajean hezitzailea eta komunikazioan aditua dena. Hala, hainbat gai jorratuko dituzte bertan, eta azalpenak euskara hutsean izango dira: haurren autoestimua nola sustatu, mugak nola jarri, seme-alaben zeloak nola kudea daitezkeen aztertu, seme-alaben arteko borrokak nola ekidin eta guraso bezala bigunegiak edo gogorregiak garen zalantzak argitu, besteak beste.

Garun Paralsiaren Eguna, ekintzaz josita

Garun Paralsiaren Nazioarteko Eguna izan zen eguaztenean, eta Luis Ezeiza Herri Eskolakoek bat egin dute egunarekin, urtero moduan. Hala, Bergarako eta Arrasateko Aspaceko kideen bisita izan dute eta elkar hobeto ezagutzeko aprobetxatu dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Luis Ezeiza Herri Eskolan Tximeleta Gela dute, eta bertan, garun paralsia edo antzeko gaitzen bat duten ikasleen gela egonkor bat dute. Hala, urtero bat egiten dute Garun Paralsiaren Nazioarteko Egunarekin. Aurtan, Arrasate eta Bergarako Aspacekoen bisita izan dute, eta, jaialdi moduan, hainbat ekintza egin dituzte.

Garun Paralsiaren Nazioarteko Egunean, sozialki aniztasun funtzionala duten pertsonak, sozietateak jartzen dizkien oztopo horiek gainditzen joateko modu gisa, festa eginaz ospatzen dute Eskoriatzan eguna. Hone-la azaldu du Lorea Ugartek, Tximeleta Gelako irakasleak: "Jaialdi honen helburua da sozietateak, eta gure kasuan, eskolako komunitateak, eurak ezagutzea, eta oztopoak gainditzea. Aurtengo leloa *Ausartzen zara ni ezagutzera?* da, eta aukera polita zela pentsatu genuen Arrasateko eta Bergarako Aspaceko Eguneko Zentroko gunekoei guregana etortzeko gonbidapena egitea eta ikasle eta irakasleak beraiek ezagutzen ausartzea. Hala, elkar ezagutzeko aukera izan dugu, eta talde argazkia atera dugu amaitzeko, *Gu ausartu gara* leloarekin".



Luis Ezeizakoak, Arrasate eta Bergarako Aspaceko erabiltzaileekin. IMANOL BELOKI

Elkar ezagutzuz

Luis Ezeizako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako haurrak Tximeleta Gela ezagutzen izan ziren eta Lehen Hezkuntzakoek, berriz, Aspacetik bisitan joandako helduak ezagutzeko aukera izan zuten.

Aspacekoek euren bizi esperientzia kontatu zieten eskolako haur eta irakasleei, eta ondoren, taldeetan banatuta, haurrek hainbat galdera egin zizkieten, bizitzan aurki ditzaketen oztopoen gainean.

Esperientzia aberasgarria

Arrasateko Aspacetik Asier Arenaza, Gorka Olañeta, Johana Gonzalez, Mario Fuentes, Aimar Gorostola eta Maider Larrañaga erabiltzaileak eta Patricia Campos eta Maite Otxoa hezitzaileak izan ziren. Bergaratik, berriz, Amaia Nuñez, Ivan Torres eta Joseba Agirrezabal eta Nerea Ormazabal eta Mariate Guridi hezitzaileak. "Esperientzia aberasgarria" izan zela adierazi zuen Mariate Guridik, Aspaceko hezitzaileak, eta guztiak "gustura" izan zirela.

Denboraldia garaipenarekin hasi dute Iker Molinaren mutilek

Atxurre Bakiori 4-0 irabazita, hurrengo jardunaldian atsedenaldira izango du Eskoriatza areto futbol taldeak

I.B ESKORIATZA

Euskal Liga hasi berri du Eskoriatza areto futbol taldeak, eta, etxean jokaturako lehenengo jardunaldia irabazita, hiru puntuak lortu dituzte eskoriatzarrek. Atxurre Bakio taldea izan zuten

aurkari Iker Molinaren mutilek, eta 4-0 irabazi zuten partidua Manuel Muñoz kiroldegian. Partidu osoan nagusi izan zen etxeko taldea, aukera gehiago izan zituen eta aurkariak atzean sartuta ibili ziren. Hain zuzen ere,

Jon Ugartek hiru gol sartu zituen eta Imanol Sanchezek, bat. Hurrengo jardunaldian Presion Break taldearen aurka jokatu behar zuten etxetik kanpora, Berrizen, baina taldeak txapelketa utzi duenez, atsedenaldira izango dute aste bukaeran.

Ohorezko gazte mailan ari den Eskoriatzako taldeak, berriz, aste bukaera honetan hasiko du denboraldia, eta Larderoren aurka jokaturako du zapatuan, arratsaldeko bostetan, etxetik kanpo.



Hasi dituzte Gure Ametsa jatetxe aurreko bidegurutzeko lanak. IMANOL BELOKI

Hasi dituzte lanak Gure Ametsa jatetxe pareko bidegurutzean

Bidegurutzearen segurtasuna hobetzeko lanak urtea amaitu aurretik amaitzea espero dute

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

GI-627 eta GI-3310 errepedeen arteko bidegurutzearen segurtasuna hobetze aldera, Gipuzkoako Foru Aldundiak hasi ditu obrak dagoeneko, Gure Ametsa (Marisa) eta Gatza-Gain jatetxeen arteko bidean.

Lanak urtea amaitu aurretik amaituko dituzte, eta bidegurutzean bide segurtasuna hobetzeko helburuarekin egingo dituzte lanak. Honela aipatu du Eneka Zankadak, Leintz Gatzagako alkateak: "Pasa den eguaztenean hasi zituzten lanak, eta orain, bide horretatik trafikoan eragina izango dugu egunero bertatik pasatzen garenok. Beraz, pazientzia izateko adierazi nahi diet egunero bide horretatik pasatzen direnei. Bestalde, gaineratu nahi dut lanak oso azkar hasi dituztela; izan ere, urtea amaitu aurretik amaituta egon beharko dute".

Egingo dituzten lanak

T formako bidegurutzea gauzatu da errepede zati horretan. Modu horretan, ibilbideen artean angelua handiagoa izango da, eta, erdigunean itxaroteko erreaiak jarrita, ibilgailuek biraketak segurtasun handiagoz egingo dituzte.

Egingo diren lanen artean, GI-627 errepedearen plataforma zabalduko da 3,5 metroko itxarrote-erreia ateratzeko. Era berean, errepede horretako abiadura 60 km/h mugatuko da bidegurutzetik igarotzean eta eguzki-plakaz hornitutako led motako luminariarekin argiztatuko da ingurua.

Hiru hilabete

Lan horiek guztiek 236.000 euroko aurrekontua dute, BEZa barne. Irailaren amaieran hasi berri, obrek hiru hilabete iraungo dute.

Sanmilixanetan postua jartzeko aukera zabalik

Sanmilixanetan azaroaren 12an ospatuko dira, eta artisau azokan edo artisautzako tailer herrikoian postua jarri nahi dutenek eskaerak aurkez ditzakete dagoeneko.

Aurtengoa 25. eskulangintza azoka izango da; frontoian egingo da, urtero moduan, eta eskaerak aurkezteko epea urriaren 20an itxiko da. Hala, *Leintzga-*

tzaga.eus webgunean parte hartzeko oinarriak irakurri, eta eskaera orria bete beharko da, eta dokumentazioa webgunean jartzen duen helbidera bidali. Aukeraturako artisauiei, urriaren bukaeran jakinaraziko zaie baldintza guztiak betetzen dituzten edo ez.

Azokan, artisauiek egindako lanak ikusi eta erosteko aukera egongo da, eta herriko emakume taldeak prestatutako taloak jateko aukera ere izango da, besteak beste.



Arabako eskolarteko bertso txapelketa Aramaion, 2015ean. GOIENA

Beste talde bat izango du aurten bertso eskolak

Laugarren eta seigarren mailetako ikasleek –sei guztira– osatuko dute talde berria eta lau talde izango dira 2017-2018 ikasturtean; urriaren 20an egingo dute ikasturte hasierako ekitaldia, Sastiñan, Jon Maia eta Maddalen Arzallus gonbidatuekin

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Azken urteotako formatua erabiliko du aurten ere bertso eskolak ikasturteari hasiera emateko. Lehenik, bertso saioa eskainiko dute Jon Maiak eta Maddalen Arzallusek, Sastiñan, urriaren 20an, 19:30ean. Modu librean ariko dira bi bertsolariak, ordubete inguruz. Sarrera doan izango da, Xabi Igoa bertso eskolako kideak azaldu duenez: "Ulertzen dugu, herrira begira antolatutako ekitaldi bat izanik, hala behar duela izan".

Ateak edozeinentzako zabalik daudela nabarmendu du Igoak. "Bertso eskolako ateak zabalik dauden moduan, ekitaldi honetarako ateak ere zabalik egongo dira etorri nahi duen edonorentzako", adierazi du.

Saio horrekin, herriarekin hartutako konpromisoa betetzen du bertso eskolak, hein batean. "Behin, Santa Ageda eskean hasi ginela, hartu genuen konpromisoa han batutako dirua herriari itzultzeko, eta saio hau ho-

rretarako da, diru horrekin antolatzen dugulako", dio Igoak. Saioa bukatzean, bi bertsolariekin afaria egingo dute eta bertso eskolako ikasleek eurekin egoteko aukera izango dute.

Aurten, lau talde

Aurten, lau talde egongo dira Aramaioko Bertso Eskolan eta, guztira, 28 bertsolari ibiliko dira. Helduen talde egonkorraz gain –aramaiorrek bakarrik ez, arrasatearrak, aretxabaletarrak eta otxandiarrak ere batzen ditu talde horrek; hamaika bertsolari, guztira–, beste hiru talde egongo dira: gazteena –lau–, DBHko 1-2 taldea –zazpi– eta sortu berri den taldea, LHko laugarren eta seigarren maila arteko ikas-

"ALBISTE ONA DA, GURETZAT, TALDE BERRI BAT SORTZEA, FAMILIA HANDITZEN DOAN SEINALE"

leak batuko dituen –sei–. Igoak azpimarratu du oso albiste ona dela, bertso eskolarendako, beste talde bat sortu izana. "Urtetik urtera bertso eskolako familia handitzen doan erakusle da. Iaz talde berri bat sortu zen eta aurten beste bat. Funtsezkoa da hori guretzat. Beraz, aurtengo helburua talde berria mimatzea izango da, taldeak aurrera egin dezan", adierazi du.

Herrian eragitea helburu

Bertso eskolaren filosofiaren parte da herrian eragitea eta herriko ekintzetan parte hartzea, eta aurrerantzean ere hala izaten jarraituko du, Igoaren esanetan: "Sagardo Egunean abestu genuen, Santa Ageda eskean ere aterako gara, Lorabarri astean ere bai, eta, gainontzeko eragileek hala eskatzen badigute, parte hartzeko prest izango gara, betiko moduan".

Gabonetarako, abenduaren 23rako, bertso saio bat antolatzeko ari da bertso eskola.

Untzilla auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburuan

Mota guztietako ekintzekin osatutako egitaraua prestatu dute, gaurtik domekara bitartean

E.A. ARAMAIO

Gaur, egubakoitza, hasiko dituzte Untzillako jaiak, 19:30ean, kanpai jotzarekin eta etxafuego jaurtiketarekin. Ondoren, bertso afaria egongo da elkartean, Julio Soto eta Iker Zubeldia bertsolariekin.

Bihar, zapatua, auzoko hildakoen aldeko meza izango da, 12:00etan, eta ondoren, umeentzako puzgarriak egongo dira, trikitilariak alaituta. 14:00etan, auzo bazkaria egingo dute elkartean eta arratsaldean, berriz, mus txapelketa –izen-ematea 20 euro–, 16:00etan hasita. 17:30ean, Tor magoaren ikuskizun berezia egongo da eta 18:30ean, txokolate-jana. Bitartean, dantzaldia eskainiko du Maddalen Arzallus eta Harkaitz Allur bikoteak. Iluntzean, afari zerbitzua eskainiko dute elkartean, parrilla piztuta, eta ondoren, dantzaldiak jarraituko du. 23:00etan, Murumendi Elkarteko 35. Bolo Txapelketa egingo dute –izen-ematea 10 euro–.

Etzi, domeka, mendi irteera egongo da, 10:00etan elkartetik abiatuta. 12:00etan, meza, Aramaioko abesbatzak lagunduta, eta 13:00etan, Vermouth dantzaldia, Harkaitz Allurren eta Maddalen Arzallusen eskutik.

Anbulantzia zerbitzua ziurtatzeko mozioa onartu du Udalak

Gaur egun, U-1011 izeneko Oinarrizko Bizi Euskarrien Egoitza Legutition dago eta ambulanziaz horrek lau udalerritan eskaintzen du zerbitzua: Legutition, Aramaion, Arratzua-Ubarrundian eta Barrundian. Hala ere, EH Bilduren Udala Taldeak pasaden osoko bilkuran aurkeztutako mozioak hauxe dio: "Legutition zaintza egin beharko lukeen



NIRE USTEZ

ANDONI ELEJALDE

Gustura Aramaixon!

Apa, irakurliok! Gaurkuen, zoriondu gure jittuat udaletxe, zerbitzari eta auzokide danok. Danon artien herriko bizi-kalitate hobetu jua eta! Hasteko, herritarren arteko elkarbizitza ezin hobie da. Esatie baiño ez jak aldatetzen aurrien beti portaera positibue agertzen dogule.

Betidanik hobekuntzak emun diezen arren, azken hamar urtietan aldeketan haundixek nabarmendu diela esango neuke. Gauza haundi zein txikixek, asko izen diez, aurrerapauso honetan. Ondio be, bajak nun egin: Santana edo jolas parkie, adibidez. Baiñe hor geratzen dittuk egindeko lanak; parke, kiroldegi eta ikastola guniek, Andra Maixa, taberna giro berrixe eta antolakuntza, zerbitzu garrantzitsuen jarraipenak, aparkalekuek, errepediek... eta beste hainbat gauza.

Aprobetxate, mesedez eskatzen dot kiroldegiko obra amaittu aurretik, jar daixiela aldageletan espilluek eta jaboie itxeko euskarrixek.

Besterik barik, animo, gutarrok, jarraitu deigun bide hortan.

ambulantziak jardunaldi ia osoa Gasteizen egiten du eta errealtate honek babesik gabe uzten ditu gure udalerriko herritarrek emergentzia baten aurrean".

Hori dela eta, onartu egin zen Osasun Sailari exijitza Gasteizen beharrezkoak diren baliabideak ezarri ditzan kalitatezko zerbitzua bermatzeko eta herrialdeko gainontzeko ambulanziek ez dezatela Gasteizen zerbitzurik eman. EAJ aurka agertu zen, hau argudiatuta: "Zorionez, guztiek jasotzen dute arreta".



Irudian, Nahia Garcia pilotari aramaiarra, San Martin Txapelketako partidu batean. ARAMAIO PELOTA ELKARTEA

Hamar urte herriko pilota zaletasuna bultzatzen

2007ko maiatzean sortu zen Aramaio Pelota Elkartea, aurrez herrian zegoen pilota jardunari jarraipena emateko helburuarekin; hamar urte geroago, "osasuntsu" dago taldea eta horren erakusle da San Martin Txapelketako parte-hartze handia

Eneko Azurmendi ARAMAIO

10. urteurrena betetzen ari da aurten Aramaioko Pelota Elkartea. Udaberrian egin zituen hamar urte elkarteak. Izan ere, 2007ko maiatzean sortu zen, gaur egun pilota eskolako arduradun Xabi Herrarteren eta Enrique Ullibarriaranaren eskutik. "Ni gurasoen elkartearen nengoen orduan. Aurrez, urte askoan

Enrique Axpe ibili zen herriko pilota sustatzen, baina momentu hartan uztea erabaki zuen, nekatuta edo", adierazi du Herrarterek. Hori dela eta, herriko pilota jardunari jarraipena emango zion talde baten beharra suertatu zen, eta hor sortu zen Aramaio Pelota Elkartea.

Lehenengo entrenatzailea Fernando Errasti izan zen. "Ezagu-

tzen genuen aurrez. Bagenekien pilotan ibilitakoa zela, eta hari proposatu genion entrenatzaile moduan aritzea. Onartu egin zuen", dio Herrarterek.

Hiruren artean elkarte sortu eta aurrera eramatea lortu zuten; hasiera batean, helburu finkorik gabe, Herrarteren esanetan. "Aurrez herrian zegoen pilota jardunari jarraipena ema-

tea besterik ez. Gero, denbora pasa ahala, joan ginen pixkana helburuak markatzen".

Hutsetik hasitako taldea zen, eta hainbat zailtasun izan zituzten hasieran. "Mundu ezezaguna zen guretzat eta ezjakintasunetik abiatu ginen. Udalarekin harremanetan jarri ginen, kirol baliabideak eta azpiegiturak zeintzuk ziren jakiteko, eta diru laguntzak eskatzen ere hasi ginen". Oraindik ere laguntza horiek "eskasak" direla nabarmendu du du pilota eskolako arduradunak. "Negarrez ibili behar izaten dugu diru laguntza horiek lortzeko eta urtean zehar finkatutako helburu horiek behar bezala bete ahal izateko", dio.

Osasuntsu

Hasiera batean, 15-16 pilotarik osatzen zuten taldea, baina bigarren urtetik aurrera geroz eta oihartzun handiagoa hartu zuen herrian eta pilotari dezente batzen dira urtero. "Urtetik urtera aldaketaren bat edo beste izaten dugu, baina 20-30 pilotarien artean ibiltzen gara, tarte horretan mantentzen dugu kopurua", azaldu du Herrarterek.

Hori horrela, egoera onean eta osasuntsu ikusten du taldea. "Ezin gara kexatu. Beste herri batzuekin alderatuta eta Aramaion daukagun biztanleria kopurua kontuan hartuta, ikusten dugu herri handiagoetan ez daudela gu bezain elkarre osasuntsuak. Ez dute guk besteko ume kopururik, eta pozik egoteko moduan gaude", dio. Gaur egun, 27 pilotarik osatzen dute Aramaio Pelota Elkartea.

Omenaldia

Urteurren borobila dela eta, omenaldi xume bat egin zioten elkarteari Sagardo Egunean.

"Taldeak lan handia egiten du. Konpromiso maila handia dugu guztiok, eta egiten dugun lanaren aitortza izan zen omenaldia. Beraz, pozik gaude", azaldu du Josu Olaizolak, Aramaio Pelota Elkarteko kideak.

San Martin Txapelketa

Lehenengo urteetan, eskolarteko txapelketak jokatzeko zituzten taldeko pilotariak, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan, baina gaur egun, etxean jokatzen diren aukera ere badute. Izan ere, duela lau urte, San Martin Txapelketa sortu zen. "Eskolarteko txapelketa azaroan hasten da eta irailean eta urrian Araba mailan ez da antolatzen partidurik. Bi hilabeteko hutsune hori betetzeko, txapelketa hau antolatzea erabaki genuen", dio Olaizolak.

Dagoeneko txapelketak ibilbide erdia egin du eta final egunerako hilabete baino ezta falta. Asteburu honetan ere hainbat partidu jokatuko dira. Astero moduan, gaur, egubakoitza, 18:00etan eta etzi, domeka, 10:00etan, izango dira partiduak. Aramaioko zenbait bikote ariko dira gaur eta etzi: Eñaut Olaziregi/Anitz Abarrategi eta Ibai Garitaonandia/Anje Kortabarria benjamin B mailan; Gailur Zubia/Nahia Garcia Benjamin A mailan; Xabat Goikoetxea/Txomin Abarrategi kimunen A mailan; eta Markel Arriolabengoa/Mikel Sanz, berriz, kadete B mailan.

27 PILOTARI DAUDE GAUR EGUN ARAMAIO PELOTA ELKARTEAN; EGOERA ONEAN IRITSI DA URTEURRENERA

Hainbat lan egiteko diru laguntza eskatu dio Udalak Aldundiari

Obra txikiatarako eta auzolanerako diru laguntza eskaera egin dio Udalak Arabako Foru Aldundiari. Batetik, obra txikien deialdian, Azkoagako ur depositura doan bidea konpontzeko. Bestetik, auzolanen deialdian, Arragako arekak egiteko edota egokitzeko. Iaz ere egin zuen eskaera Udalak, baina ez zuten dirurik eman, berriro egin du.

Guardia herrira irteera egingo dute herriko erretiratuek

Alaiak Jubilatuen Elkarteak antolatuta, Guardiara irteera egingo dute urriaren 21ean. 10:30ean izango da irteera. Ondoren, upategi bat bisitatu eta Villa Lucia jatetxean bazkalduko dute. Interesatuak urriaren 15a baino lehen 33 euro ordaindu behar dituzte Laboral Kutxa kontuan. Plaza kopuru mugatua da.

Urriaren 28ko azokan parte hartzeko dei egin du Udalak

Jubilatuena Eguna egingo dute urriaren 28an –zapatua–, eta, ohiturari jarraituz, goizaldean azoka egingo dute Nardeaga kalean. Hori dela eta, Udalak dei egin die herriko abeltzain eta artisauei egun horretan postua jartzeko.

Interesa duenak urriaren 13a baino lehen eman beharko du izena, udaletxean bertan.

2018ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa martxan da

Udalak argazki lehiaketa jarri du martxan, 2018ko egutegia osatzeko. Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu; betiere, Aramaion ateratakoak. Argazki bakoitzak izenburua, tokiaren izena eta data izan behar ditu. Urriaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira. Oinarriak Udalaren webgunean daude.

Euskara ikastaroa martxan jarri dute dagoeneko

Azken urteotan euskara ikasten dabilen taldeak jarraitu egingo du aurten ere. Beste hiru pertsonak eman dute izena euskara ikasteko, baina ez dira talde horretako mailara egokitzen, eta ezin izan dira batu. Beste euskaltegi batean ikasiz gero –heritik kanpo–, Udalak diru laguntza emango die, %80ko asistentzia ziurtatzen badute.



Alberdi eta Zubierremeria, Bergarako epaitegian, udal ordezkariekin eta Intxorta 1937 kultur elkarteko kideekin. L.Z.

Frankismoaren aurkako bi kereilak aurkeztuta

Udalak orain bi hilabete bidali zuen frankismoak Elgetan egindako hamalau kasu jasotzen dituen dokumentazioa Argentinara. Eguaztenean, berriz, Bergarako epaitegian aurkeztu zuten. Epaileak du orain hitza

Larraitx Zeberio ELGETA

Elgetako Udalak tropa frankisten erasoaldia gelditu izanaren 81. urteurrenean aurkeztu du kereila kriminala Bergarako epaitegian. Dokumentazioa testigantzen bulegoan jasotako hamalau lekukotasunetan dago oinarrituta eta udal ordezkariekin batera bertaratu ziren epaitegira testigantza eman duten

familietako biren ordezkariak; Ane Miren Alberdi eta Joxe Mari Zubierremeria. "Epaileak erabaki behar du orain kereila tramitera onartzen duen edo ez. Onartuz gero hurrengo urratsa da lekukoak deitu eta testigantzak hartzea", azaldu du Intxorta 1937 kultur elkarteko Julia Mongek. 1977ko amnistia legea da oztopo nagusia, baina

Iraitx Lazkano alkatea baikor agertu da. "Arrakala bat zabalitzen ari gara. Espainiako justiziak baditu bere mugak, baina guk ere baditugu gure erremintak. Garbi dugu frankismoa ez zela 78an amaitu. Franco hilda egonda ere izan dira frankismoak eragindako krimenak. Horietako batzuk ere sartu ditugu kereila horretan".



Enpresako X. Muxika, M. J. Rodriguez, F. Rodriguez, E. Laskurain, eta I. Egizabal. L.Z.

Elcoro enpresan krisiari buelta eman izana ospatu gura dute

125. urteurreneko ekitaldiak antolatu dituzte bihar eguerdirako zein iluntzerako Elgetan

L.Z. ELGETA

1982an erosi zuen Fernando Rodriguezek Elcoro enpresa. 1892. urtean Eibarren sortua, 1910. urtetik dago Elcoro Elgetan. "Hemeretzi langileekin hasi ginen eta 2008rako zazpi planta eta 234 langile genituen", gogoratzen du Rodriguezek. Enpresaren 125. urteurreneko ekitaldien atarian krisi ekonomikoak gogor jo dituela adierazi du, baina egoerari buelta ematen hasiak direla. "Handitzeko nahiak une oso txarrean inbertsio potoloak egitera eraman gintuen eta krisia zorpetuta abiatzea heriotza zigorra da. Erdira baino gutxiagora murriztu gaitu krisiak". Elcoro enpresa konkurtso egoeran da eta urteotan langileek egoera oso gogorra bizi izan dute. "2007an 95 langile genituen Pagatzako plantan. Gaur egun 63 gara, baina

50 ere izan gara. Enplegu-erregulazio espedienteak izan ditugu, erretiro aurreratuak, sustatutako kaleratzeak... Lan-sariak ordaintzeari ere utzi genion... Hori guztia iragana dela esan dezakegu", esan du Rodriguezek. "Hori da urteurren ekitaldiekin ospatu gura duguna. Proiektu berriak ari dira sortzen, bezeroak eskaerak egiten hasi dira berriz, Gasteizen genuen enpresa baten salmentak ere lagundu du... Hemen jarraitzen dugu eta enpresaren alde lan egiten jarraituko dugu", esan du.

Urteurreneko ekitaldiak

Bihar, zapatua, 13:00etan egingo dituzte urteurreneko ekitaldi nagusiak Pagatzako plantan. Gero, bazkaria izango dute Bergarako Lasa jatetxean. Azkenik, iluntzean, suziriak botako dituzte Elgetan.

Memoria jardunaldiak domekara arte

Eguaztenean hitzaldia egin zuen Leyre Arrieta historialariak eta eguenean Beldarrainen liburuaren bigarren argitaratzea aurkeztu zuen Intxorta 1937 kultura elkarteak. Gaurko, barikua, Pascual Askasibarren omenezko ekitaldia dago deituta interpretazio zentroan, 18:30ean. Domekan, berriz, antzeztutako bisita gidatua egingo dute, 10:00etan.



Leyre Arrieta, lehenengo Eusko Jaurlaritzaren gaineko hitzaldia egiten. L.Z.

OHARRAK

Ipuinak liburutegian

Gaur, 16:40tik aurrera neska-mutikoendako bi saio boluntario baten eskutik.

Auzolanerako deia

Hilaren 12an plazan elkartuko dira, 09:00etan, Egoarbitza auzolanean garbitzeko.

Memoria tailerra

Izen-emateak zabalik jarraitzen du udaletxean.

Kezka dago mediku zerbitzuaren ordutegi murrizketarekin

Mediku aldaketak kontsulta ordu kopuruan murrizketak ekarri dituela eta kezka dago herrian. "Osakidetzak behin betiko ordutegiak finkatu gabe dituen arren, orduen balizko murrizketa ez da onargarria. Gaiari jarraipena egiten ari direla adierazi du Udalak. Herriarrak, bestalde, erreklamazio-orriak betetzen hasi dira.

GOIENA TELEBISTA 2017 UDAZKENA

Gertuko izaten segi eta berritu

Goienak ahalegin berezia egin du bere telebista berritzeko: platoko dekoratuak berritu, telebista kamerak aldatu eta seinalea etxeetara bidaltzeko antenetan aparailu berriak jarriko ditu. "Telebista egitea, estandar batzuetan, ez da merkea eta gurea moduko telebista txiki bantzen esfortzu handia da, baina ezinbestekoa da egunero-egunero, gutxienezko kalitate batekin, ikus-entzuleen pantaila letara ailegatzea nahi badugu", dio Oihane Agirrek, Goiena programazio zuzendariak.

Horrenbestez, itxura berrituta eta saio berriekin heldu da udazkenera Euskal Herrian erreferente den euskarazko telebista lokala: Goiena. "Gure izaerari eutsi nahi diogu, gertutasuna eta komunitatea dira gure markak, baina gaur egun ikus-entzunezkoak kontsumitzeko dagoen telebista kate edota plataforma eskaintza ugariaren aurrean, erakargarri eta bereizi izan nahi dugu", dio Eneko Azkaratek, Goienako edukien zuzendariak. Youtuben ere ikusi ahalko dira Goienako edukiak.

Egunero, ezberdin

Egunerokoei eutsiko die Goienak, aurtengo otsailean egindako apustuarekin: askotariko gaiak jorratzen dituen *Hemen Debagoiena* magazinari eta *Gaurkoak* albistegiari. Eta, bestetik, egunero, saio ezberdin bat izango du, gutxienez. Astelehenetan, *Harmailatik*, asteburuko kirolaren errepaso, Xabier Urzelaiarekin. Martitzenetan, bueltan da *Harira*. Oraingoan, berriro ere eskualdeko alkateekin. Herriarrek ere izango dute alkateei galderak egiteko aukera. Alkatteen ostean, beste erakunde batzuetako herri ordezkariak el-

Goiena telebista inoiz baino beteago, erakargarriago eta berrituago dator. Nortasun ikurrei eutsiz eta eduki berrien alde apustu eginez; egunero, 'Hemen Debagoiena' magazin zabala eta beste saio bat, gutxienez, telebistan, eskuko telefonoetan...



Hemen Debagoiena magazina hasteko gertu, azken prestaketa lanak egiten, Goienaren Arrasateko platoon. XABIER URZELAI

karrizketatuko ditu Eneko Azkaratek eta eztabaida saioak ere egingo ditu, aurrerago, udalbatazan ordezkatuta dauden alderdi ezberdinetako zinegotziekin.

Eguaztenetan, dokumental berezi eta landuen tartea izango

da. "Jon Salaberriren gainekoa, Fagor Etxetresna elektrikoaren itxierarena... mimoz eta patxadaz, askotariko ikuspuntuarekin, landu ditugu arestian; eta aitor-tza izan dute ikus-entzuleen aldetik. Oraingoan, euskarazko

mintzalagunen gainekoa, Arrasateko Zerrajeraren gainekoa, drogek gazteengan duten eraginarene gainekoa eta hainbat alorretan bide urratzaile edo ait-zindari izan diren debagoien-darren gainekoak lantzen dihardugu", dio Eneko Azkaratek.

Eguenetan, *Kulturriketak* sarritua -aurtengo Rikardo Arregi- itzuliko da: Patxo Telleria eta Mikel Martinez; Edu Muramendiaraz eta Xabier Zeberio; Arantxa Iturbe eta Iñigo Astiz... Kultur gileak solasean ariko dira, era liberan, kezkek, bizipenak, ametsak... azalera-tuz. Eta egubakoitzetan, *Amaia DJ* etorriko da, bereziki, gaztetxoendako musika saioa, non haiek diren ikusi nahi dituzten bideo-klipak eskatzen dituztenak.

Ekitaldi bereziak

Baina, horietaz gain, jarraituko dute *Osoko bilkurak* eta Julen Iriondoren *Ikustenda* saioek. Eta Xabier Urzelaiak beste ahalegin bat egingo du, *#HRMT* saioarekin, oso modu pertsonalean, kirolaren eta kirolarien beste ikuspegi bat eskaintzeko, haien egunerokoan murgilduz... Mikel Linazisoro eskalatazailerekin eta Xabier Fernandez *Purito* auto pilotuarekin ari da lanean denboraldi berrian.

Ekitaldi bereziak ere jasoko ditu Goienak: Maritxu Kajoiaren gainekoa; Bergarako moda desfilea -zuzenean-, Siriako erre-fuxiatuen aldeko elkartasun kontzertua eta *Alizia* musikala... Herriko eragileekin batera.

Kanpo ekoizpenak ere tokia izango du: Huheziko Ikus-entzunezkoen campuseko ikasleekin ekoiztutako *Bide batez* eta *Huhezinema*; *Xistera*, zesta-punta partiduena; eta *Txantxariak*, haur-errentzako saioa.

**HERRI ERAGILEEKIN
ELKARLANEAN,
EKITALDIK ZUZENEAN
ESKAINIKO DITU
GOIENA TELEBISTAK**

Denetik eta onetik udazken honetan Goiena telebistan

Informazioa, musika, kirola, kultura, entretenimendua, albisteak, elkarrizketak, dokumentalak... Txikiendako, gazteendako, helduendako... Goienaren izaerari eutsiz: bertakoa, gertukoa



GAURKOAK

Eguneko albistegia. Unean uneko albisteak, egunekoak, azkar eta arin emanak. Lekukoen eta protagonisten testigantzekin. Astelehenetik egubakoitzera bitartean; asteburuan, asteko albisten errepasoa.

- Egunero
- 14:30/16:15
- 17:00/17:45



AMAIA DJ

Musika saioa. Ikus-entzule gazteenekin komunitatea osatuz, gazteek eurek eskatutako bideoklipak aurkezten ditu saioak. Zuk zeuk ere har dezakezu parte, sare sozialen bidez zure gustuko musika eskatuta.

- Egubakoitza
- 21:30
- Aurkezlea: Amaia Txintxurreta



#HTRM

Kirola eta kirolariak beste ikuspuntu batetik. Kirolaren ikusgarritasuna barrutik, sakonetik. Kirolarien motibazioak, erronkak, kezak, ahaleginak, sariak... Xabier Urzelaik ekoiztu eta grabatua.

- Hileko azken eguaztenetan
- 21:30



HARMAILATIK

Debagoieneko kirola eta kirolariak protagonista dituen saioa. Aste bukaerako kirol kronikak, elkarrizketak, erreportajeak, eta abar, protagonisten ahotan. Eskualdeko kirola, sakon aztertuta.

- Astelehena
- 21:30
- Aurkezlea: Xabier Urzelai



HARRIRA

Elkarrizketa saioa, herri ordezkariekin, alkateekin eta beste erakunde publiko, elkarte, talde eta alderdi politikoetako ordezkariekin. Gori-gori dauden kontuak, herritarrei zuzenean eragiten dietenak.

- Martitena
- 21:15
- Aurkezlea: Eneko Azkarate



KULTURRIZKETAK

Askotariko arte eta kultura adierazpen sortzaileekin solasaldiak. Elkarrizketa edo solasaldi formula erabilia: bi kulturgile, aurrez aurre, kulturaz berrikeran, modu librean. Rikardo Arregi 2017 sari nagusia.

- Eguena
- 21:30



OSOKO BILKURAK

Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko udalbatzen ohiko osoko bilkurak, oso-osorik. Hilean behin izan ohi dira herrietako ohiko osoko bilkurak. Eskualdeko herri nagusietakoak osorik grabatu eta emititzen dira Goienan.

- Egubakoitza eta astelehena
- 23:00



HEMEN DEBAGOIENA
Txomin Madina

HEMEN DEBAGOIENA

Goienaren eguneroko magazina. Debagoieneko gertaerak, tokiak, jarduerak, berriak eta pertsonak protagonista dituen saioa. Kanpoko erreportajeak, platoko elkarrizketak eta solasaldiak batzen ditu.

• Egunero • 18:00/20:00/22:00 • Aurkezlea: Txomin Madina



HUEHZINEMA

Euskarazko film laburren gaineko saioa. Huhezinema jaialdira Huheziko ikasleek aurkeztutako lanak ikusteko aukera izango da. Filmekin batera, egileei egindako elkarrizketak jasoko ditu.

• Egubakoitza
• 21:00 ('Bide batez' saioko atal guztiak amaitu osteko astean hasiko da.)



TXANTXARIAK

3-8 urte bitarteko haurrentzako telebista saioa. Saioek, entretenimenduen bidez, hainbat balio positibo transmititu nahi dituzte.

• Asteburua
• 09:00 eta 16:00



DOKUMENTALAK

Goiena telebistak ekoiztutako dokumental bereziak, gaurkotasuneko gaien gainekoak. Patxadaz, sakontasunez, askotariko ikuspuntuekin. Urrian bi eskainiko dira: Mintzalagunen eta garai bateko Zerrajera lantegiak eskualdean izan zuen eraginaren gainekoak.

• Urriak 11 eta 18
• 21:30



BIDE BATEZ

Huheziko ikasleek ekoiztutako saio entretenigarria. Bi egunetan Euskal Herrian barrena osatuko dute ibilbidea MUko fakultate horretako ikasle bik. Bidean makinatxo bat abentura izango dituzte.

• Egubakoitza
• 21:00



IKUSTENDA

Erreportaje saioa, gaiak askotarikoak direlarik, Julen Iriondoren ukitu pertsonalarekin: Iparraldeko debagoiendarrak, eskualdeko gazteak..., ikuspuntu ez ohikoetatik jorratuta.

• Eguena
• 21:00



XISTERA

Zesta-punta txapelketako partiduak astebururo: Nafarroan, Lapurdin, Bizkaian eta Gipuzkoan jokaturakoak.

• Zapatua: 18:00
• Domeka: 12:00

Eraberrituta dator, udazkeneko eta neguko denboraldi berrian, Goiena telebista. Programazioa, edukia, platoa eta tresneria berritzeko egindako ahaleginaren gainean dihardu Goiena telebistako zuzendariak. Dokumental bereziak dira udazkeneko apustuak bat.

Zeintzuk dira oraingo berritasun nagusiak programazioari dagokionez?

Berritasunen artean aipatuko nuke gertuko istorioen kontaketaren aldeko apustua, baina modu landuagoan. Hau da, sakon landuko ditugu bertako gaiak erreportaje edo dokumental formatuan. Datorren astean estreinatuko dugu ikasturte honetako lehena, mintzapraktika egitasmoa gertutik ezagutzeko aukera izan du eta Larraitz Zeberio kazetariak. Ostean etorriko da Josu Bilbao kazetariak Zerrajeraren eta hark eskualdean izan zuen eraginaren gainean eginikoa. Hilero erreportaje bat eskainiko dugu eta bagabiltza beste bi ekoizten. Azken bi urteotan, era horretako hiruzpalau erreportaje egin ditugu eta horietako bi sarituak izan dira. Bide honen aldeko apustua egin dugu, erraza ez izan arren.

Erreportaje landuen aldeko apustua baita kirolean ere.

Bai. Kirol gaiak hizpide hartuta bueltatuko da #HMRT saioa. Hileko azken eguaztenean, Xabier Urzelai kirol kazetariak hainbat kirolen gaineko beste ikuspuntu bat landuko du. Eskualdeko eskalatzailen -goi mailakoak batzuk- gainekoarekin dihardu orain, laster estreinatuko duguna, eta auto lasterketetan dihardutenen gainekoa ere bai.

Egunero, magazina?

Aurtengo apustua izan da *Hemen Debagoiena*; azken hilabete hauetan egonkortu egin da, askotariko gai eta formatuak lantzeko aukera eskaintzen digulako, betiere, gaurkotasanari helduta. Ordubetz egunero ekoizten dugun saioa da.

Sarituak izan den Kulturriketak saioa ere badator.

Benetan sinisten dugu saio honetan. Gainera, Rikardo Arregi saria jaso ostean, eta sortzaileen artean izandako harrera kontuan hartuta, denboraldi berria ekoizten hasi gara. Zorionez, oraindik, hainbat diziplinako sortzaile ugari ditugu gonbidatuen zerrandan. Euskal kultura eta

"Indarguneak balioan jarritz erakargarri izan nahi dugu"

OIHANE AGIRRE GOIENAKO TELEBISTAKO PROGRAMAZIO ZUZENDARIA

Tresnerian inbertsioak egin, platoa goitik behera berri eta eduki-formatu berrien aldeko apustu egin du Goiena telebistak ikasturte berrian, "erakargarriago" izateko



Oihane Agirre, Goiena telebistako platoon. E.A.

euskal sortzaileak hurbiltzeko balio du saio honek.

Julen Iriondoren Ikustenda-k izango du jarraipena?

Sorta berriarekin dator *Ikustenda*. Hasteko, Debagoieneko gazteak izango dira protagonista.

Xistera saioarekin, zesta-puntako partiduak emango dituzue?

Bada Xistera izeneko elkarte, zesta-punta indartzeko helburua duena; hori dela eta, euren ekoizten dituzten partiduak Goiena telebistan eskaintzeko aukera eman ziguten. Gaur egun, nekez ikus dezakegu zesta-puntako partidurik telebistan, eta horixe eskaintzera dator, hain zuzen, Goiena telebista.

Mondragon Unibertsitateko ikasleek ekoiztutako saioen bat ere ikusi ahaliko dugu udazkenean?

Urtero ematen du bere uzta Huheziko fakultatearekin dugun elkarlanak, baita oraingoan ere. Aurtun, MUko ikasleak ekoiztutako *Bide batez* saioa estreinatuko dugu gaur bertan. Bi ikasle izango dira saio honetako protagonista, eta, bi egunetan bete beharreko ibilbide jakin bat helburu, haien bizipenak

"INTERESEKO GAIK DOKUMENTAL FORMATUAN EMATEKO APUSTUA EGIN DUGU"

bertatik bertara ikusteko aukera izango dugu.

Platoa eraberritu egin duzue. Itxura ederra hartu du.

Inbertsio garrantzitsuak egin ditugu. Profesionalen esku utzi dugu telebistako platoaren eraberritzea, eta hori igarri egiten da. Javier Larreina eszenografoa arduratu da platoaren diseinu eta muntaiaz. Goienako irudiaren koloreak oinarri hartuta diseinatu du guztia. Gure platoaren dimentsioak kontuan hartuta, lan bikaina egin duela esango nuke. Argiztapenean ere inbertsio garrantzitsua egin dugu, eta, kasu honetan, Javi Ulla argiztapen kontuetan aditua arduratu da foku bakoitza dagokion lekuan jartzen. Gainera, udazkenean platoko kamerak aldatu egin nahi ditugu, eta aldaketa egiten dugunean ere igarriko dute hobekuntza gure ikus-entzuleek.

Seinalearekin arazorik izan duzue. Konpondu?

Bai, astean konpondu dugu Muru mendian kokatuta daukagun antenaren matxura; gainera, gure antena nagusia da, bertatik hedatzen da eta Goiena telebistako seinalea Debagoieneko herri guztietara. Muruko antenarena konpondu, beste kokaleku batzuetan ditugun antenak egokitzen ari gara -Belarren eta San Migelen-.

Kanpoko ekitaldi bereziak, jaiak... Goiena telebistaren marka dira.

San Juan bezpera izan zen Goienarentzako egun garrantzitsu bat; egun hartan, estreinakoz eskaini ahal izan genuen zuzenean Arrasateko plazatik San Juan bezperako jaiak. 4G teknologia erabilita lortu genuen zuzenean eskaintzea; teknologia berriek asko erraztu dizkigute telebista egiteko moduak. Herri ekimenetik sortuta ekitaldi, jai esanguratsuenetan egon eta zuzenean emateko ahalegina egin nahi dugu aurrerantzean. Esaterako, hil honen 21ean, Bergarako moda desfilea eskainiko dugu zuzenean.

Telebistako eskaintza handiari zelan eusten dio euskarazko telebista lokal batek?

Lan asko eginez eta gure indarguneak balioan jarritz. Gurea herri ekimenez sortutako telebista da, erakundeei eta herritarrei lotua; komunitatearekin batera ikus-entzunezkoak sortu eta gaur egun teknologia eskaintzen dituen baliabidez zabaltzeko bokazioa duena.



Bedelkarko hainbat merkatarik eta Sabino Azkarate zinegotziak aurkeztu zuten aurtengo erakustaldia. JOKIN BEREZIARTUA

Komertzio txikiaren moda erakustaldi handia

Bedelkarrek eta Udalak, elkarlanean, udazkeneko joerak ikusteko moda desfilea antolatu dute urriaren 21erako eta sarrerak hilaren 17an jarriko dira salgai Interneten eta udaletxeko sarreran. "Bergaran bizi eta erosi nahi dugu", diote antolatzaileek

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergara Bizi egitasmoaren barruan, moda erakustaldia antolatu dute Bedelkarrek eta Udalak urriaren 21erako; frontoian izango da, 22:00etan. Erakustaldian, 100 herritar inguru igoko dira pilotalekuan egokituko duten agertoki gainera eta 25 dendak hartuko dute parte, guztira: hamabi arropa dendak, hiru oinetako dendak, hiru estetika zentrok, umeen arropa denda bik, ile-apaindegi bik, optika zentro batek, lentzeria denda batek eta kirol denda batek.

2014an egin zen lehenengoz desfilea, San Martin plazan, eta ordutik hona desfile ezberdinak egin izan dira. Bedelkarko Ainhoa Garitanoren arabera, jende asko dago erakustaldi horren atzetik eta gaineratu du udazkenekoa dela, bere ustez, erakustaldi politena: "Udazkeneko eta neguko arropak eta osagarriak erakutsiko ditugu; jendea animatu gura dut etortzera. Nire ustez, politena da. Ikusi ahal

izango diren arropen dagokienez, sorpresa gehien eskaintzen dituen da udazkenekoa", gaineratu du. Desfilearen filosofia ere nabarmendu du Garitanok: "Bergaran bizi eta erosi nahi dugu".

Izan ere, desfileak helburu zehatzak ditu: saltokien produktu eta zerbitzuak jendaurrera ateratzea, udazkeneko eta neguko denboraldi berriko joerak erakustea, udalerrira dinamizazioa eta gastu-ihesa ekiditea: "Ekimen bateratua denez, herriko merkatarien arteko koherentsia handia lortzen da; eta herritarrengana arrakastaz hurbiltzea lortzen dugu, ekitaldiak duen harrera eta erantzunak itzelak direlako". Horixe bera nabarmendu zuen Ekonomia Sustat

25 DENDAK HARTUKO DUTE PARTE ETA 100 BAT HERRITAR IGOKO DIRA FRONTOIKO AGERTOKI GAINERA

penerako zinegotzi Sabino Azkaratek: "Urtero oso arrakastatsua izaten da. Herritarrak animatu gura ditugu parte har dezaten, azken joerak ikusteko aukera izango dugu eta".

Sarrerak urriaren 17an

Sarrerak urriaren 17an jarriko dituzte salgai, bost eurotan. Bi modu izango dira sarrerok eskuratzeko: Internetez, *Ticket.kutxabank.es* plataforman, edo udaletxeko sarreran, 18:00etatik 20:00etara. Elbarriek telefonoz erreserbatu ahalko dituzte sarrerak, 943 77 91 59 telefono zenbakira deituta. Izen-abizenak, nortasun agiria eta telefono zenbakia eman beharko dituzte eta egunean bertan frontoiko leihatilan eskuratuko ahalko dituzte sarrerak.

Goiena telebistan zuzenean

Aurtengo nobedadeetako bat izango da Goiena telebistan zuzenean ikusi ahalko dela moda erakustaldia, osorik.



Azken ukituak falta dira Alkabieta kaleko lanak amaitu daitezkeen. MONIKA BELASTEGI

Amaitzeaz dira Alkabieta kaleko errepidea zabaltzeko lanak

Errepidea irekitzeaz gain, urbanizazio-lan aipagarriak ere egin dira; adibidez, ur hornidura eta argiteria berria jartzea

J.B. BERGARA

Uztailaren 19an hasi ziren Alkabieta kalea berriro urbanizatzeko lanak. Bada, Udaleko Hirigintza Sailak aditzera eman duenez, lanei azken erremateak falta zaizkie eta datozen egunotan amaituzat emango dira. Auto bakarra pasa zitekeen lekuan, bi metroko espaloia eta errepidea sortu dituzte. Asfaltos y Construcciones Morga SL enpresako langileak ari bertan lanean eta hasierako aurrekontuan ez da aldaketarik izan obrak aurrera egin bitartean. Hortaz, 67.338 euro gastatu ditu Udalak.

Errepidea ireki eta bertako zirkulazioa errazteaz gain, aprobetxatu dute ur hornidura instalazio eta lotura berriak jartzeko; eta argiteria berria jarri eta zegoena berritzeko. Hau da, errepideko bihurtzea zabaldu egin dute eta, horrez gain, Alkabieta kaleko 3. eta 5. zenba-

kietako lorategian zeuden lau farolen makuluak ordezkatu egin dituzte; horiek kendu eta Alkabieta kalean dauden gainontzeko farolen modelo berekoak jarri dituzte. Izan ere, orain arteko argi-puntuak led motakoarekin ordezkatzeko ere badihardute bertan, Udala herriko argiteria aldatzeko garrantzen ari den planaren barruan. Obrak epe barruan amaitu edo egun batzuk aurreratuko dira.

Markesina zaharrak kentzea

Bestalde, Elorregi eta Buruñao auzoetako autobus markesina zaharrak kendu berri ditu Sasoi Eraikuntzak SL enpresak. 2017ko maiatzean esleitu zen obra, baina, amiantoaren presentziatik, esku-hartzea atzeratu egin da; Jaurlaritzako Osalan erakundearekin batera egin behar izan dute. Lanek 10.928 euroko aurrekontua izan dute.

Nafarroa Oinez-era autobusean joateko txartelak salgai daude

Urriaren 15ean egingo da aurtur Nafarroa Oinez festa, Lesakan. Debagunek autobusa antolatu du eta txartelak salgai egongo dira Jardunen bulegoan urriaren 10era arte; txartel arruntaren prezioa hamabi euro da eta bazkideendako, hamar euro. 09:00etan irtengo dira, Bergarako autobus geltokitik, eta Lesakatik 19:00etan irtengo da autobusa.

Osasun integralaren gaineko hitzaldia hilaren 6an Irizarren

Anamkaral Osasun Integrala Fundazioak *Zergatik da Osasun Integrala horren garrantzitsua zure bizitzan?* izeneko hitzaldia antolatu du urriaren 6rako, Irizar jauregian (19:00). Fundazio-ko presidente Ana Maria Lopez Llana izango da hizlaria eta osasuntsuago egoteko aholku praktikoak emango ditu ordu-bete inguru iraungo duen saioan.

Aske geratu da Gaztelu, Bergarako azken preso

Telesforo Monzonek 1937an ihes egin zuenetik, beti egon izan da euskal preso edo iheslariren bat Bergaran, Gaztelu askatu duten arte; Ortega Lararen bahiketan –ETAK egindako luzeena– parte hartzeagatik atxilotu zuten bergararra, 1997ko uztailean

Jokin Bereziartua BERGARA

20 urte Espainiako espetxe ezberdinetan preso egon ostean, eguaztenean geratu zen aske Jose Migel Gaztelu euskal preso bergararra. Eguaztenean Algecirasko Botafuego espetxetik 09:15 aldera irten zenerako, senideak eta lagunak zituen zain Gazteluk. Bergarako Sortuk egun "oso pozgarria" dela uste du: "1937an Telesforo Monzonek ihes egin zuenetik Bergaran beti izan dugu preso edo iheslari politikoren bat. Gaztelu aske geratu ostean Bergaran ez dugu preso edo iheslaririk. Orain, errealtate hori Euskal Herri osora hedatu beharra dago".

"Egun historikoa"

Algecirasera joan zirenek "oso modu berezian" bizi izan zuten Gaztelu espetxetik irteten ikusi zuten unea. Bertan zegoen, besteak beste, 2008tik 2010era preso egon zen Aitor Arantzabal bergararra: "Oso hunkigarria izan da. Alde batetik, gogorra da lagunak eta kideak barruan uztea baina, bestetik, Gaztelu irteten ikustea ez sinistekoa izan da. Besarkadak, musuak... oso hunkituta zegoen. Espetxera sartu gara hiru edo lau lagun; burura etorri zaizkit espetxean bizitako esperientzia eta irteterakoan ze sentimendu nahasmen den. Intentsitate handiko momentua da". Gaztelu aske geratu ostean Bergaran euskal presorik eta iheslaririk ez dagoela-eta, urriaren 4koa "egun historikoa" dela dio Arantzabalek. "Uste dut bergarar gehienak poztuko direla Gaztelu askatu dutela enteratzerakoan", gehitu zuen Arantzabalek Algecirasetik Bergarara bidean zetorrela.

Gazteluren askatasunaren alde lanean aritu den Gaztelu Gure Artera ekimena ere goraipatu du Arantzabalek: "Lan handia egin dugu eta azkenean heldu da zorioneko eguna. Ezin da ahaz-



Jose Migel Gaztelu bere argazkia Arrano tabernatik kentzen, eguazten gauean. SORTU

tu Euskal Herrian oraindik euskal preso eta iheslari politikoko mordoia daudela. Lanean jarraitu beharko dugu behin betiko espetxeak hustu ditzagun".

Gaztelu 22:00 inguruan heldu zen Bergarara eta ordurako hainbat eta hainbat herritar zituen zain. Arrano tabernan bere argazkia kendu zuen Bergarako azken euskal preso izan denak.

Ortega Lara bahitzeagatik preso

Jose Antonio Ortega Lara espetxe funtzionarioa bahitzeagatik atxilotu zuten Gaztelu 1997ko

uztailean. Arrasateko tailer bateko zuloan izan zuen gatibu ETAK 532 egunez, 1996 eta 1997 artean. ETAK inoiz egin duen bahiketarik luzeena izan zen. Guardia Zibilak askatu zuen Ortega Lara, 1997ko uztailean leian eta ondoren atxilotu zituzten Gaztelu bera, Jose Luis Erostegi *Eltzikorta* antzularra, eta Xabier Usandizaga eta Xabier Ugarte oñatiarrak eta Josu Uribeberria arrasatearra. Azken hau hilda dago. Bi oñatiarrak eta antzularra kartzelan daude oraindik.



NIRE USTEZ

MIGUEL LAZPIUR

Balioak ere zaindu behar dira

Gure herrialdearen egoera ekonomikoa bideratzen ari gara; euskal ogasunen diru-bilketak positiboak izaten ari dira urteko azken hilabeteotan, adierazle gehienek suspertze-egoera islatzen dute, eta krisialdia atzean geratu dela pentsatzera garamatza horrek. Edozelan ere, enpresa batzuek oraindik ez dute egoera gaititu eta zailtasun handiekin dabilta, bai enpresak, bai horien mende dauden familiak ere. Alde batetik, gazteen langabezia tasa oso handia da; gainera, gazteoi galdetuz gero, lan-merkatua eta enplegua dira euren kezka nagusietako bat –baita Europako gazteen kezka ere–. Enpresariok ondo dakigu eskulan trebatu egokia izatea zein zaila den erronkei aurre egiteko, ez daukagu eskulan trebatu nahikorik gure beharrak asetzeko; gazte trebatuak, ikuspuntu teknikitik eta jarrera aldetik. Orain dela gutxi, komunikabideetan eztabaida izan zen gure unibertsitateen kalitate-mailaren gainean, eta unibertsitateak eurak ere kezu dira iristen zaizkien ikasleen mailarekin, haien balio-defizitarekin; adibidez, jarrerarekin. Gizarte honen ongizate mailari eusteko oinarritzak dena huts egiten ari da; identifikatu egin behar da eta irtenbidea topatu behar zaio ahal den lasterren.

Argiteria berritzeko lanak urrian amaitzea espero dute

Bergara argitsuago baten bila, aurrera doaz herriko 751 argi-puntutan argiteria berria jartzeko lanak. "Obren exekuzioa atzeratu egin da materiala berandu jaso delako. Joan den aste amaieran hasi ziren luminaria berria jartzeko eta uste dugu hurrengo bi asteak ere beharko direla", adierazi du Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi Lander Arregik. 751 argi-puntu izango dira aldatuko direnak, horietatik 496 unitatetan luminaria aldatu egingo da eta gainerako 255 puntuetan %80ko energia-aurreztea eskaintzen duten led sistema jarriko dute. Horrez gain, beste 341 argi-puntu aldatzeko lanak ere esleitu ditu Udalak.

Hizkuntza taldeetan izena emateko azken eguna da gaur

Bergaran atzerriko hizkuntzak ikasten ari direnei ikasketa prozesua errazteko asmoz, hizkuntza taldeak eratzeko proposamena egin du Udalak. Hizkuntza praktikatzeko aukera ematea da helburu nagusia; gaur da izena emateko azken eguna: udaletxeko Kultura edo Hezkuntza zerbitzuetan, 943 77 91 59 telefono zenbakira deituta, narbaiza@bergara.eus helbidera idatzita edo Udalaren webgunean. Taldeetan sartzeko ez da probarik egingo, izena ematen duen edozeinek izango du parte hartzeko aukera, hizkuntza maila edozein dela. Taldeak gehienez zazpi lagun eta gutxienez lau lagun osatuta egongo dira.

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Deba ibaia auzolanean garbitzeko deia biharko

Erreka Garbiketarako Batzordeak bosgarren urtez antolatu du Erreka Eguna eta gaur gauean egingo duten bileran zehaztuko dute erreka zein tarte garbitu; izen-emateak behera egin duen arren ia 200 lagun elkartuko dira biharko auzolanean, ume zein heldu

Jokin Bereziartua BERGARA

Aurten, bosgarren urtez, erreka garbitzeko auzolana antolatu du Erreka Garbiketarako Batzordeak Udalarekin elkarlanean. Bihar, zapatua, egingo dute; 08:30ean elkartuko dira. Antolatzaileen arabera, aurten izen-ematea beste urte batzuetan baino ahulago joan da, baina, hori hala izanda ere, ia 200 lagun elkartuko dira bihar. Bailaran erreka garbitzeko jende gehien elkartzen duen herria da Bergara.

Debak hobera nabarmen

Aurreko edizio batzuetan erreka garbitzen aritutakoa da Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi Lander Arregi: "Ukaezina da Deba ibaiaren egoerak nabarmen egin duela hobera azken urteotan. Adin bat dugunok gogoratzen dugu nola zegoen ibaia, esaterako, San Antonio auzoan. Ia egunero kolore ezberdina zuen urak, oso kutsatuta zegoen. Gaur egun, baina, ez dauka zerikusirik". Dioenez, oso egun polita izaten da Erreka Eguna: "Iazko komentarioa izan zen nabaritzen dela azken urteetan egin den lana, gero eta gutxiago dagoela garbitzeko. Gizartea kontzientziatu egin da; orokorrean, jendeak ez du zaborrik botatzen errekarara".



Hiru herritar erreka garbitzeko auzolanean, 2015ean. GOIENA

Gaur gaueko bileran erabakiko dute erreka zein zati garbituko dituzten. Iaz, adibidez, zaborra biltzeko edukiontzia seminarioan eta Labegaraieta jarri zituzten. "Udalaren ikuspegitik oso interesgarria da ekimena, eta horregatik jartzen ditugu gure eskuetan dauden baliabideak. Herritarrei dei egiten diegu parte har dezaten, egun polita izaten da eta".

Azken gertakaria, proba bat

Hala ere, iraileko ohiko osoko bilkuran, Irabazik Deba ibaian

izandako "bi isurketa" aipatu, eta horien gaineko azalpenak eskatu zituen.

Hala ere, Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi Lander Arregiren arabera, orduan gertatutakoa ez zen isurketa izan: "Ura agintziak baimendutako proba bat izan zen; proba ez dakit zertarako zen, zehatz-mehatz, baina kaltegarria ez zen tindu bat aktibatzen. Gu ere larritu ginen eta hainbat dei jaso genituen, bisualki inpaktantea zelako. Hala ere, gertatu zenari ezin zaio isurketa deitu".

Espoloiko jaiak gaur eta bihar, adin eta gustu guztiak asetzeko

Gaur, lehiaketak izango dira nagusi arratsaldetik aurrera, eta biharko, umeek zein helduek gozatzeko egitaraua dago

J.B. BERGARA

Espoloiko jaiak ospatuko dituzte gaur eta bihar. Gaur, frontenis eta pilota txapelketak (17:30), patata-tortilla lehiaketa (20:00) eta mus txapelketa (22:30) izango dira; mus txapelketa parte hartzeko 22:00etan eman behar da izena eta bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko du.

Bihar egun osorako egitaraua izango dute: Espolotxoren jaiatsiera (12:00), umeendako jolasak (12:15), Diablues & Bluecifer-en kontzertua (13:30), auzo bazkaria (14:30), helduendako jolasak (16:30),

triki-poteoa (19:00), Mugi panderoaren kontzertua (21:30) eta DJak Hamaika tabernan (00:00).

Patata-tortilla lehiaketa

Gaur egingo da patata-tortilla lehiaketa: 20:00etarako aurkeztu beharko dira parte hartzaileak; jai batzordeak jarriko ditu oinarriko jaiak eta sutegiak, baina gainerako guztia parte hartzaileek eraman beharko dute; jana lehiaketan bertan prestatu beharko da; eta epaimahaiaren erabakiaren ondoren, bertaratutakoen artean banatuko dira tortillak.

Pol-Poleko beteranoek eta gazteek irteerak dituzte urrian zehar

Pol-Pol mendizale taldeko beteranoek urriaren 12tik 15era irteera egingo dute Serrania De Cuenca ezagutzeko. Gaur da izena emateko azken eguna; irteera urriaren 12an izango da, frontoitik, 06:00etan. Irteeran parte hartzeko 200 euro ordaindu beharko da. Gazteen taldeak, bestalde, Usategieta, Otxola, Gorostieta eta Belate artean ibiliko dira urriaren 22an; 32 kilometro inguruko irteera izango da, egun osorako plana. 07:00etan irtengo dira, Ibargaraiko autobus geltokitik, eta 18:00 aldera itzuliko dira. Urriaren 19a baino lehen eman behar da izena. Informazio gehiagorako: 680 35 78 93 (Xabier).

OHARRAK

1967an jaiotakoak

Azaroaren 11n elkartuko dira Tartufo jatetxean bazkaltzeko. Izena eman behar da urriaren 27a baino lehen, 70 euroko ordainketa eginda kontu korrante zenbaki honetan: ES0230350009110091151458 (Laboral Kutxa). "Animatu, 50 urte ez dira-eta urtero betetzen", adierazi dute.

Alvarezek hitzaldia

Goienagusi elkartearen eskutik, Juanjo Alvarezek hitzaldia eskainiko du urriaren 9an udaletxeko osoko bilkuren aretoan (10:00). *El futuro de Europa y las negociaciones del Brexit* du izenburu saioak; edonork hartu ahaliko du parte.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

BERGARA

MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Aitor Olea, Santa Marina parrokiako organoan jarrita, iazko zikloko emanaldietako batean. GOIENA

Organo Erromantikoaren Zikloa bueltan da herrian

Hemezortzigarrenez, Bergaran, Azkoitian eta Azpeitian puntako musikarien emanaldiak izango dira asteburu honetan hasi eta hil bukaerara arte. Santa Marina parrokiako lehen kontzertuan, Bergarako Orfeoia eta Aitor Olea izango dira

Maite Txintxurreta BERGARA

Organo Erromantikoaren Nazioarteko 18. Zikloaren baitan, hiru hitzordu izango dira Bergarako Santa Maria parrokiaren urriaren 7an, 14an eta 21ean.

Begararrak protagonista bihar

Bihar, zapatua, izango da Bergarako lehendabiziko kontzertua (20:00etan, doan). Organoan Aitor Olea izango da, eta, harekin batera, Bergarako Orfeoia. Haize-metal taldearen laguntzarekin borobilduko dute emanaldia.

"Organoa musika tresna bakarlarri gisa entzuteaz gain, abesbatzari akonpainamenduan ere arituko da. Haize-metal taldea ere arituko da gurekin; hala, tronpetak, tronboiak eta tuba ere entzungo dira hainbat musika lanetan", azaldu du Oleak.

Biharko emanaldiak hiru atal izango ditu. Lehen zatian, Karl Jenkinsen *Stabat Mater* obratik bi mugimendu interpretatuko dituzte orfeoiarekin eta organoarekin. Bigarren, Maurice

Begarako kontzertuak

Kontzertu guztiak 20:00etan izango dira Santa Marina parrokiaren.

• **Urriak 7:** Bergarako Orfeoia eta Aitor Olea.

• **Urriak 14** Bi zati izango dituen kontzertua:

- 1. zatia: Bernhard Marx
- 2. zatia: Gorka Zabaleta (txistua), Jose Javier Lera (perkusioa) eta Fernando Gonzalo (organoa).

• **Urriak 21** Ainhoa Zubillaga mezoa eta Loreto Fernandez organo-jotzailea.

Durufel-organorako bakarlarientzat idatzitako *Suite op.5* entzuteko aukera izango da, *Prelude*, *Sicilienne* eta *Toccata* zatiez osatua. Bukatzeko, John Rutterrek idatzitako bi ereserki eta *Gloria* entzuteko aukera izango da, abesbatzarekin, haize-metal taldearekin eta organoarekin.

Datozenak

Urriaren 14an Bernhard Marx organo-jotzaile prestigiotsua izango da Santa Marinaran. Alemaniarrak Friburgoko Johanneskirche elizako organista da, eta ibilbide musikal oparoa dauka.

Marxena kontzertuaren lehen zatia izango da. Hala, bigarrenak Gorka Zabaleta txistu-jotzailea, Jose Javier Lera perkusio-jotzailea eta Fernando Gonzalo organo-jotzailea batuko ditu.

Begarako azken emanaldian, berriz, Ainhoa Zubillaga mezoaren ahotsaren eta Loreto Fernandez organo-jotzailearen musikaren konbinazioaz gozatu dute herritarrek.



IMANOL SORIANO

Tailerrak, Kultura Kalera barruan

Herriko taldeen eskutik, askotariko tailerrak egin zituzten domeka goizean San Martin plazan: musika tresnak, egurra lantzeko tresnak –argazkian, gaztetoak, buztinezko irudiak eskuz zelan egiten diren ikusten–, orratz lanak... ikusi eta probatzeko aukera izan zuten umeez eta gaztetoek.



Alizia, aurkezpenean. GOIENA

Astlehenean jarriko dituzte 'Alizia'-rako sarrerak salgai

Azaroaren 11n eta 12an izango dira *Alizia musikala*-ren estreinaldiko emanaldiak Bergaran; egun bietan, 18:30ean. Hala, urriaren 9an, astlehena, 17:30etik aurrera eskuratu ahal izango dira sarrerak, 13-16 euro bitarteko prezioan. Internetez www.ticket.kutxabank.es edo Musika Eskolan erosi ahal izango dira. Musika Eskolan hilaren 9an, 10ean eta 11n jarriko dituzte salgai, 17:30etik 20:00etara, harriaren bertan. Urriaren 12tik aurrera, berriz, eskuragarri gelditzen diren sarrera guztiak Internetez salduko dituzte. Aipatu bezala, oraingoan, bi emanaldi egingo dituzte, baina antolatzaileek ez dute baztertu beste bat egitea.



Gurrutxaga eta Agirretxea. BADOK

Jon Basaguren eta Jon Gurrutxaga & Keu Agirretxea gaur

Egubakoitzak Kartzelan ekimenaren barruan, kontzertua izango da gaur kartzela zaharrean, 22:00etan hasita.

Gaua hasteko, Jon Basaguren emanaldia izango da; Izaki Gardenak taldearen sortzaileak folk alternatibo doinuekin jantzitako kantuak eskainiko ditu, bakarka. Eta ondoren, Keu Agirretxea eta Jon Gurrutxaga igoiko dira taula gainera.

Apirilean, *Izanak* deituriko kantua argitaratu zuten, bi bakarlarrien arteko elkarlanaren fruitu. Harrezkero, bikote formatuan eskaintzen dituzte emanaldiak. Abesti batzuk bakarka abestuko dituzte eta beste batzuk bien artean interpretatuko dituzte.



UDAZKEN-NEGUKO MODA ERAKUSTALDIA

Urriaren 21ean,
22:00etan, Bergarako
Udal Pilotalekuan

PARTE HARTZAILEAK:

ALGA
lurrindegia
Ibargarai hiribidea 10
943 76 00 85

AMPARO
Ile apaindegia
Boni Laskurain pasealekua
943 76 56 05

AMUA
Jantzi denda
Ibargarai 2
943 54 00 68

ANEZKA
Jantzi denda
Espoloia 8
943 76 59 25

ANNIKA
Jantzi denda
Herrilagunak 6
943 25 31 08

AJ
Osagarriak
Ibargarai 34
943 76 13 23

IZARRA
Ile-apaindegia
San Pedro Kalea 23
943 76 29 72

EMBALAN3
Enbalajeak
Larramendi Industrialdea
943 82 94 83

GALARRETA
Oinetako denda
Irizar pasealekua 2
943 76 12 39

BLACK3 BORDATUAK
Bordatuak
Amillaga 5, 6. pab
943 76 32 68

IGARO
Lurrindegia
Barrenkalea 35
943 76 17 27

IGARZA
Lentzeria
Domingo Irala 5
943 76 24 88

LA BARATA
Jantzi denda
Bidekurutzeta 6
943 05 04 11

LILURA
Estetika zentroa
Bidekurutzeta 7, 1A
943 76 31 71

XARMA
Lentzeria Mertzeria
Matxiategi 1
943 50 48 34

JOKA
Jantzi denda
Domingo Irala kalea 5 behea
943 53 46 16

JOLAS
Jantzi denda
Barrenkalea 27
943 76 46 48

KB PHOTOESTUDIO
Argazki denda
Barrenkalea 35
943 76 24 12

NINIKA
Loradenda
Ramon Maria Lili kalea 8
943 76 10 01

MIRARI
jantzi denda
Ibargarai 14
943 76 23 93

MUJIKA SASTRERIA
Jantzi denda
Barrenkalea 1
943 76 29 91

LONBIDE
Oinetako denda
Bidekurutzeta kalea 5
943 76 10 57

MAKA
Oinetako denda
Ibargarai hiribidea 8
943 08 28 68

MANSO
Optika
Irizar pasealekua 2
943 76 27 86

SUBIJAI
Umeendako jantzi denda
Irizar pasealekua 1
943 76 42 41

XAMARTIN
Kirol denda
Ibargarai 20, behea
943 76 59 29

XUXU
Jantzi denda
San Pedro 14 behea
943 76 07 55

ZUBIKUA
Jantzi denda
Barrenkalea 24
943 76 10 16

ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK:



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

EKONOMIAZEN GARAPEN ETA
LEHAKORTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

Parte-hartze prozesua indartzeko konpromisoa

Martitzeneko ohiko osoko bilkuran, parte-hartze prozesua bultzatzeko konpromiso politikoa hartu zuten udal ordezkariak. Eta Udalak egin beharreko Plan Ekonomiko Finantzarioa urte bukaerarako indar gabe geratzeko dela azaldu zuten

Maidar Arregi ANTZUOLA

Parte-hartze prozesuaren gainean egindako dokumentuari konpromiso politikoa adierazi zioten martitzeneko osoko bilkuran. Hala, onartuta geratu da aurrez landutako dokumen-

tua. "Uda aurretik parte-hartze prozesuaren gaineko lanketa egin genuen eta gura duguna da konpromiso politikoa adieraztea", argitu zuen Ion Iturbe alkateordeak. "Orain, eguna jarri behar dugu guztiok elkar-

tu eta talde eragilea martxan jartzeko. Izenak proposatzea falta zaigu". "Izena proposatzeko garaian, modua ere aztertu beharko dugu eta gurako genduke talde bakoitzeko bat izendatzea", argitu zuen EAJko zinegotzi Luis Javier Telleriak.

Hala, urrian bertan batzartzeko eta izenak adosteko asmoa adierazi zuten udal ordezkariak.



Martitzeneko osoko bilkuran, bozketaren une bat. MAIDER ARREGI

Plan ekonomiko finantzarioa

Plan ekonomiko finantzarioa egin behar izan du Antzuolako Udalak. "Gastu araua ez bete-zearen ondorioa" izan dela azaldu zuen Eider Esnaola idazkariak. 2017ko aurre-likidazioarekin, ordea, gastu araua bete egingo dela azaldu zuen, eta, ondorioz, ez dela Plan Ekonomikoaren beharrik izango. "2016an ez genuen gastu araua bete. Gastu araua Espainiak gainerako erakundeoi jarri digun betebeharrak bat da, dirua ondo kudea dezagun. Zenbateraino



Kataluniari babesa adierazteko mezuak. MAIDER ARREGI

Kataluniarendako babes mezuak

Osoko bilkura egiten ari ziren une berean -19:00-, herritar talde batek deituta elkarretaratzea egin zuten Herriko Plazan, Kataluniari babesa adierazteko. Herritar bakoitzak gura zuen mezua idatzita utzi zuten hainbat karteletan.

gasta genezakeen kontrolatzea ei du helburu, erakundeek kiebrarik jo ez dezaten; zenbateraino zorpetu gaitezkeen, alegia. Besteak beste, bi ekitaldi ekonomikoren arteko diru gorabeherak hartzen ditu aintzat, eta, hor alde handia badago, nekez betetzen da. 2015eko eta 2016ko ekitaldi ekonomikoak konparatu ditu gure kasuan, eta, alde dezente dagoenez, eskatu digute datozen urteetarako Plan Ekonomiko Finantzarioa

egiteko. Hau da: aurreikustea datozen urteetan zein izango den Antzuolako Udalaren bilakaera ekonomikoa. Aurreikusen den hori loteslea da, eta bete beharrekoa. Gure kasuan, baina, aurten bertan beteko dugu gastu-araua -2016ko eta 2017ko ekitaldiak konparatuta-, eta, hortaz, Plan Ekonomiko Finantzarioa indargabetu egingo da urte amaieran, eta ez dugu bete beharrik izango", argitu du Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak.

Komedia sentimentalaz barre egiteko aukera, Torresoroan

'Adarretatik zintzilik' antzezlan dibertigarriaz gozatzeko aukera dago domekan Torresoroa aretoan

M.A. ANTZUOLA

Ane Zabala eta Galder Perez aktoreek antzeztutako *Adarretatik zintzilik* obraz gozatzeko aukera egongo da Antzuolako Torresoroa aretoan, domekan, 18:30ean hasita.

Gustura barre egiteko

Adarretatik zintzilik komedia bat da. Laugarren paretarik gabeko komedia sentimental eta kronika nostalgikoa dela diote egileek. "Ziria noraino sartu diguten konturatzeko berrogei urte bete behar izan dute ba-



Perez eta Zabala aktoreak. ARIZKUNENEA

tzuek", diote protagonistek. 40 urte dituzten bi lagunaren krisia du hizpide obrak, umore klabeak; 40 urtetik gorako bi lagun dira protagonistak -Ane Zabala eta Galder Perez-.

Honela dio antzezlanaren sinopsiak: "Bikoterik ez, seme-alabarik ez, autorik ez, hipotekarik ez... Mundu honetakoak dira ala adarretatik zintzilik bizi dira? Ume zirela, 1980ko hamarkada Euskal Herrian bete-bete jasan zuten. 1990ko hamarkadan gaztetu egin ziren; 2.000 efektua-ri aurre egitea ere lortu zuten. Jogurt-hari batekin lotuta lagunekin berba egiten zuten; gaur egun sare sozialetan galduta daudela diote".

Hala, barre egiteko aukera aparta domeka arratsaldean Torresoroa aretoan arratsaldeko sei eta erdietatik aurrera.



IMANOL SORIANO

Nagusien eskubideen alde

Pertsona nagusien bizi baldintzak gero eta kaskarragoak direla-eta pentsioen gaineko ardura azaldu dute Antzuolan bildu ziren herritarrek. Izan ere, Landatxoep erretiratu elkarteak deituta, elkarretaratzea egin zuten 60 bat herritarrek, herriko plazan. "Nagusien eskubideak etengabe ari dira urratzen!". Hori salatzeke deia izan zen, hain zuzen ere.

"Sekulako giroa dago taldean; hori aldekoa da"

IKER AGIRREGABIRIA ATEZAINA

Futbolari urte asko eskaini dio Iker Agirregabiriak. Udan erretiroa hartzeaz zela, antzuolarren deia ezin uko egin, eta berriro zutoinen artean da arrasatearra

Maidar Arregi ANTZUOLA

Eskarmentudun atezaina da Iker Agirregabiria. UDAn erretiroa hartzeaz zela, futbolaren harrak koska egin eta Antzuolako taldeak eskaini dion aukerari ezin izan dio ezetik esan. "Gogotsu eta ilusioz" abiatu du denboraldia arrasatearrak.

Urte mordoia futbolari lotuta. Zein balorazio egiten duzu?

Bai; futbola da gehien gustatzen zaidana eta orain arteko balorazioa oso positiboa da. Lagun asko egin ditut, gainera, eta, alde horretatik, oso pozik, futbolak asko eman dit eta.

UDAko lehen taldean urte asko egin dituzu; eskarmentua eta esperientzia duzu.

Bai; zazpi urte egin ditut lehen taldean. Iaz izan zen UDAn egin nuen azken denboraldia.

Erretiratzeko asmoa zenuen, baina nolatan erabaki duzu futboleant jarraitzea?

Aretxabaletako taldea esijentzia handiko taldea da; entrenamendu ugari eta konpromiso maila handia eskatzen duen taldea da. Niretzako denbora luzeagoa gura nuen, eta horregatik erabaki nuen taldea uztea. Baina orduan jaso nuen Antzuolako futbol taldearen deia.

Oxel Apraizek eta Markel Letek, beraz, eragina izan dute zure erabakian?

Bai. Antzuolan, gainera, beste maila bateko konpromisoa daukat eta bi entrenamendu egiten ditugu astean. Askatasun handiagoa daukat. Horrek lagunduta eta lagunek behin eta berriro eskatzeagatik, beste urtebetez jarraitzeko erabakia hartu dut. **Antzuolak, gainera, atezain beharra zeukan?**

Bai, atezain bakarra zeukaten, 21 urteko gazte bat; eta bigarren baten bila zebiltzan, edozer gertatzen bazen ere ordezkia edukitzeko.

Derbi askoko denboraldia dator aurretik. Ondo hasi zenuten...



Agirregabiria, Aloñaren aurkako partiduan. IMANOL SORIANO

"DERBI ASKOKO DENBORALDIA DA ETA POZGARRIA DA JENDE EZAGUNAREKIN JOKATZEA"

Tolosaren aurkako partidua irabazteak sekulako poztasuna ekarri zigun. Aloñaren eta Bergararen aurka galdu ostean, oinak berriro lurrean jarri ditugula esango nuke. Hasieratik genekien denboraldi gogorra izango zela kategoria berri honetan. Taldea ondo egon da, baina, esan bezala, bagenekien zaila izango zela.

Aloñan, Bergaran, ezagunak izango dituzu... Aloñako entrenatzaile Gotzon Urtzelai ondo ezagutuko duzu, ezta?

Harekin partidu asko jokatuakoa naiz; entrenatzaile ere izan dut... derbi askoko denboraldia da, eta, egia esan, eskertzekoa da jende ezagunarekin jokatzeko. **Nolako taldea aurkitu duzu Antzuolan?**

Banekien oso talde herrikoia zela, jende gazte osatua. Sekulako giroa dago aldageletan, eta

hori aldekoa da, zalantza gabe, taldearendako. Pertsonalki, oso talde indartsua eta giro handia duena topatu dut, bai. Igartzen da taldean urte askoan dihardutenak kuadrillakoak direla. Jokatzeko sekulako gogoa duen taldea da. Oso motibatuta dago; gure gabeziak baditugu, baina talde-lanetik eta talde indarretik ateratzen ditugu gure aukerak. **Zelan dator denboraldia?**

Mailaz igo izana igarri egingo dugu. Edozein akats ez digute barkatuko, ordea. Denboraldi gogorra izango da. Atzean barkatzen dugun bakoitzean garesti ordaintzen da kategoria honetan. Aukera guztiak ondo aprobetxatu beharko ditugu. Eztalan jokatzeko gure aldekoa ere bada. Hartu dudak erabakiarekin oso pozik nago. Zapatuan etxean dugu Mondraren aurkako derbia, 16:30ean... ea zorterik dugun!

Pilotan ere oso abila zinen...

Gustoko nuen; biak uztartu nituen. Baina 18 urterekin aukeraketa egin behar izan nuen. Futboleant hobeto moldatzen nintzen une hartan, eta, aukera gehiago ikusten nuenez, futbolaren alde egin nuen.



NIRE USTEZ

AITZOL ITURBE AITZOLITURBE@GMAIL.COM

Visca Catalunya Iliure!

EITBko kazetariak aztoratu dituzten irudiak sarri bizi izan ditugu Euskal Herrian; asko, Ertzaintzaren partetik: mobilizazio baketsuen aurkako kargak, injustiziei aurre egiteko herri harresien aurkako jipoiak, boto paperak ezkututzen aritu beharra, porrazo eta palizak, kartelak ipintzearen identifikazioak, herritarrek hautaturiko ordezkarien legez kanporatzea, komunikabideen itxiera... Eta EITB isil-isilik egon da.

Kataluniarren garaipenarekiko Euskal Herriko abertzale edota independentisten gehiengoaren pozaren aurrean, Urkullu triste agertu da. Ez, Urkullu, ez dago alde biko biderik, ez da PPren eta Ciudadanosen kontua, ez PSOEna, Espainiako Estatuak da herrien autodeterminazio eskubidea ez gauzatzeko bermea -bere ejertzittoa barne, konstituzioak dioen bezala-. Eta zuk ondo dakizu hori, eror ez dadin makulu lanetan ari baitzara.

Azken asteetan prozesua demokraziaren aldeko dimentsioan handitu bada ere, ez dezagun irakurketa okerririk egin. Independentismoa izan da autodeterminazio eskubidea gauzatzeko motorra.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiot Kataluniako herriari, erakutsitako duintasun, irmotasun, batasun eta diziplinagatik; justizia legediaren gainetik dagoen kontzientzia hedatzeagatik; Euskal Herria hunkitzeagatik; eta, batik bat, posible dela erakusteagatik. Zaila izango da aurrerantzeko bidea, baina, egunotan kazuela artean erakutsi dugun bezala, hor izango gaituzue, eta ea berandu baino lehen guk ere gaina hartzen dion fronte bat osatzen diogun estatuari.

Kakorraz ikastaroan izena emateko epea zabalik dago

Alaitz Jauregi antzuolarrak eskainiko du kakorraz ikastaroa. Besteak beste, tokillak egiteko aukera izango dute ikasleek. Izena emateko azken eguna urriaren 11 da, udaletxera deituta (943 76 62 46). Ikastaroa martitzenetik eskainiko da 18:30etik 20:00etara bitartean. Urriaren 17tik abenduaren 12ra arte. Prezioa 40,5 euro da.

Arrolako mendizaleak Oñati aldeko parajeetan ibiliko dira

Urriaren 8rako, domeka, antolatuko du Arrola Mendi Taldeak mendira irteera. Oraingo honetan, etxetik gertu egingo dute irteera. Izan ere, Oñatiko parajeetan barrena ibiliko dira: Arrikrutzen, Orkatzategin eta Araotz auzoan barrena. Aurrez izena eman dutenek -izen ematea itxita baitago- irteera 08:30ean Olanar etxetik izango dute.

MUJIKA HARATEGIA



*Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak*

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Bertsoekin eta margoekin, agur

Beste bi hitzordu daude aurtengo jaiak bukatzeko: zapatuan, 22:30ean, Zubikoa kiroldegian egingo den bertso saioa eta domeka goizean herrian zehar egingo den ageriko pintura lehiaketa. Hilaren 28an Anari eta Garoa etorriko dira gaztelekura

Oihana Elortza OÑATI

Herriko jai nagusietan urtero egoten da bertso saioa eta aurtengoa bihar, zapatua, egingo dute Zubikoa kiroldegian, 22:30ean. Beste behin, herriko Txinparta bertso eskolak hartu

du saio horren ardura eta eurek jarritako gaiei erantzun behar-ko diete bertsolariak. Sei arituko dira bertsoan; tartean, Maider Arregi eta Andoni Goitia oñatiarrak. Beste laurak hauek dira: Amets Arzallus, Unai Itu-

rriaga, Maialen Lujanbio eta Igor Elortza. Sarrerak Txokolateixian daude salgai, aurrez erosi gura izanez gero. Saioan zehar, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalerako sarrerak zozkatuko dituzte.

Pintura

Ageriko pintura lehiaketa ere urtero antolatzen dute San Migel jaien barruan. Aurten ere horrela egin dute. Domekan izango da lehiaketa hori. "09:00etan hasiko da. Parte-hartzaileek izena eman behar-ko dute, lehenengo, kultura etxean, eta gero, herriko edozein txokoren margolana egin ahal izango dute 14:00ak bitartean. Epaimahaiak erabakia hartuko du gero eta 14:30ean banatuko ditugu sariak", azaldu du Oñatiko Margo Taldeko Bixente Elgerok. "Nagusien eta umeen kategoriak egongo dira. Maila bietan oñatiar onenari ere emango zaio saria", gaineratu du Elgerok. Lanekin erakusketa zabalduko dute astelehenean kultura etxean eta urriaren 22ra arte egongo da ikusgai. Margo Taldeak azaroan hasiko du ikasturtea.

Aurten jende gutxiago

Jaien balorazioa eskatuta, giro onean gozatutako jaiak izan direla adierazi du Nerea Zubiak, Kultura zinegotziak: "Igarri da jende gutxiago ibili dela, baina ekitaldi guztietan egon da jendea. Berakatz-zopa lehiaketak, txorimaloen gerturatzeak eta parrokiako dantza ikuskizunak harrera ona izan dute. Musika ekitaldiak gustukoak izan dira. Beldur gabeko gunea erreferente bihurtu da eta ez da intzidentziarik egon. Bestalde, istripuaren tristura igarri da jaietan".



Eltziatik Foruen plazaraino joan ziren nagusien danborradan.



Dantzariak eta txantxikua.



Hamar bikote aurkeztu dira lehenengo berakatz-zopa lehiaketara.



Irrist egiten zuten gaztetxoek elkarren arteko kirol probetan.



Baserriar jantzita Herri Egunean.



350 lagun herri bazkarian.



Lazarragan jo du berriz bandak.



Ausart zezenaren aurrean.



Donald Trump eta emaztea ere ibili dira Oñatiko jaietan.



Txosnetako karpa gustukoa izan da. ARGAZKIAK: AITOR AGIRIANO



Erabiltzaileak Oñatiko geltokian, autobusaren zain. AMAIA TXINTXURRETA

Autobus zerbitzu berria, Oñatirendako kaltegarri

Lurraldebusen Debagoieneko zerbitzuan egindako aldaketek zuzenean eragin diete Oñatiko erabiltzaileei. Haiek eta Udala ez daude ados zerbitzu berriarekin. Udaleko ordezkariak astelehenean elkartuko dira Aldundiko Mugikortasun arduradunekin

Miren Arregi OÑATI

Astelehenetik, urriaren 2tik, indarrean da Lurraldebusen autobus linea eta ordutegi zerbitzu berria. Ibilbideak laburtu eta sinplifikatu egin dira eta aurrerantzean, Bergara-Eskoriatza linea izango da Debagoieneko ardatz nagusia. Horren osagarri, hiru linea egongo dira

Gainera, orain arte ibilbide zirkularra izan duten DG03 eta DG04 lineek ez dituzte hemendik aurrera orain arteko ibilbideak egingo. Linea zirkular horiek ibilbide luzekoak izan dira orain arte, alegia bi ordu eta erdiko iraupena zuten. Zerbitzu berriarekin, autobusek horren ibilbide luzeak ez egitea lehenetsi du aldundiak, besteak beste.

Ez da, baina, hori aldaketa bakarra. Izan ere, DG08 linea kendu egin da; alegia, Oñati-Bergara-Soraluze-Eibar linea. Aldaketa horiek guztiek eragin zuzena izango dute Oñatin. Orain arte Oñatitik Bergarara, Aretxabaletara eta Eskoriatzara eta,

alderantziz, zuzenean joateko aukera bazegoen ere, zerbitzu berriarekin, Elorregin autobus-aldaketa egitea ezinbestekoa izango dute.

Oñatiarren haserrea

Aldaketek haserrea eragin dute Oñatira joan edo handik irten gura duten erabiltzaileengan. "Egunero lanera joan behar dut Bergarara. Orain arte zuzenean joaten nintzen bertara eta ordutegi berriarekin aldaketa egin behar dut San Prudentzian. Hau lotsagarria da. Oñatiarrak hirugarren mailako hiritarrak gara", dio, haserre, Elorregin Bergarako autobusaren zain dagoen erabiltzaile batek. "Lehen ere albo batera utzita geunden

DG04 LINEA DA, ALDAKETAREN ONDOREN, OÑATITIK PASATUKO DEN LINEA URBANO BAKARRA

eta orain are utziago", gehitu du bigarren batek.

Udala ere ez dago ados

Aldaketen ondoren, DG04 linea da Oñatitik pasatzen den linea urbano bakarra; ordu erdian behingo maiztasuna izango du.

Hirigintza zinegotzi Irati Etxeberriak gogora ekarri du, gainera, urteko 220 egunetan Oñatitik Bergarako Gureak lantegira doan 18 pertsonako taldearen egoera. "Pertsona horietako batzuk, euren aniztasun funtzionala medio, ez dira gai Elorregin autobus aldaketa egiteko eta ordutegi berriak horretara behartzen ditu. Hori horrela, Udalak Gureak-era joateko autobus bat ipini du". Oñatitik lantegiraino joan-etorria egingo du horrek, egoera konpondu bitartean.

Udaleko ordezkariak astelehenean elkartuko dira Mugikortasun diputatu Marisol Garmendiarekin, egoerari ahalik eta irtenbide egokiena bilatzeko asmoz.

Sexu aholkularitza zerbitzua herritar guztiendako, gaurtik

Azken urteetan gazteei zuzenduta egon den sexu aholkularitza zerbitzua adin guztietara zabalduko da

M.A OÑATI

Gaur, egubakoitza, 16:30ean egingo da zerbitzu berriaren aurkezpena, Bidebarrieta 14 zenbakian. Orain arte gazteei zuzendutakoa izan bada, gaurtik aurrera, adin guztietara zuzendua izango da. "Zahar, heldu zein gazte, emakume, gizon, intersexual edo trans", adierazi dute arduradunek.

Zerbitzua jasotzeko hiru modu egongo dira. Horietako bi dira presentzialak eta hirugarrena birtuala. Arreta emateko, bestetik, bi toki izango dira. Orain artekoa bat -gaztelekuan- eta Bidebarrieta 14. zenbakian bestea. "Egun edo ordutegiagatik, bi horietako batera bertaratu ezin dutenek arreta birtuala jaso ahal izango dute, posta elektronikoz bidez", adierazi du Berdintasun zinegotzi Leire Zumaldek. Sare sozialetan ere izango du zerbitzuak bere tokitxo. Haren gorabeheren eta informazio interesgarriaren berri emango dute Interneten.

Zalantzak argitzeko

Zerbitzua nor bere zalantzak argitu edo guraso zein irakasle

gisa informazio edo aholkularitza jasotzeko bidea izango da. Egubakoitzero egongo da gaztelekuko zerbitzua zabalik 17:00etatik 18:45era bitartean eta egubakoitzero baita Bidebarrietakoa ere: azken hori, 19:00etatik 20:30era. Esan bezala, posta elektronikoz bidez ere argitu ahal izango dira zalantzak. Horretarako, erabiltzaileek [txantxiku.sexuaholkularitza@gmail.com](mailto:sexuaholkularitza@gmail.com) helbidera idatz dezakete.

Askotariko gaiak

Sexuaren inguruko edozein zalantza argitu ahal izango du herritarrak zerbitzu berrian. Esaterako, seme-alaben sexu-hezuntzaren gaineko aholkularitza jasoko da, antisorgailuei eta emergentziarako metodo desberdinei buruzko informazioa, identitate sexualen edo desiraren orientazioaren gaineko aholkuak, topaketa erotikoen inguruko zalantzak, praktika sexualak, banakako edo bikotearen gozamenak, menopausiak sortutako aldaketa eta gogo berriei erantzunak... Askotariko gaiak landuko dira gaur zabalduko den zerbitzu berrian.



NEREA ZUBIA

Aldakiño bidean, argiak

Herritarren eskaerei erantzuna emanaz, Udalak argiteria ipini du Aldakiño bidean. 2014an erabaki zuen Oñatiko Udalak Olakua eta San Martin auzoak lotuko zituen bidea egokitzea. Orduan, baina, ez zen bide horretan argiteriarik ipini eta horrek gauez bertan ibili ahal izatea galarazi du orain arte. Led teknologiadun 16 farol ipini dituzte orain.



Aitor Arregi zuzendari oñatiarra lantaldea zuzentzen, filmaren grabaketan. MORIARTI PRODUKZIOAK

'Handia' filma ikusgai, urriaren 20tik aurrera

Herriko zinemak hastear du denboraldia; eta jada jarriak dira ikus-entzunezkoen zerrenda osatzen. Tartean da Aitor Arregi oñatiarrak eta Jon Garaño donostiarrak zuzenduriko 'Handia' filma. Urriaren 20an estreinatuko dute

Iker Oñate OÑATI

'Handia' filmak urriaren 20rako du finkaturik estreinako emanaldia; Oñatiko zineman ere egun horretan bertan izango da ikusgai, 22:30ean hasita. Gaur-gaurkoz, sei saio dituzte antolatuturik. Hori bai, beharra balego, hor legoke saio kopurua ugaritzeko aukera. "Filmak harrera ona izango balu, saio gehiago eskainiko genituzke, emanaldirako egun gehiago finkatuz", azaldu du Nerea Zubiak, Kultura zinegotziak.

Gainera, Aitor Arregi zuzendari oñatiarrarekin eta filmeko beste kideren batekin solas egiteko tartea ere izango da saioen batean; oraindik, hala ere, ez dakite zein egunetan izango den. "Emanaldiaren ostean, filmaren parte direnei galderak egiteko aukera izango dute bertaraturiko herritarrek. Kamera atzekoa hobeto ezagutzeko bide ematen du horrek", argitu du Zubiak.

Aipaturiko egitasmoa ez da berria, *Loreak* filma eskaini zu-

tenean ere heldu baitzioten dinamikari; orduan, gidoilari lantetan jardun zuen Arregik.

Zinema denboraldiaren irekiera
Bestetik, ikus-entzunezko komertzialek gaur irekiko dute denboraldia; *Operación Concha* filma da zerrendan lehena. Bada, astelehenera bitartean bost saio eskainiko dituzte; gaur, 22:30ean hasiko da emanaldia. Haurrendako ikus-entzunezkoei dago kienez, bestalde, *Gru 3. Mi villano favorito* ikusteko aukera izango da aste bukaeran.

Enpresa aldaketa

Aurten, beste enpresa batek jardungo du zinema emanaldien kudeaketan murgildurik: Hiru-

**AITOR ARREGI
ZUZENDARI
OÑATIARRAREKIN
BERBA EGITEKO
AUKERA IZANGO DA**

tek. Hala ere, Zubiak argitu du irizpideek "bere horretan" dirautela eta ikus-entzuleak ez lukeela aldaketa nabarmenik nabari beharrik izango zineman funtzionamenduan. "Orain arte bezala, filmak ahalik eta lasterren ekartzen ahaleginduko gara", esan du Zubiak.

Oro har, berrikuntza bakarria aipatu du Zubiak: eskuragarri izango da hilabete osoan eskainiko diren ikus-entzunezkoen zerrenda. Zinema komertzialaz aparte, zineklubaren eskaintza ere jasoko du eskuorriak.

Zinekluba

Bestetik, atzo ireki zuten zineklubeko denboraldia, *Déjame salir* filmarekin. Bada, aurreko urteetako dinamikari jarraiki, komertzialak ez diren ikus-entzunezkoak eskainiko dituzte ostegunetan, arratsaldeko zortzietan hasita. Aurrera begira, bestalde, urriaren 19an dute hurrena: *La comunidad de los corazones rotos*.

Aloñako neskek bihar ekingo diote denboraldiari

Lauko Elgoibar eskubaloi taldearen aurka jokatu dute, Zubikoan; 16:30ean dute hitzordua

I.O. OÑATI

Ikasturte hasiera aurrera doan heinean, gero eta gutxiago dira denboraldia hasteke duten kirolariak. Bada, Aloña Mendi eskubaloi taldeko neskek asteburuan hasiko dute eurena, Lauko Elgoibar taldearen aurka. Zubikoan dute hitzordua, 16:30ean. "Aurreko urtean ezin izan genien ligako partidurik irabazi. Baina, ostean, oso bestelako taldea ekarri zuten Kopako partidura, irabazteko modukoa". Beraz, ikusi egin behar zer-nolako taldearekin agertuko diren elgoibartarrak.

Orain artekoarekin, bestetik, "pozik" da Kortabarria. "Abuztu amaieran hasita, gogor jardun dugu denboraldi-aurrean. Ilusioz eta gogoz gaude, dudarik gabe. Hori asko nabari ohi da talde baten jarreran, eta, beraz, emaitzetan", azaldu du.

Aurrera begira, bestalde, aurreko urtekoa hobetzeko ahaleginean segitzeko asmoarekin dihardute oñatiarrek. "Iaz ez genuen gura moduko denboraldia egin. Asko sufritu genuen. Beraz, hori hobetzeko, motibazioz dihardugu", argitu du Kortabarriak. Bide horretan, oraindik helburu zehatza zehazteko goizegi den arren, argi dute asmoa: "Denboraldi polita egin gura dugu; eta, orduan eta hobeto, gauza ederrak lor baditzaiegun".

Talde berria

Aurten, jokalaria berriak batu zaizkio Aloña Mendiri; lau pertsona igo dira gazte mailatik, eta, horrez gain, hainbat kide itzuli dira taldera. Dena den, Kortabarriak aitortu duenez, guztiek oso ondo ezagutzen dute elkar. Beraz, aipaturikoa ez litzateke arazo izango.

Donostian jokatu du Aloña Mendi saskibaloi taldeak

Aloña Mendi saskibaloi taldeak Donostian jokatu du asteburuan, Bosteko taldearen aurka; 20:00etan hasiko da partidua. Bolada txarra iraultzen saiatuko dira Aitor Ugarteren mutilak. Dena den, entrenatzaileak aitortu duenez, "partidu zaila izango da". Aurreko urtean txapelketa irabazi zuten donostiarrak, baina uko egin zioten igotzeari.

Zabalik dago udal ikastaroetarako izen-ematea


Zabalik dute udal ikastaroetan izena emateko epea; gura duenak urriaren 18ra arte izango du horretarako. Bada, kultura etxean eman daiteke izena, astean zehar, 16:30 eta 20:30 bitartean. Aurten ere lau eskaintza jarri dituzte herritarren eskura: patchworka, pintura, dekorazio-eskulanak eta senda belar tailerra, hain zuzen ere.

Bolada ona berreskuratu guran doaz futbol taldekoak

Herriko futbol taldea bolada ona berreskuratu guran doa Zestoara. Zapatuan dute partidua, 15:30ean, Iraeta futbol zelaian. Aloña Mendikoek aurreko asteburuan jasan zuten denboraldiko lehen porrota, Zestoaren aurka; ordura arte, jokaturik zituzten bi partidua zituzten irabazita, eta sailkapeneko lehen postuan ziren.

Iparraldeko euskal folk-rock doinuak Pako tabernan

Tristtan Mourguy Donibane Lohizuneko bakarlariak kontzertua eskainiko du domekan, hilaren 8an, Pako tabernan; 19:30ean hasiko da emanaldia. Hala, Iparraldeko euskal folk-rocka izango da entzungai. Zehatz esanda, euskara du kantuetarako hizkuntza; eta, gitarrak lagundurik, olerkiak edota bertsoak eskaintzen ditu musikariak.



GORBEIA ZINEMEK

abantaila gehiago dituzte zuretzako

GORBEIA ZINEMETARA
ETORRI ETA ESKURATU
McMenu®-a
ZURE SARRERA EROSTEAN



ASTEKO EDOZEIN EGUNETARAKO. KUPOIA PERTSONAKO

Promozio hau indarrean izango da Gamarra, Armentia eta Gorbeiako McDonald's-en, McMenu® Bigmac®, McPollo®, McRoyal Deluxe®, Cuarto de Libra eta 9 Nuggets® sorta kontsumitzeko. Eskuratu zure kupoia 2017ko urriaren 2tik azaroaren 26ra arte. Baliatu zure kupoia 2017ko abenduaren 3ra arte. Ezingo da bestelako promozioekin uztartu.



CINES
GORBEIA
ZINEMAK





Iazko lasterketan, korrikalariak Osintxuko zirkuituko maldetan gora; Iñigo Alzola eta Maddi Mujika izan ziren azkarrenak. I.S.

"Iaz, uste baino jende gehiago etorri zen"

MENDI LASTERKETA Domekan egingo dute Osintxuko II. Mendi Lasterketa; iazko ibilbide bera izango da, auzotik birritan pasako den hamar kilometroko zirkuitu maldatsua: "Garai bateko gurdi-bideetan begira ibili gara, baina oso zikin daude denak"

Xabier Urzelai BERGARA

Markel Fernandezek eta Osintxuko Txuringo Kultur Elkarte-ko lagunek ia dena dute gertu domekan II. Osintxuko Lasterketara begira: "Aurten, lasaiago nabil, lanak gehiago banatu ditugu eta. Iaz oso pozik geratu ginen lasterketak eman zuenarekin. Halako bat Osintxun antolatzeke gogoia nuen, mendi

lasterketen bueltan zaletasun handia daukadalako, eta ilusio handiz ibili nintzen. Baina egia da lan handia dela, eta bigarren ediziorako auzotarrek eta lagun-ek laguntzeko erakutsi duten jarrerari esker erabaki dugu aurrera egitea".

Bada, bigarren edizio honetan, iazko formatua erabiliko dute antolatzaileek: "Ibilbidea iazko

bera izango da. Garai bateko gurdi-bideetan begira ibili gara, baina oso zikin daude eta lan galanta egin behar da horiek txukuntzen. Oraingo zirkuituak malda politak ditu, eta birritan pasatzen da auzotik, horrek ematen dion bizitasunarekin". Egunean bertan lasterketan izena emateko aukera egongo da –aurrez: *Herrikrosa.eus*, 10 euro–.

Arrasate-Oñati eta Antxintxika Krosa ere gertu

Udazkeneko asfalto gaineko Debagoieneko lasterketak antolatzeke lanean dihardute antolatzaileek, eta zabalik daude iazen-emate epeak.

Arrasate-Oñati lasterketa urriaren 14an egingo dute –*herrikrosa.eus*, 12 euro– eta azaroaren 4an egingo dute Antxintxika krosaren 13. edizioa –*Kirolprobak.com*–. Izen-ematea aurrez egin behar da bietan.



Yeray Varela, iaz helmugan. IMANOL SORIANO



Mikel Arejolaleiba, apirilean, Burgoskoen bisitaren aurrean (79-94). IMANOL SORIANO

MUK min hartutako hainbat jokalarirekin hasiko du liga

SASKIBALOIA Zuri-moreek Burgosen dute EBako lehen hitzordua, zapatuan, Grupo de Santiagoren kontra

X.U. ARRASATE

Gura baino ezuste gehiago izan ditu Mondragon Unibertsitateak denboraldi-aurrean; lesio ugari, hain zuzen ere. "Arejok lesioa du orkatilan eta ikusteko dago ebakuntza egin beharko dioten edo ez. Horrekin batera, Martxelek arazo fisikoak izan ditu, eta, Gasteiztik etorri diren fitxaketen artean, Diegok min hartu du eskumuturrean. Ez-behar horiei aurre egiten ahal-egindu gara hilabete honetan; hori guztia kontuan izanda Euskal Kopan lan txukuna egin genuela uste dut, taldea lehia-

korra izan zelako, eta zapatutik aurrera hasten da benetako lana", adierazi dio GOIENARI Josu Larreategik, aste barruan.

Arrasatearrek Burgosen jokatuko dute bihar, arratsaldeko zortzietan: "Kantxa oso polita da, zoru ona... Halakoetan, jokalariei esaten diet gozatzera kantxaratu daitezela, disfruta dezatela. Entzun dut ondo indartu den taldea dela Burgoskoa, Kroaziatik pare bat jokalaria ekarri dituzte, eta azken hilabeteetan oso lan ona egin dute. Saillapenean erditik gora ibiliko dira horiek".

Bi jardunaldi behar izan ditu Ford Mugarrik lider izateko

ESKUBALOIA Arrasatekoek Hondarribia hartuko dute asteburuan etxean eta Oñatikoek, Corazonistas

X.U. ARETXABALETA

Ford Mugarri Arrasatek bi jardunaldi behar izan ditu Euskadiko Txapelketako lehenengo postura salto egiteko, lau puntu batuta –oñatiarrek partido bat dute jokatzeke–. Duela hamabost egun liga Deustoko Unibertsitatearen kontrako garaipen batekin hasi zuten (27-22), eta joan den asteburuan, lehia handiko norgehiagokan, beste bi puntu baliotsu eskuratu zituzten Ereintzaren kantxan gol bateko aldearekin irabazita (26-27). Oraingo asteburuan, berriz, orain

arteko bi partiduetan puntu bat batu duen Hondarribia izango da Iturripen.

Fagor Industrial, lanera bueltan San Migel jaiengatik Oñatiko eskubaloitako talde nagusi Fagor Industrialek atsedean hartu eta gero, asteburuan lanera bueltatuko dira osterara ere. Ligako talde indartsuetako bat den Basauriren kontra jokatu beharreko norgehiagoka azarora atzeratu dute, eta asteburuan Gasteizko Corazonistasen bisita izango dute Zubikoan.

Laugarren garaipena trabatu egin zaie denei

FUTBOLA Ohorezko Erregionalean lider dauden Ordiziak, Bergarak, Aretxabaletak eta Tolosak berdindu egin dute asteburuan, inor ez da izan laugarren garaipena eskuratzeko kapaz. Mondrak, berriz, galdu egin zuen Zarautzen etxean

Xabier Urzelai ARRASATE

Ohorezko Erregional mailako ordezkari guztiek etxean jokatuko dute asteburuan, eta joan den asteko jardunaldi *apala* zuzentzen ahaleginduko dira denak. Mondrak (6 puntu), esaterako, domekan (16:30, Goiena Telebista) jokatuko du Mutrikuren (4 puntu) kontra, ordu-rako jokalariek Maritxutako ajea gaitututa izango duten esperantzarekin. Sarritan, bihar-ramunarekin egiten dira partidua onenak. Bada, joan den astean Zarautzen zelaian galdu eta gero, Mutrikuren kontura batu gura dute ligako hirugarren garaipena.

San Migel jaietako ajearekin edo barik, baina Aretxabaleta (10 puntu) puntu batekin itzuli zen joan den astean Zumarragatik, eta Bergarak (10 puntu) ere ez zuen garaipenik lortu. Kategorian aurrealdean dabilzanetako inork irabazi ez zuenez, aurrealdean jarraitzen dute bi horiek, hamar puntu batuta.

Hala, liga makal hasi duen Beti Gazteren bisita izango dute aretxabaletarrek domekan Ibarrran (16:30), eta Bergarak lau puntu batu dituen Mutrikuren kontra jokatuko du zapatuan Agorrosinen (16:30).



Sanchez, Mojategiko berdegunean artxibo erretratuan. GOIENA

MONDRAK, ARETXABALETAK ETA BERGARAK ETXEAN JOKATUKO DUTE ASTEBURUAN

Leintz Arizmendiren erreakzioa
Leintz Arizmendiko neskek formalago ibili beharko dute gaur, ezinbestean, gainera, Oiarzunen kontrako norgehiagoka bihar 15:30ean jokatuko dute-eta, Oiarzunen bertan. Bi taldeek

ERREGIONAL PREFERENTEAN DERBIA IZANGO DA, ANTZUOLAREN ETA MONDRAREN ARTEAN

launa puntu dituzte, eta norgehiagoka lehiatua izango dela aurreikusi daiteke, joan den astekoa modukoa.

Izan ere, joan den astean Barakaldoren kontra batutako puntuak balio handia du, *Tituren* eta Ezkurraren neskek atetik aurrerako bidea egin eta Barakaldok egindako 0-1ekoari erantzuteko kapaz izan ziren eta (1-1).

Erregional Preferentean derbia
Erregional Preferentean Bergarak eta Aloña Mendik seina puntu batu dituzte orain arte, eta sailkapenean aurrealdean dabilta. Koska bat beharago daude zapatuan derbia jokatuko duten Antzuola eta Mondra (16:30, Estala). Hain zuzen, Antzuola da jardunaldi honetan etxean jokatuko duten ordezkari bakarra.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EMAKUM. EUSKAL LIGA

Oiarzun-Arizmendi L.
Zapatua. 15:30. Oiarzun.

OHOREZKO ERREGION.

UDA-Beti Gazte

Domeka. 16:30. Ibarra.

Mondra-Pasaia

Domeka. 16:30. Mojategi.

Bergara-Mutriku

Zapatua. 16:30. Agorros.

ERREGIONAL PEFEN.

Idiazabal-Aretxabaleta

Zapatua. 18:00. Idiazabal.

Antzuola-Mondra

Zapatua. 16:30. Estala.

Soraluze-Bergara

Zapatua. 17:15. Ezozia.

Zestoa-Aloña Mendi

Zapatua. 16:30. Iraeta.

ERREGIONAL MAILA

Urki-Aloña Mendi

Domeka. 15:45. Unbe.

Arizmendi-Elgoibar

Domeka. 18:30. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Durango-Aretxabaleta

Domeka. 12:00. Landako.

EUSKAL LIGA

Mondrate-Scalibur

Zapatua. 16:30. Ibarra.

Presion.-Eskoriatza

Ordutegia zehazteke dute.

ESKUBALOA

EUSKADIKO TXAPELKET.

Fagor Indus.-Corazonis

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

Ford Mugarri-Hondar.

Domeka. 12:00. Iturripe.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Soraluce BKE-Tolosa

Zapatua. 18:00. Labegar.

Aloña Mendi-Pulpo

Domeka. 12:00. Zubikoa.

GAZTE MUTILAK

Egia-Bergara

Zapatua. 13:00. Egia.

Aloña Mendi (Atsedon).

SASKIBALOA

EBA

Santiago-MU

Zapatua. 20:00. Burgos.

GIPUZK. SENIOR MAILA

Zarautz-MU

Domeka. 18:00. Zarautz.

Bosteko-Aloña Mendi

Zapatua. 20:00. Donostia.

GIPUZK. BIG. MAILA

Mundarro-Bergara

Zapatua. 16:00. Astigarra.

SENIOR EMAKUMEZK.

Bera Bera-Eskoriatza

Zapatua. 18:00. Donostia.

ERRUGBIA

SENIORRAK

ART- Atletico

Domeka. 13:00. Mojategi.

MENDI LASTERKETAK

OSINTXUKO II. PROBA

Domeka, 10:30.

MENDIKO BIZIKLETA

MONDRANBIKE

Domeka, 09:00, Seber

Altuben.

PILOTA

BOTE LUZEKO FINALAK

Domeka, 17:00,

Oñatiko plazan.

TXAP. FEDERATUA

Oñati, gaur, 18:30ean:

Bost norgehiagoka.

Aretxabaleta, gaur,

19:00:

Bi norgehiagoka-

Bergara, gaur, 19:15:

Hiru norgehiagoka.

Eskoriatza, gaur,

19:30:

Norgehiagoka bat.

MENDIKO BIZIKLETA

Biharamunari aurre egiteko, Mondranbike

Maritxu Kajoi jaiak bizikleta-zale askorengan utziko duen biharamunari aurre egiteko proposamenarekin datoz Besaide mendi elkarteko lagunak, domekan -urriak 8- egingo dute-eta Mondranbike martxa. Aurtengo nobedadea da irteera eta helmuga Seber Altuben izango dela (09:00), eta ez Musakolako kiroldegian.

Urterto moduan, ondo landutako ibilbidea izango du martxak, tramu batzuek zailtasun tekniko izango dute -enduro deritzonak-, baina horiek jaisteko alternatiba errazagoak aurreikusi dituzte antolatzaileek. Ibilbide luzeak 30 kilometro izango ditu (1.600 metroko desnibela) eta motzak 25 kilometro (1.600 metro).

Domekan bertan izena emateko aukera egongo da, 08:00etatik 09:00ak arte, 15 euro ordainduta, Seber Altuben.

PILOTA Irribarria ordezkatu du Mendizabal III.ak

Uda gogorra izan ostean, eta Mastersa eskuetatik justu amaitu eta gero, Iker Irribarria erabaki du aste barruan aurkeztu duten Lau terdiko Txapelketa ez jokatzea, eta Aitor Mendizabal antzuolarrak beteko du haren lekua. Urriaren 12an hasiko dute ligaxka, eta txapelketa motza izango da, binakakoari lekua egin gura diote eta.

PILOTA Euskal Herriko Bote Luzeko Txapelketako finalak

Aloña Mendiko pilota sailak antolatuta, Euskal Herriko Bote Luzeko Txapelketako finalak jokatuko dituzte Oñatin asteburuan (domekan, 11:30ean, plazan). Euskal pilotako espezialitate zaharrena da bote luzea. Bi taldeak aurrez aurre jartzen dira, tenisean moduan, eta ez da pilota hormaren kontra joz jokatzen.

Oruetak ez du Alavesen jarraituko

Alavesek bigarren taldeko entrenatzaile Aitor Orueta kargutik kentzea erabaki du, eta Igor Oca ordezkatu du oñatiarra. Oruetak lau denboraldi egin ditu Alaves futbol taldean, eta aste barruan sare sozialen bitartez jakinarazi du ez duela klubean jarraituko. Oruetak Aloña Mendin entrenatzaile eta kirol zuzendari jardun ostean hartu zuen Gasteizerako bidea.

Harrobiarekin egin ditu urte gehienak lanean, baina iaz Alavesko bigarren taldearen ardura hartu zuen, oso emaitza onekin -Bigarren B mailara igotzeko borrokan ibili ziren-: "Hiru hilabete gogor izan dira, nire buruarekin borrokan ibili naiz eta ez naiz nire printzipioekin fidela izan. Taldearen inguruan egon den giro ezkorrak kutsatu nau, eta uste dut entrenatzaile berria behar duela taldeak", adierazi du.

"Filmak komunikatu egin duela ikustea polita da"

AITOR ARREGI GALDOS 'HANDIA' FILMEKO ZUZENDARIA

Donostia Zinemaldiko Sail Ofizialean epaimahaiaren Sari Berezia eskuratu du Moriarti Produkzioak ekoiztetxearen lantaldeak, baita euskal ekoizpen onenaren Irizar saria ere

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Zapatuan banatu zituzten 65. Donostia Zinemaldiko sariak eta *The Disaster Artist* filmak eskuratu zuen Urrezko Maskorra. Aitor Arregi oñatiarrak eta Jon Garañok zuzendutako *Handia* filmak bi sari eskuratu zituen: epaimahaiaren Sari Berezia eta euskal ekoizpen onenarena, hau da; Irizar saria. Txomin Madinak gidatzen duen *Hemen Debagoiena* saioan izan zen Arregi martitzenean.

Zorionak! Zelan jaso duzue lantaldean epaimahaiaren sari berezia?

Eskerrik asko! Oso albiste on moduan hartu genuen, nola ez. Ez genuen espero, inondik inora; guretzako, sail ofizialean egotea eta fokua bertan jartzea, filmaren gainean eztabaida sortzea, nahikoa sari zen. Eta Sari Berezia ematea, hau da, nazioarteko palmaresa duen jaialdi batean bigarren saria ematea, ikaragarria da! Mundu mailan hirugarren edo laugarren jaialdirik garrantzitsuena da Donostiakoa, eta, kontuan hartuta zeintzuek osatu duten epaimahaiak [John Malkovich, Emma Suarez, Gleen Close...] hau da, filma hutsetik hasita ikusi dutela aintzat hartuta, guretzako, are garrantzitsuagoa da, gustatutako zaielako filmak komunikatzen



Arregi, Goiena Telebistan. TXOMIN MADINA

duena. Era berean, ahaztu barik Irizar saria ere jaso dugula.

Zelan gogoratzen duzu saria hartzeko une hura?

Urduri; ez zen batere samurra birritan agertokira igo eta horrenbeste ikusleren aurrean hitzekin asmatzea.

Filmaren originaltasuna azpimarratu zuen epaimahaiak; euren esanetan, "herrialde baten esentzia" komunikatzen du.

Atentzioa eman zidan, eta polita iruditu zitzaidan; buruan geneukana plasmatezea lortu dugula adierazten du horrek.

John Malkovichek pertsonalki zoriondu zintuzten. Zuekin, zuzendariekin, izan zen, eta geroago, Joseba Usabiaga aktorearekin.

Gala amaitzeaz zegoela argazkia ateratzera atera ginen Garaño eta biok, eta bat-batean eta bizkarrean kasu egiteko keinua egin zigun norbaitek; buelta eman, eta Malkovich! Eskua eman eta filma asko gustatu zitzaiola esan zigun. Ondoren, Miramar jauregian izan zen festan, Eneko Sagardoyekin batera protagonista izan den Joseba Usabiagarengana zuzenean joan zen; bi musu eman eta "very good job! (oso lan ona)" esan zion. Joseba hitz barik geratu zen; asko poztu ginen beragatik, Enekok eramatzen dituelako laudorio gehienak. Erraldoiaren paperean sartuta, lan handia egin du Enekok, baina Josebaren muskulu dramatiko barik ezin genuen istorioa kontatu dugun moduan kontatu. Aktore guztiek sekulako lana egin dute, eta asko sufritu dute gurekin.

Donostiako bi sari eskuetan, hurrengo geldialdia Londresko jaialdian duzue.

Bai; hala da, domeka joango gara. Astelehenean aurkezpena izango da eta martitzenean mahai-inguru baten hartuko dugu parte.

Eta, dudu barik, hurrengo data urriaren 20an duzue, orduan estreinatuko delako zinema komertzialetan. Ze sentsazio duzue?

Onak. Uste dugu pelikula indartuta atera dela Zinemalditik eta jendea ikusteko gozoz dagoela. Era berean nabaritu dugu beste jaialdi batzuegan ere interesa piztu duela. Esperantza daukat Euskal Herrian ondo joango dela eta Estatuan, ba... ikusiko dugu.

Iritzi nahiko bateratua



I. GALLEGO
ZINEMALDIAN
BERRIEMALEA

200 film baino gehiago eskaini dituzte aurtengo zinemaldian eta horietatik 40 ikusi ditu Imanol Gallegok, Goienako berriemaleak. "Anitza eta zabala izan da aurtengo eskaintza: filmen istorioari, generoari eta jatorriari begiratuta".

Sari banaketaren aurretik kazetari eta adituen artean *Handia* faboritoen artean zegoela dio: "*The Disaster Artist* eta *Pororoca* fimekin batera, aipatuena zen. Ez da sarritan gertatzen epaimahaikideek iritzi bera izatea. Ez nuen espero Sari Berezia jasotea, ez da-eta urtero ematen den saria. Asko poztu ninduen. Pauso erraldoia eman dute, eta, orokorrean, euskal zinemagintzak ere bai".

Istorio gogorra eta erreala Tanttakaren 'Soka' lanean

Iñaki Rikarte aktoreak eskainiko du, domekan, 19:30ean, Arrasateko Amaia antzokian

A. A ARRASATE

Soinketako irakasle batek 11 urteko mutiko baten gorpua aurkitu du gimnasioko sokatik urkatuta. Horrela abiatzen da Tanttaka antzerki taldearen *Soka* antzezlanak. Zinemagintzan eskarmentua duen Mikel Gurreak antzerkirako idatzi duen lehenengo lana da, eta, haren esanetan, "eskolan jazarpena sufritu eta jasaten dutenak, horien senideak eta horri aurre egiteko lanean ari diren guztiak" hartu nahi izan ditu gogoan.

Tanttakarekin egiten duen laugarren lana da Iñaki Rikarterentzako. Hura da agertokian dagoen aktore bakarra. "Gorpua aurkitzen duenean, gertatutakoaren errudun sentituko da. Agertokian gorpuzten duan pertsonaia bakarra da Igor, eta haren begietatik kontatuko dut istorioa; hala ere, hamahiru pertsonaia agertzen dira istorioan eta horiek guztiak ere iradokitzen ditut, euren ahotik hitz egiten dut".

Musika gutxi badago ere, soinuak pisu handia duela dio aktoreak. "Protagonistaren irudiekin osatutako ikus-entzunezkoak ere badira, zuri-beltzean, eta agertokian osagai gutxi: soka eta aulki batzuk besterik ez".

MINTZALAGUNAK: SARE BAT INGURUAN, BIDELAGUNAK ALBOAN.

GOIENA TELEBISTA, ERREPORTAJE BEREZIA
URRIAREN 11N, EGUAZTENEAN, 21:30EAN

goiena
ZU HEMEN ZAUDE





Orkestrako Alfredo Gonzalez Chirlaque eta Leire Ibarzabal eta SOS Arrazakeriako Nora Ugarteburu eta Aitziber Azkondo. M.T.

Elkartasun doinuak Greziaraino hel daitezzen

Bergarako Orkestra Sinfonikoak 'Pasabide seguru baten eskubidea, giza eskubidea' kontzertua emango du hilaren 28an. Errefuxiatuen inguruan kontzientziak piztea du helburu, eta musikaren bitartez integrazioa lantzen duen elkarte bati lagunduko diote.

Maite Txintxurreta BERGARA

Urriaren 28an kontzertu berezia izango da Udal Pilotalekuan (20:30). Bergarako hainbat herritarren ekimenez, SOS Arrazakeriaren, Bergarako Orkestra Sinfonikoren, Udalaren eta Kultura Fundazioaren laguntzarekin gertatzen dabilta emanaldia.

Errefuxiatuen egoera salatzea eta ezagutaraztea helburu duen elkartasun kontzertua da, eta izenburua *Pasabide seguru baten eskubidea, giza eskubidea* da. "Gaur egun errefuxiatuentzat ez dago Europarako pasabide segururik, eta, horren ondorioz, milaka izan dira hildakoak", azaldu du SOS Arrazakeriako Nora Ugarteburuk.

Batutako dirua El Sistema Greece GKerri bidaliko diote. Greziako ume errefuxiatuen integrazioan lan egiten dute, hezkuntza musikaren bitartez. "350 ume ingururekin lan egiten dute Greziako sei lekutan. Greziar umeekin eta errefuxiatuekin abesbatzak, eskolak... sortzen dituzte", dio Ugarteburuk. Hala, lotura estuak sortzen dituzte umeon artean.

Antolatzaileek diote kontzertua "benetan hunkigarria" izango dela, kontzientziak piztea baitute helburu, eta herritarrek animatu dituzte joatera.

Kontzertuaren bitartez, gerratik ihesi doan familia baten istorioa kontatuko dute.

Bushnaq, gonbidatu berezia

Kontzertuan gonbidatu berezi bat ere izango da, Suad Bushnaq kontzertu eta film konpositore arabiar-kanadarra. Jordaniar jaioa, munduko konpositore arabiarrik ezagunenetakoa da.

Istorio kuriozoso dago haren etorreraren atzean. Alfredo Gonzalez Chirlaque Orkestrako zuzendaria errepertorioa prestatzen ari zela, Bushnaqen *Gadhan (Tomorrow)* obrarekin topo egin zuen, eta, hura erabiltzeko baimena eskatzean, Bushnaqek bere burua eskaini zuen emaldian parte hartzeko. Hortaz, Bergaran izango da hilaren 28an, eta azken entseguak orkestrakoekin egingo ditu.

Xabier Aierdi soziologoa azkeneko 'EKT' saioan

Herri baten subiranotasuna lortzeko tresna batzuk proposatuko ditu, egunean, 21:00etan hasita

M.T. ARRASATE

Maiatzean Goiena telebistan abiatutako *EKT -Euskal Kulturegintzaren Transmisioa-* el-karrizketa saioa egunean, hilaren 12an, borobilduko dute, 21:00etan. Orain arte eskainita-

ko saio guztiak Goiena.eu/telebista/ekt atarian ikus daitezke.

MUren laguntzarekin, Euskadi Irratiak, Bilbo Hiria Irratiak eta Goienak elkarrekin ekoiztu dituzte. Oraingoan, Xabier Aierdi soziologoa izango da Aitziber

Aranburuzabala kazetariaren galderei erantzuten.

EHUko irakaslea da Aierdi, eta askotariko erakundeentzako ikerketak eta bestelako azterketak egin ditu. Herrialde batek burujabe izateko behar dituen tresnen gainean jardungo du. "Botere soziala izateko, aurrez, ekonomikoa eta kulturala izatea beharrezkoa da. Euskal burgesia nazionala behar dugu, eta, nire ustez, ezker abertzale soziologikoak hartu beharko luke gidaritzari", dio Aierdik.

Goiena Klubaren txokoa

HAUEK DIRA IRAILEKO IRABAZLEAK!

HAUEK DIRA IRAILEKO IRABAZLEAK!

TELEBISTA (Samsung 32")

Bittor Bengoa Altuna (Zumaia)

"KOKEIN" TALDEAREN BINILOA SINATUTA

Arantzazu Uribe-Etxebarria Maiztegi (Aretxabaleta)

HARREMAN DENDAKO OTARREA

Jose Antonio Markaide Armendariz (Eskoriatza)

ARRIKRUTZ KOBETARAKO SARRERAK

Miren Arregi Zuazubiskar (Arrasate)

Ana Maria Urzelai Etxaniz (Elgeta)

Anparo Irizar Beiztegi (Arrasate)

BI PERTSONARENDAKO OTORDUA

Ruben Horrillo Corral (Arrasate)

Iker Larrea Soraluze (Antzuola)

Amalia Irizar Markuleta (Aramaio)

Estitxu Uribeetxeberria Madinabeitia (Aretxabaleta)

EIBARREN PARTIDURAKO SARRERAK

Jon Balentziaga Larrañaga (Bergara)

Eñaut Alvarez Berriotxo (Bergara)

Kristina Atxa Gallastegi (Bergara)

Itziar Garcia Blazquez (Oñati)

RUPER ORDORIKAREN KONTZERTURAKO SARRERAK

Xabier Aiestui Zubia (Arrasate)

Marina Retolaza Arriola (Bergara)

KILOMETROETAKO ARROPA-SORTAK

Iratxe Muxika Olasagasti (Eskoriatza)

Adela Guridi Grisaleña (Oñati)

Gurutze Arizabaleta Okina (Arrasate)

Juan Luis Zubizarreta Isasmendi (Oñati)

Juan Ignacio Igartua Garai (Bergara)

"HANDIA" PELIKULARAKO SARRERAK VICTORIA EUGENIA

ANTZOKIAN

Izaro Agirre Bengoa (Arrasate)

Miren Urzelai Eizagirre (Oñati)

"HARRI, ORRI, AR " IKUSKIZUNERAKO SARRERAK

Albina Arregi (Arrasate)

Amalia Irizar Sainz (Aramaio)

PARTE HARTZEKO:

Arrikruzeko sarrerak. Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikruzeko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK.** Arotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Orduetgia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egiteko) Harreman dendako **otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin. Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Telebista, bini-loa eta KMK arropa sortak** jasotzeko, zator GOIENAREN egoitzara urriaren 9tik aurrera. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da. GOIENA Otolara Lizentziaduna 31, Arrasate. 943 25 05 05. Orduetgia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Bertsozale Elkarteari esker

